

Goienkaria

2007ko irailaren 28a > Egubakoitza > VII. urtea > 302. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Boluntarioak beharrezkoak dira nagusiei eskainitako arreta hobetzeko"

Lara Santamaria
Psikologoa > 09



G2a

Gipuzkoako bertsolariak lehiari Arrasaten > 43-44

EUSKARA
Emun-ek ekitaldi sorta antolatu du 10. urtemuga ospatzeko > 05

ARRASATE
Astelehenetik aurrera zirkulazioa aldatuko dute hainbat kaletan > 19

ARETXABALETAK
San Migeletako produktu biologikoen azoka bihar > 31

HEZKUNTZA > AISIALDIA

Neska-mutikoen topagune ditugu Debagoieneko ludotekak

ADINA 3 eta 12 urte bitarteko umeei zuzendutako ludotekak daude Debagoieneko ia herri guztietan

HELBURUAK Lagun artean aisialdiaz gozatzea eta aldi berean proiektu hezitzaileak garatzea dira helburu nagusiak

ARRASATE Ibarreko lehen ludoteka Arrasaten ireki zuten, 1988an, eta berriena ere handago: gaur inauguratuko dute > 15

HEZKUNTZA > UNED

UNEDek ikasturtea aurkeztu du

Besteak beste, 34 unibertsitate ikasketa eskainiko ditu > 07

KIROLA > AUTO LASTERKETA

Gorlako 27. auto igoera bihar

Bihar, zapatua, mendiko igoeren Euskadiko III. lasterketa egingo dute Gorlan (Bergara). 45 pilotuk hartuko dute parte. Hain zuzen, ikusmin handien eragin du Aitor Zabaleta (Lola Diamante) bergarra eta Europako txapeldun Ander Vilariño gaztea (Reynard F3000) aurrez aurre ikusteak. > 42

GIZARTEA > ONGIZATEA

Orientazio psikologikoa gurasoentzat

Bergarako Udalak emango du, doan, zerbitzu berri hori > 25

Dena prest Oñatiko San Martin auzoan 306 etxebizitza eraikitzen hasteko

Atzo, eguna, jarri zuten lehen harria, eta urrian hasiko dira garabiak lanean. Guztira 306 etxebizitza eraikiko dituzte: 196 babes ofizialekoak izango dira; 11, tasatuak; eta 99, promozio librekoak. Horiek guztiak 18 bloketan banatuta egongo dira. Lanak faseka egingo dituzte; hala, lehenengoan, babestutako 45 etxe eraikiko dituzte hiru bloketan banatuta. > 33



LEHEN HARRIA Udal agintariak eta enpresa eraikitzaileko ordezkariak izan ziren ekitaldian, besteak beste. GOIENKARIA

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-42
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

IKER

Fagor sukaldeko altzariak,
%25eko deskontua lau modelotan.
Azaroaren 18ra arte.

FAGOR  Zatoz eta ikus itzazu!



SUPER AMARA

DENAK GUTXIAGO BALIO DU

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkalekua

OLANA > AUTONOMOEN GAINEKO ESTATUTU BERRIA

Autonomoen figura kontuan hartu eta hobekuntza batzuk ekarriko ditu legeak

BERE KABUZ Autonomoak dira bere kabuz lan egiten duten langileak, negozio propioaren jabe diren eta ardura osoa duten enpresari txikiak

URRIAN Urriaren 12an jarriko dute indarrean Espainiako Diputatuen Kongresuak onartu duen autonomoen estatutua, orain arteko lehena

HANKAMOTZ Langile autonomoek eurek eta sindikatuek uste dute hobekuntzak dakartzala, baina hankamotz dagoela

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Gero eta langile autonomo gehiago daude Euskal Herrian, eta baita Debagoienean ere. Eraikuntzako langileak, arotzak, iturginak, dendariak, igeltseroak, tabernariak, jendaurrean zerbitzua ematen duten hainbat lagun... Izan ere, gure artean uste baino herritar gehiago dira langile autonomoak.

BERE KONTU LAN EGITEN DU

Orokorrean langile autonomoen definizioa da bere kontu lan egiten duen pertsona. Hura da negozio propioaren jabea eta ardura osoa duena, baina ez da enpresaria, edo, asko jota, enpresari txiki moduan har dezakegu.

Hala ere, badira beste batzuetarako lan egiten duten autonomoak ere, menpeko autonomoak deritzenak. Halako deiturak jasotzen dute euren sarreraren %75 gutxienez enpresa batetik jasotzen dutenean.

LEGEDI PROPIO BARIK

Autonomoek eurek, erakundeek eta sindikatuek aditzera eman dute gaur egun langile autonomoek ez dutela legedi edo estatutu berezirik. Hala egon dira azken

40 urteotan, eta autonomo izatearen definizioa eta erregulazioa eskatu dute hainbat eta hainbat urtetan.

URRIAREN 12AN INDARREAN

Espainiako Diputatuen Kongresua aurreproiektu bat idazten ibili da luzaroan, eta dagoeneko onartuta dauka autonomoen estatutu berria. Hura indarrean jarriko dute urriaren 12an. Diputatuen Kongresuak aditzera emandakoaren arabera, badakite autonomoak babesgabe daudela eta horrek erregulazio zehatz bat eskatzen duela. Horregatik idatzi dute estatutu hori.

AUTONOMOEN FIGURA AINTZAT

Kasu honetako protagonistek, langile autonomoek, eta baita sindikatuek eta erakundeek ere, guztiek bat egiten dute estatutu horrek langile horiei onurak ekarriko dizkiela ondorioztatzerakoan. Are gehiago, estatutu horrek lehenengo aldiz autonomoen figura aintzat hartzen duela azpimarratu dute.

Hala ere, langileek eta sindikatuek oraindik lan asko egiteko dagoela diote, eta estatutua hankamotz gelditu dela.

Orain arte ez bezala, langile autonomoak babestuago izango dira; lehenik eta behin, euren figura definitzen duen legedia egin dute, zegoen hutsunea estaldu guran

Langileek eta sindikatuek diote estatutu horrek hobekuntza nabariak ekarriko dizkiela autonomoei, baina, hala ere, pauso gehiago emateko eskatu dute

Orain arte langile autonomoek ez dute aukerarik izan senitarteko zuzenak kontratatzeke; eta horiek, senitartekoek, ere autonomo egin behar zuten.

Bestalde, gaixotasun kasuetan, autonomoek hamabost egun egin behar dituzte bajaran dirua jasotzen hasteko. Eta euren negozio propioa izanik, euren poltsikotik ordaindu behar izaten dute ordezkari lana egiteko kontratatutako beste langilea.

KOTIZAZIO TXIKIAGOA DUTE

Autonomoak arduratzen dituen beste gai bat da lan istripuen aurrean babesik ez dutela. Baita umerik izanez gero amatasun edota aitatasun bajak hartzeko dituzten aukera urriak ere.

Hala ere, euren gana jo dugun langile autonomo batzuek jakinarazi digute eurek egiten dituzten kotizazioak beste langile batzuenak baino txikiagoak direla. Hala, horren ondorioz jasotzen dituzten ekarpenak ere txikiagoak dira, txikiegiak euren ustez.

ONURA BATZUK EKARRIKO DITU

Estatutuaren onuren artean nabarmentzekoak dira hemendik aurrera langile horiek 30 urtetik



ERAIKUNTZA Arlo askotan daude langile autonomoak

beherako seme-alabak kontratatzeke aukera izango dutela; baina, zoritxarrez, seme-alaba horiei ez diete langabezia laguntzarako eskubiderik ematen. Horrez gain, ezingo dituzte bikote edo senitartekoak kontratatu.

Beste hobekuntza bat da arrisku handien duten lanbideetan aritzen diren edota ekonomiko-ki menpekoak diren langileak



KILOMETROAK 07
Aranzadi Ikastola - Bergara - Urriak 7
www.kilometroak.net

Geroaren distira
Aurrera begira
Argi daukagu
Argi da!
Kilometroak Bergaran





ak: eraikuntzan (argazkia), tabernetan, dendetan eta hainbat gremiotan.

IKER BARANDIARAN

lan arriskuen aurrean babestuta egongo direla; baita lanetik etxera bidean edo alderantziz istripurik sufrituz gero.

Horrez gain, langile horren negozioa, berak errua izan barik, bertan behera gelditzen bada, langabezia prestazioa jasoko du. Aurre-erretiroari dagokionez, horren aukera izango dute lanbide arriskutsuak dituzten langile-

ek bakarrik. Gainontzeko autonomoek, ordea, ez dute horren aukerarik izango.

MENPEKO AUTONOMOAK

Sindikatuak esan digutenez estatutu hori *partxe* hutsa da, onura gutxi batzuk ekartzen dituelako. Horrekin batera, salatu dute estatutu horrekin ez dela menpeko autonomoen egoera konponduko.

Joxe Arozena > Langile autonomo erretiratua "Txikioi, autonomooi, guztiek ematen digute egurra"

I.B. > ELGETA

Joxe Arozena elgetarra urte askoan ibili da arotz lanean, gaztetatik erretiratu den arte. Azken urteak, gainera, autonomo egin zituen. Aspaldian erretiratuta dago, eta dagoeneko lan kontuak zeharo ahaztuta dauzka-lan azaldu digu.

Zein tailerretan ibili zinen arotz lanean?

Oso gaztetxotan. 16 bat urterekin hasi nintzen Julio Ugalde arotzegie lanean, Elgetan bertan. Ugalde zen

ugazaba eta harekin egiten nuen lan. Han ikasi nuen bizitza osoan izan dudana lanbidea.

Eta noiz egin zinen autonomo?

Orain dela 12 bat urte Ugalde erretiratu egin zen eta negozioa neuk hartu nuen. Orduan egin nintzen autonomo. Handik aurrera, neuk bakarrik ibili nintzen lanean.

Aspaldian erretiratu zinen?

Bai, badira urte batzuk erretiratu nintzela. Orain dela zazpi bat urte utzi nion

lan egiteari. Orduan ez du negozioa beste inork hartu, eta arotzegie itxita dago.

Zer balorazio egiten duzu autonomo izateaz?

Ez oso ona. Oso erraztasun gutxi genituen. Txikioi, autonomooi, alde guztietatik ematen digute egurra eta bakarrik gaude.

Inoiz bakarrik hartu zenuen?

Inoiz-edo hartuko nuen, baina ezer gutxi. Pentsa ezazu zenbat hartuko nituen, ez ditut gogoratzen. Bajar hartzeko oso



aukera gutxi zeuden. Gutxienez hamar egun egin behar zenituen gaixo, diru zerbait ordain ziezazuten. Ez dakit zer ekarriko duen autonomoen lege berriak. Niri ez dit eragingo, baina bada zer hobetu...

Sonia Morales > Langile autonomoa eta ama

"Amatasun bajaran jasotakoarekin ezin ordezkoa ordaindu"

I.B. > ARETXABAETA

Sonia Morales aretxabaletarrek Gertu prestatutako janari dendaren arduraduna du. Orain dela bi urte pasatxo ama izan zenean, baja hartu zuen.

Noiztik zabilta prestatutako janari dendan lanean?

Orain dela bi urte erdi hasi nintzen hemen, dendan, lanean. Orduan autonomo egin nintzen eta familiariko negozioaren ardura hartu nuen. Ordura arte gurasoek izan zuten.

Orain dela bi urte pasatxo ama izan zinen. Autonomo izanda, zailtasunik izan zenuen?

Autonomo umea izatean hamasei asteko baja hartzeko aukera daukagu, baina jasotzen dugun dirua ez da nahikoa dendan jarri beharreko ordezkoa ordaintzeko. Horregatik, mutila eta biok zailtasun izan ginen baja zeinek hartu. Mutilak hartuz gero ehuneko ehu-lanean ordainduko zioten, baina azkenean neuk hartu nuen baja, umearekin

egon gura nuelako. Autonomo aukerak eskasak dira.

Autonomoen gaineko lege berriak zer onura ekarriko dizkizue?

Hemendik aurrera, negozioa txarto doalako bertan behera uzten badugu eta langabezia gelditzen bagara, prestazio bat eman-godigute. Hori positiboa da. Bestalde, lege berriaren arabera, gizonak aitatasun baja hartzeko aukera izango du. Hala ere, haren biko-



tea autonomoa ez bada, seguruenik autonomo horrek ez du bakarrik hartuko, bikoteak gurago izango duelako diru gehiago jaso. Egia esan, gauza asko daudu hobetzeko.

Mertxe Valdivieso > Langile autonomoa

"Aseguru pribatua daukat edozein lesio egiten badut"

I.B. > ARRASATE

Mertxe Valdivieso arrasatearrak sei urte pasatxo darama Irudi Sport gimnasioko arduradun. Orduan arte beste batzuen kontu egin zuen lan.

Noiztik zabilta zure kontu lanean?

Bost bat urtean beste batzuen gimnasioetan lanean ibili nintzen, eskolak ematen. Baina orain dela sei urte eta erdi lagun batek eta biok Irudi Sporten ardura hartu genuen, eta langile

autonomo egin nintzen. Orduan ni naiz nagusia, onerako eta txarrerako.

Autonomo zer-nolako aukerak dituzue bajak hartzeko?

Aukera gutxi. Gaixo egonda kobratzen hasi ahal izateko hamabost egunetik gora bajaran egin behar ditugu; eta hori egun asko da. Nik behin bakarrik hartu dut baja, ebakuntza bat egin zidatelako, baina egun gutxira lanera bueltatu nintzen. Kontua da dirurik jaso

barik ordezkotatu eta ordaindu behar dugula.

Gainera, zure lana ez da txantxetako...

Ez. Gimnasiokoak ez da ohiko lana, egun osoa egiten dugu saltoka. Nik neuk aseguru pribatu bat kontratatuta daukat edozein bihurritu edo lesio egiten badut-edo.

Ze deritoxozu lege berriari?

Hobekuntzak baditu. Adibidez, lege berriak aurre-



erretiroa hartzeko aukera emango du, baldin eta lanbidea arriskutsua bada. Nire kasuan 65 urtera arte gimnasioan ibili behar dut? Adin muga batekin baldintzaturatua nagoela uste dut.

Ezkontza Azoka Eibar 2007

Urriaren 6an eta 7an
Non: Armeria Eskolan
(Kantoi gasolindegia-aren parean)
Orduetara:
Zapatua 6: 17:00etatik 21:00etara
Domeka 7: 11:00etatik 14:00etara /
17:00etatik 21:00etara

Profesionalen erakusketak,
dastatzeak, desfileak, zozketak...

Sarrera DOHAINIK guztientzako.

Ezkontza egunerako behar den guztia



SSANGYONG ACTYON SPORTS BERRIA

23.290 €-tik aurrera



MERCEDES-BENZ MOTORRAREKIN 200 XDI 141 Z.P.



SSANGYONG

VERTIZ MOTOR

Olaso pol. 27 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 41 10

Frantzia pas. 14 - DONOSTIA
Tel.: 943 29 22 66

Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE
Tel.: 943 46 92 99



AURKEZPENA Dorleta Mendibil, Begoña Lasagabaster eta Unai Azkarate, eguazteneko agerraldian.

A.I.

KILOMETROAK 07 > BERGARAKO ARANZADI IKASTOLAREN ALDEKO JAIA

Autobus zerbitzu bereziak jarri dituzte Kilometroetara joateko

Debagoieneko autobus zerbitzu asko egongo dira 15 minutuko maiztasunarekin

Kilometroetan jasotako dirua erabiliko dute ikastolaren instalazioak berritzeko

AINTZANE IRIZAR > BERGARA
Urriaren 7an Bergaran ospatuko duten Kilometroak 07 jaialdiko antolatzaileek, Aranzadi ikastolako arduradunek, prentsaurrekoa egin zuten eguaztenean. Ekitaldi horren helburua zen Debagoieneko biztanleei jaialdian parte hartzeko gonbidapena egitea eta jaialdiaren gaineko hainbat xehetasun ematea. Berba egin zuten Unai Azkarate Kilometroak 07 jaialdiko koordinatzaileak, Begoña Lasagabaster Aranzadi ikastolako Artezkaritza Kontsei-

luko lehendakariordeak eta Dorleta Mendibil ikastolako zuzendari pedagogikoak.

GARRAIO PUBLIKOAK ERABILTzea
Horixe eskatu nahi diete antolatzaileek Kilometroetara joango diren debagoiendarrei: garraio publikoa erabiltzea, alegia. Trafiko arazo handiak sortu izan dira horrelako jailetan, eta arazok ekidin nahi dituzte. Pesa garraio enpresarekin hitzarmena egin dute, autobus zerbitzu bereziak jartzeko, bai Debagoie-

nerako, baita Bergara eta euskal hiriburuak lotzen dituzten autobusetarako ere.

AUTOBUS ZERBITZU ZABALA
Debagoieneko herriak eta Bergara lotzen dituzten zerbitzu askok 15 minutuko maiztasuna izango du, honako hauek, hain justu: Arrasate-Bergara, Aretxabaleta-Bergara, Eskoriatza-Bergara zerbitzuek, noranzko bietan. Oñati eta Bergara lotuko dituzten autobusak egongo dira 90 minutuan behin. Elgeta eta Bergara lotuko dituen,

JAIALDIAREN HELBURUAK

Aranzadi ikastolaren helburu nagusienetako bat da Kilometroak jaialdiarekin sostengu ekonomikoa lortzea. Errege Mintegian eta Martinez Iralan kokatzen dira Aranzadiren instalazioak eta horiek berritzatzeko erabiliko dute jasotako dirua.

Helburu ekonomikoez gain, baina, beste hainbat helburu ere badituzte, hala nola ikastolen jaiari herriaren jaiari ere izatea; ikastolen mugimendua ezagutzera ematea eta, normalizazio mailan beste urrats bat emanaz, erdal hiztunak euskarara ekartzea.

GOGORATU BEHARREKOAK

Lanerako prest dauden boluntarioak behar dituzte

Azkeneko prestaketekin dihardute egunotan urriaren 7ko jaialdiari begira. Herritar ugari lan egingo du egun horretan, baina oraindik ere lanerako gertu dagoen jendea behar dute; batez ere, zirkulazioa bideratzeko, txosnetan lan egiteko eta ingurumen lantalerako behar dituzte boluntarioak.

Lanerako prest daudenean Aranzadi ikastolako idazkaritzara jo behar dute edo telefonoz deitu 943 76 90 71 zenbakira. Beste aukera bat da uazkarate@bergara.ikastola.net helbidera idaztea.

Sei zerbitzugune 6.510 metroko zirkuituan zehar

Kilometroaren zirkuituak 6.510 metro izango ditu; honakoa da ibilbidea: Ibargarai, Usondo, Matxiategi, han buelta hartu eta Alkabieta parean bidegorria hartuta, tunela zeharkatu eta Agarreko garairaino; handik behera, Candy enpresa ondok, Labegaraietara jarraitu eta Ozaetatik, San Antoniotik eta Espoilitik, berriro Ibargarairaino. Sei zerbitzugune daude ibilbidean zehar: ikastolako, Usondokoa, Matxiategikoa, Artabilakoa, Labegaraietakoa eta Espoilitakoa.

Hogei talde eta bakarlari, doinu dantzagarriekin

Denetariko musikaz gozatzeko aukera izango da ikastolen jaiari; hori bai, musika talde eta bakarlari ia guztiek oso musika dantzagarria egiten dute: trikitia, reggaea, cumbia, runba, rocka, ska, popa eta abar. 22 talde eta bakarlari izango dira: Aitzol Mujika, Anari, Anje Duhalde, Belceblues, EH Sukarra, Emon, Esne Beltza, Fly Shit, Gose, Kauta, Mulambo, Nour, Oinutsik, Pantxoa eta Peio, Petti, Rauxa, Sagarroi, Samar, SKT Sekuentzia, Tapia & Leturia eta Jokin, Trapatoni eta Triki-zio.

'Primeran pasa pasatu gabe' ekimena

Iazko Kilometroetarako hasitako ekimenarekin jarraituko dute aurten Bergaran. Ikastolen elkarteak Askagintzarekin batera sortutako ekimena da eta helburua da kontsumo arduratsua bultzatzea eta errespetuaren kontzeptua lantzea, jendeak jarrera egokia izan dezan: errespetua ingurumenarekiko, norbere buruarekiko eta gainontzekoekiko. Urtean zehar ikastolatan landu dute gaia eta urriaren 7an karpa bat jarriko dute eta Askagintzako kideak egongo dira.

Edalontzi berrerabilgarriak txosnetan

Edalontzi guztiak izango dira berrerabilgarriak. Helburua da ahalik eta zabor gutxien sortzea. Edalontziek izango dute ikastolen elkartearen logotipoa eta *Primeran pasa pasatu gabe* leloa. Edalontzi-txartela erosi behar da euro baten truke eta edariaren txartelarekin batera erakutsi txosnan; behin erabilia, txosnan laga daiteke eta txartelarekin beste txosna baten berriro eskatu. Egunaren bukaeran, edalontzia antolatzaileei laga eta euroa itzuliko digute.

DATUA

2.000

LAGUN URRIAREN 7AN LANEAN

Kilometroak jaiaren egunean 2.000 lagunek jardungo dute lanean: zirkuituan, txosnetan, zirkulazioa bideratzen. Herritarrik ikastolen alde lan egiteko gogoz dauden seinale.

ESALDIA

"Debagoiendar eta euskaldun guztiak gonbidatu nahi ditugu Bergaran ospatuko dugun ikastolen aldeko jaiari parte hartzera"

Dorleta Mendibil > Aranzadi

bi ordutik behin. Eta, azkenik, Antzuola eta Bergara arteko autobusak egongo dira, gutxi gorabehera, ordubete behin.

Autobusen ordutegiaren gaineko zein Kilometroak 07 jaialdiaren gaineko informazio osoa topatuko duzue www.kilometroak.net webgunean. Autobusen ordutegiaren gainekoa, www.pesa.net webgunean ere bai.

Bestalde, Amilagan, san Juan auzoan, Osintxun eta Antzuolan egongo dira aparkalekuak, guztira, 9.200 ibilgailurendako. Aparkaleku horietatik autobus bereziak egongo dira erdiguneraino.

EUSKARA > LANA EUSKALDUNTZEKO KOOPERATIBA

Emun-ek hainbat ekintza antolatu ditu urrirako, X. urteurrena ospatzeko

Emun-ek agerraldia egin zuen atzo kooperatibaren ibilbidea gogoratzeko eta antolatutako jardueren berri emateko

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Emun-ek -lana euskalduntzeko kooperatiba- udazkenean hamar urte beteko dituela eta, *10 urte...11 egun hartu eta Emun* lelopean hainbat ekimen antolatu ditu datorren hilabeterako.

Horren berri emateko agerraldia eskaini zuten eguenean kooperatibako lehendakari, zuzendari eta I+G+B teknikari Ima Elexpuruk, Dani Larreak eta Olatz Olasok, hurrenez hurren.

Hasierako urteak ekarri zituzten gogora. 1997. urtean Emun sortu zela aipatu zuten, hizkuntza zerbitzuak eta lege eta ekonomia aholkularitza eskaintzeko. Hiru langilerekin bakarrik hasi zen.



PRENTSAURREKOA Emunekoek prentsaurrekoa eman zuten atzo.

GOIENKARIA

Urtebete geroago, Fagor taldearekin hitzarmena sinatu zuten. Hamaika langile zituen ordurako. 2000. urtean Debagoienetik

kanpora zabaldu zen eta hazkunderi erantzuteko lokal berria hartu eta barne egitura sendotu zuten ondoren. 42 langile zituen.

2002an lehen plan estrategikoa landu eta indarrean jarri zuen eta bi urte geroago, bigarrena iritsi zen. Hizkuntza zerbitzuak indartu eta lege eta ekonomia aholkularitzak desageretzea ekarri zuen hark. 2005ean Andoainen eta Berriozarren bulegoak zabaldu zituen.

93 LANGILE

Atzo, Emun-eko ordezkariak oso pozik azaldu ziren kooperatibak izandako bilakaerarekin. 2007. urterako aurreikuspenak 90 langile izatea zela eta hori gainditu egin dela esan zuten, 93 ditu eta. Hasieran lau bezerorekin hasi zela ere gogoratu zuten. Urte amaierarako 125 izatea espero dute. Enpresa esanguratsuak eta administrazioak daude horien artean.

Emun-ek lan esparrua euskaraz garatzeko hizkuntza zerbitzuak eskaintzen dizkie edozein motatako enpresa, administrazio nahiz bestelako erakundeei. Euskara plan integralak, euskara sustatzeko komunikazio lanak, aholkularitza berezia, euskara formazioa eta zuzenketa lanak eskaintzen ditu.

OSPAKIZUN EKITALDIAK

Ospakizun ekitaldia eta jardunaldia

Bost ekintza antolatu ditu Emun kooperatibak urteurrena ospatzeko. Urriaren 9an *Motibazioa eta hizkuntza normalizazioa* gaiaren inguruan jardunaldia izango da Oñatiko Gandiaga topagunean. Emun-ek eta Huhezik antolatu dute ekimen hori. Egun osoan zehar mahai-inguruak eta mintegiak izango dira.

Urriaren 24an ospakizun ekitaldia egingo dute Arrasateko Amaia antzokian. Hain zuzen, 17:30ean hasiko da, agurrarekin eta *Hartu eta Emun* ikus-entzunezkoarekin. Ondoren, erakunde publiko eta enpresetako ordezkariak hitz egingo dute; besteak beste, Markel Olano diputatu nagusiak. Omenaldi eta bertso antzerkirik ere ez da faltako.

Horrez gainera, Emun-en eta lan esparrua euskalduntzearen gaineko erakusketa bat antolatu, eta *Hartu eta Emun* ikus-entzunezkoa egin du Emun-ek urteurrena ospatzeko.



Likidazio osoa itxieragatik

Arropa 1 eta 15 euro bitartean salgai

%70eko beherapena oinetakoetan

Larunbatean eta igandean azken egunak

Ordutegia:

10:00etatik 20:00etara jarraian

Zatoz eta azken aukera aprobetxa ezazu

Zarugalde 14 – Arrasate • 943 79 49 72

ALDERDI EGUNA > AUTOBUS GELTOKITIK ATERAKO DA, 09:00ETAN

Forondara joateko autobus bakarra Bergararik irtengo da

Aurten ere txosna eta jantokia jarriko dute bergarrek eta tostoi eta erreilenoak jango dira

Datorren urtetik aurrera, Debagoieneko txosna jartzeko asmoa dago Forondako zelaian

M.B. > BERGARA

Alderdi Eguna domekan ospatuko da Forondan. Ibarretik, Bergararik bakarrik irtengo da autobusa hara joateko. Autobus geltokitik abiatuko da Gasteiz aldera, 09:00etan.

Aurten ere txosna eta jantokia jarriko dute bergarrek Forondako zelaian. Mikel Lete jelki-deak azaldu duenez, 80 bat lagunek ohiko menua bazkalduko dute egun horretan jantokian. Postrean ez dira faltako tostoiak eta erreilenoak. Mila erreileno pakete inguru eta 450 eta 500 arteko tostoi eramango dituzte. Jartzea nahiago gura duenak bokatak eta pintxoak aurkituko ditu txosnan.

Zapatuan 20 lagun joango dira Forondara, txosna eta jantokiko barruko egitura muntatzera. Dena prest utziko dute hurren-

go egunerako. Domekan 09:30ean zabalduko dute txosna. Hiru txanda antolatu dituzte eta bakoitzean 13 bat lagun arituko dira.

Oñatitik eta Arrasatetik, bestalde, ez da autobus irtengo. Kontuan hartu behar da Oñatin San Migel jaiak bete-betean ospatzen ariko direla domekan. Arrasatetik autoz joateko ohitura dagoela azaldu dute.

DEBAGOIENEN TXOSNA

Arrasateko EAJtik, hala ere, gaineratu dute datorren urteko Alderdi Egunean Debagoieneko txosna jartzeko asmoa dagoela. Ibarreko talde jeltzaleko ordezkariak batzartu dira dagoeneko. Hasieran, txosna aurten jarri nahi zuten, baina ezinezkoa izan da. Alderdi Eguneko egitarauari dagokionez, ongiatorria 10:00etan



IAZKOA Giro bikaina egon zen iaz Bergarako txosnan.

GOIENKARIA

izango da eta ordu erdi geroago, meza. Agintari eta udal erakundeen desfilearen ostean, eguerdian ikurrinaren jasotzea egingo dute. Ondoren, ekitaldi poli-

tikoa iritsiko da, Juan Jose Ibarretxe eta Josu Jon Imazen eskutik. Herri kirolak eta bazkariak ez dira faltako aurtengo Alderdi Egunean.

EUSKARA

Nafarroa Oinez-erako autobusa antolatu dute

Debagunek antolatu du eta txartelak urriaren 17ra arte eros daitezke

GOIENKARIA > BERGARA

Nafarroa Oinez, Nafarroako ikastolen aldeko jaiak, ospatuko dute urriaren 21ean, Vianan. Hori horrela, hara joateko autobusa antolatu du Debagunek, Debagoieneko euskara elkarten elkargoak.

Autobusak ibarreko hainbat herritan hartuko ditu bidaiariak: Bergaran, 08:30ean, autobus geltokian; Oñatin, 08:45ean, Korreosen; Arrasaten, 09:00etan, Garibain; eta Aretxabaletan, 09:15ean, Azbe lantegiaren parean. Bueltan, 19:00etan aterako da Vianatik.


Autobuserako txartelak urriaren 17ra arte erosi ahaliko dira Jardunen, Laixanen, AEDn eta Loramendin. Prezioa da 8 euro bazkideenak eta 10 gainerakoendako.

Gazte ikastaroak



ARGAZKIGINTZA (Hastapena)

Antonio Murilloren eskutik urriaren 16tik abenduaren 18ra martitzenetan, 18:30 - 20:30 Kultur Aten



MAGIA

Xixka Elkartearen eskutik urriaren 18tik azaroaren 29ra eguinetan, 19:30-20:30 Kultur Aten



DANTZA AFRIKARRAK

urriaren 15etik azaroaren 14ra astelehenetan eta eguaztenetan, 18:30 - 20:30 Kultur Aten



EUSKAL DANTZAK

Lore Gazteak-en eskutik urriaren 19tik abenduaren 14ra egubakoitzetan, 19:00-20:30 Lore Gazteak-en lokalean



ALBOKA

Angel Agirianoren eskutik urriaren 20tik martxoaren 15era zapatuetan, 10:00-11:00; 11:00-12:00; 12:00-13:00 Monterronen



PERKUSIOA

Iñaki Bruñaren eskutik Urriaren 15etik abenduaren 17ra Astelehenetan hastapena (18:00-19:30) sakontze (19:30-21:00) Gazteluondo Ikastolan

Matrikula: 20 euro /12 euro ikasle edo langabeentzat

izen emateak: Gazte Bulegoan (943-770065)

www.gaztebulegoa.com



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazteria saila ■

HEZKUNTZA > BERGARAKO UNED IKASTETXEAREN ESKAINTZA

UNEDek ikasturte berria aurkeztu du

2007-2008 ikasturterako 34 unibertsitate ikasketa eta eskaintza akademiko zabala aurkeztu du oraingo asteen Bergarako UNEDek

AINZANE IRIZAR > BERGARA

Astelehenean aurkeztu zuen Bergarako UNED ikastetxeak ikasturte berrirako eskaintza. 34 unibertsitate ikasketa egiteko aukera ematen du ikastetxe horrek. Aurtengo berritasun nagusia da Enpresa-Zientzien Diplomatura osorik egiteko aukera egongo dela. Iazko ikasturtean hasi ziren ikasketa horiekin eta harrera oso ona izan zuten.

Unibertsitate ikasketez gain, eskaintza akademiko zabala eskaintzen du UNEDek, profesionalak formatzeko, birziklatzeko

eta eguneratzeko; besteak beste, Psikomotrizitate Eskola, Idazle Eskola, Praktika Juridiko Ikastaroa, Justizia Administrazioako Langileentzat Formazioa, Idazle Eskola, Liburutegi Laguntzaile Eskola eta Udako Ikastaroak dituzte.

FORMAZIO TELEMATIKOA

UNEDen hezkuntza ereduak eskoletara joateko ordutegi finko baten konpromisorik hartu ezin duten ikasleei aukera ematen die ikasketak egiteko. Bate-tik, tokiko eskolak eskaintzen

dituzte; eskola horiek emateko eta tutoretzetarako 60 tutore baino gehiago daude. Bergarako ikastetxean ematen dituzten eskola eta tutoretza horiek osatzeko, formazio telematikoa eskaintzen du UNEDek; Internet bidez ikasketak jasotzeko, tutoretzak izateko, kontsultak egiteko eta bibliografiatara sartzeko aukera ematen du, besteak beste, formula horrek.

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

Bergarako San Martin Plazan, Errege Mintegian, UNEDek duen egoitzara jo behar da aurre-matrikula egiteko, 943 76 90 33 telefono zenbakira deitu edo www.uned.es/ca-bergara web orrira jo. Hori guztia azaroaren 15a baino lehen.



MATRIKULA Ikasleak hasi dira dagoeneko aurre-matrikulak egiten; irudian, UNEDen idazkaritzan hainbat ikasle.

A.I.

GARAIA POLOA > APTE ELKARTEAREN NAZIOARTEKO VI. JARDUNALDIAK

Puntako ikerlariak batuko dira urrian Garaia Poloan

Urriaren 17an eta 18an egingo du APTEk nazioarteko topaketa

Besteak beste, berrikuntza kontzeptuaz jardungo dute

GOIENKARIA > ARRASATE

Garaia Poloak APTE elkartearen -Espainiako Zientzia eta Teknologia-parkeen elkarte- nazioarteko VI. jardunaldiak hartuko ditu urri bukaeran. Urriaren 17an eta 18an, hain justu ere.

Topaketa horien helburu nagusia berrikuntza, teknologia eta zientzia artean dauden hesiak apurtzea da. Lehenengo egunean, berrikuntzaren kontzeptuaz jardungo dute, gastronomia, ohiturak, kultura eta arkitekturaren ikuspuntutik. Alfons Cornella

adituak zeremonia-maisu lanak egingo ditu goizean. Harekin batera Pep Torres idazle eta musikariak, Gandiaga Topaguneko gerente Ignacio Ruiz de Alegriak eta Arantzazuko Artzain Eskolako koordinatzaile Batis Otaegik hitz egingo dute.

Bigarren egunean, enpresetako berrikuntzaz jarduteaz gain, Josu Aranberri aditua sareko ikerkuntzaz arituko da. Angel Arboniesek eta Anxo Sanchezek kooperazioaren ikuspuntutik landuko dute berrikuntza.

kontsumoa



Banketxeek kredituak eskaintzen dizkiete ikasleei.

GOIENKARIA

Ikasleen beharretarako kredituak eskaintzen dituzte banketxeek

M.B. > BERGARA

Ikasketa unibertsitarioak egitea garestia dela jakina da. Gastuei aurre egin ahal izateko, kredituak eskaintzen dituzte banketxeek. Consumer aldizkariak azaldu duenez, maileguak 3.000 eta 60.000 euro artekoak izan daitezke. Eskatzen direnen batez bestekoa, hala ere, 3.000 eta 7.000 euro artekoa dela gaineratu du.

Dirua itzultzerakoan, eskatutako kopurua hartzen dute banketxeek kontuan. Hala, kopuru txikiak eta ertainak eskatzen dituztenek urtebetean ordaintzen dute. Mailegu handiagoa eskatzen dutenek bost urte izango dituzte gehienez itzultzeko. Formazio akademikoak eragiten dituen gastuak ordaintzeko balio dute kredituek. Alegia, matrikula, liburuak eta lekualdaketarako, besteak beste.

Unibertsitate kreditu horiek ezaugarri komunak dituzte, hala nola bestelakoak baino interes txikiagoak izatea eta komisiorik ordaindu behar ez izatea.



Glutenik gabeko jatetxeak jasotzen dituen gida kalean

Zeliakoek arazo larriak izaten dituzte etxetik kanpo jateko. Horren aurrean, Euskadiko Zeliakoen Elkarteak gida bat argitaratu berri du, eta glutenik gabeko jakiak prestatzen dituzten jatetxeak azaltzen dira bertan.

32 jatetxe agertzen dira gida horretan. Horietatik, erdia Bizkaian daude. Bederatzi gipuzkoarrak dira eta gainontzeko zotziak arabarrak. Glutenik gabeko menuak prestatzen dira jate-txe horietan. Horri esker, zeliakoek kanpoan jan ahal izango dute.



Plantxa zerbitzuek denbora aurreztu bai, baina garestiak dira

Arropa plantxatzea ez da askoren gustukoa. Horretaz jabetu eta zerbitzu hori eskaintzen duten enpresak sortu dira. Tindategiez gain, soldata bat lortu gura duten etxeoandreek ere eskaintzen dute zerbitzu hori.

Batzuk bezzeroaren etxera joaten dira eta han arropa plantxatzen dute. 15 eta 20 euro artean kobratzen dute ordu bategatik. Beste batzuek arropa hartu eta bi egunetan plantxatuta bueltatzen dute. Prezioa arropa mota eta kopuruaren arabera izango da.

gure artekoak

SEAT ALTEA XL > Azkeneko teknologiak, espazioa, segurtasuna eta kalitatezko ekipamendua azpimarratu dizkigu Tomas Muñozek Seat Altea XL automobilaren gainean.

Tomas Muñoz > Udalaitz kontzesionarioiko salmenta arduraduna

"Harritzeko modukoa da maletategiaren edukiera"

AINZANE IRIZAR > ARRASATE

Bere mailako automobilen artean handienetarikoa da Altea XL. "Harritzeko modukoa da maletategiaren edukiera eta hainbat aukera eskaintzen ditu, gainera: atzeko eserlekuak hainbat posizioan jar daitezke, eraman beharreko bidaiarien eta kargaren arabera; eserleku bat, bi edo hirurak mugitzeko aukera dago", azaldu du Tomas Muñozek, Udalaitz kontzesionarioiko salmenta arduradunak.

SEGURTASUNA

Segurtasun sistemai dagokienez, azkeneko teknologiekin diseinaturik dago. Hona hemen horren adibide batzuk: Argiztapen Adaptagarriaren Sistema (AFS), bihur-guneetan bolantearen norabidea jarraitzen dute argiek; Egonkortasuna Kontrolatzeko Sistema (ESP); Trakzioa Kontrolatzeko Sistema (TCS); ABS balaztak eta Emergentzietan Balaztatzeko Laguntzailea.

EKIPAMENDUA

"Imagina dezakezun guztia eskaintzen dizu Altea XL automobilak; ekipamendu osoa eskaintzen dizu", dio Muñozek: "Serietik ekartzen du aire girotua, irratia-CD-MP3a, AUX-in eta USB konexioak eta sei bozgorailu, bes-



Tomas Muñoz, Udalaitz kontzesionarioan, Altea XL automobilarekin.

A.I.

Altea XL 2.0 TDI 140 ZP Stylance

Prezioa	24.529 euro
Luzera	4,46 metro
Zabalera	1,76 metro
Maletategia	1.604 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	5,9 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	201 km/h ⁽³⁾
Otik 100era	10 seg.
CO2 isurketak	157 g/km

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

teak beste. Stylance eta Sport-Up ekipamendua duten automobilerik, bestalde, dituzte zortzi bozgorailu, Climatronic sistema, bolantean aginteak eta euri-sentsorea, besteak beste", azaldu du Tomas Muñozek.

MOTORRAK

Diesel motorrei dagokienez, TDI motorrek indarra eta energia eskaintzen dute. Gainera, martxak aldatzeko sistema automatikoa ere aukeran dago. Gasolinazko automobilerik dagokienez, TFSI teknologia eskaintzen du Altea XL automobilak.

etxeke leihotik



Goiatz Arana > GOITBko erredaktore-burua

Bergarakoaren galdera Zinemaldian

Aurtengo Donostiako Zinemaldian GOIENKARIAK ere izan du bere protagonismo puntua. Martxelo Otamendi *Berria*-ko zuzendariak aipatu du iritzia artikulatu baten, zer eta azken urteetan inork ez bezalako ikusmina piztu duen Richard Gereri buruz idazterakoan. Bada zerbait.

Aktore ezagunak emandako prentsaurrekoan gure lankide Edu Mendibil aretoan bildutako kazetari guztietatik ezberdindu zela dio, eta hala da: Zinemaldirako akreditatutako kazetari ia denak (denak ez esatearren) bildu ziren bertan, eta Bergaratik joandakoaren ahotik atera zen euskaraz egindako galdera bakarra. Donostian, aizu! Hala egin izanagatik sari bat eman beharko diogula idatzi du *Berria*-ko zuzendariak; ez dela hainbestetako, Edu Mendibilek, bere blogean; eta baietz nik, merezi duela. Entera daitezela han bildutakoak Euskal Herrian badugula gure hizkuntza propioa, euskara, eta entzun dezala apur bat Richard Gere berak ere, hark berdintsu ulertuko du-eta gaztelaraz edo euskaraz galdetuta ere. Ze demontre galdetu zion ez digu esan nahi gure lankideak, baina berdin dio. Horixe izan da gutxienezkoa, Edu!

"Jakín dezatela Euskal Herrian badugula gure hizkuntza propioa"

> **Hunkitu** egin ninduten, Zinemaldiaren aurkezpen-galan, Viggo Mortensen aktoreak euskaraz esandako hitzak: "Gabon. Ongi etorri, Zinemaldira". Zuretzako ere saria, Mortensen!

> **Donostian** nintzen ni ere zapatuan eta bazebilen, bai, atzeritar franko. Dendetatik irteterakoan, ozen eta harro esaten zuen "aguuru" nire ahizpak, haiek ere entzuteko moduan.

begi-bistan



Kilometroak prestatzen (Bergara) 2007/09/27

Argazkia: Eneko Azkarate.
Testua: Ainzane Irizar.

Artabilako zerbitzugunean dagoeneko jarri dute agertokia. Gainera, harria eta harea bota dute, lurra lautzeko. Gogora ezazue urriaren 7an ospatuko dutela Kilometroak jaia.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak




Xabier Zumalde
ASMATZAILEA

Asmatzaile Espainiarren Klubak abuztuko asmakizun onenaren saria eman dio Xabier Zumalde oñatiarrari. Mugikortasun arazoak dituztenen dako, bainuontzira sartzeko eta irteteko aparailu bat diseinatu du. ETA-ko buruzagi izan zen Zumalde.



Iban Del Campo
ZINEMA ZUZENDARIA

Lo bakarrik bere fikziozko lehen film laburra zuzendu du Iban Del Campo arrasatearrak eta azkeneko ukituak ematen dabilta orain. Harkaitz Cano idazlearekin batera idatzi du gidoia. Oraindik ez dute datarik zehaztu, baina urrian aurkeztuko dute.



J.Ramon Garai
IDAZLEA

Celestino Uriarte. Klandestinitatea eta erresistentzia komunista Juan Ramon Garairen liburua gaztelarara itzultzeko 3.000 euroko laguntza emango du Arrasateko Udalak. Txalaparta argitaletxearekin iazko azaroan eman zuen argitara liburua eta dagoeneko 600 ale saldu dituzte.

Nagusilan elkarteak aurkeztuko dute Bergaran urriaren 4an. Lara Santamaria psikologo eta terapeutak boluntario izatearen gainean egingo du berba: zein izan daitekeen boluntario, zein onura dakartzan borondatezko lanak... Urriaren 15etik 19ra bitartean, gainera, borondatezko lanaren gaineko oinarrizko ikastaroa egingo dute Bergaran, Lahar taldeak antolatuta.

Lara Santamaria > Psikologoa eta Mizpirualde egoitzako terapeuta

"Boluntarioen lana behar-beharrezkoa da adinekoei eskainitako arreta hobetzeko"

MIRARI ALTUBE > BERGARA

Oso garrantzitsua da lanean jarraitzea erretiroa hartu ostean. Lanean egoteak bizitzeko gogoak dakar, Bergarako Mizpirualde egoitzako terapeuta esanetan, eta bizitzaren ikuspegi positiboak bizi iraupena luza dezake. Lanean jarraitzeko aukera bat borondatezko lana da eta, gainera, guztien dako dakartza onurak, ematen zein hartzen dituenarendako.

Estatistikek diote gero eta adineko gehiago dagoela, baina gizarteak gertatuta dago adinekoak hartzeko?

Estatistikek diotenaren arabera, hilabetero ia milioi bat lagunak betetzen dituzte 60 urte; hortaz, gizarteak gainera dator kion errealitatea onartu besterik ez dauka. Horregatik, gizarteak gehiago baloratu beharko lituzkeela adinekoak uste dut, eta, ondorioz, merezi duten tokia eta garrantzia eman.

Edertasuna, gaztetasuna, indarra eta antzeko balioak dituen gizarte adinekoek zer egin dezakete?

Lehenengo eta behin, nagusien gainean dauden estereotipoak baztertu behar ditugu: ez dutela ezertarako balio, ezin dutela bizitzak eskaintzen duena aprobetxatu eta antzeko usteak. Garrantzitsua da estereotipo horiek alboratu eta gizarteak eskaintzen dituen ekintzetan parte hartzea.

Erretiratu berri diren askori euren egoera onartzea kostatu egiten zaie. Zela bideratu lanerako gogo hori?

Erretiroa askapen moduan ikusi behar dugu eta geure zaletasunak garatzeko denbora luzeagoa dugun etapa dela jakin. Garrantzitsua da ekintza berriak egiteko gogoak izatea da. Eta denbora libre hori betetzeko aukera bat borondatezko lanean jardutea da.

Adinekoek depresiorako eta tristurarako joera handiagoa dutela esaten da. Zer egin halakorik ez izateko?

Benetan garrantzitsua da lagunekin egotea, lagunekin izandako harremanik ez galtzea eta depresiorik ez izateko lanean jarraitzea, aktibitatearen bat edo beste egitea. Adimena lanean mantentzen duen adinekoak gauza berriak ikasteko ahalegina egiten du, egunean egoteko



Lara Santamaria psikologo eta terapeuta Bergarako Mizpirualde egoitzan.

GOIENKARIA

ahalegina, eta zahartzaro gozagoa dauka. Horregatik, borondatezko lanean jarduteak uneoro lanean egotea dakar.

Adinekoen bizitzeko gogoak, positibo izateak, bizi iraupena luza dezake?

Baietz uste dut. Benetan garrantzitsua da bizitzeko gogoak izatea, egunero bizi dugunarekin gozatzea eta, batez ere, bizitzaren ikuspegi positiboa izatea. Umore ona indar-berritzailea da, suspertzailea, barre egiten dugunean ez garelako min ematen digun horrekin gogoratzen, eta seguru asko bizi iraupena luzatuko du.

Zeintzuk dira adinekoen beharrik nagusienak?

Adineko bakoitzak behar batzuk ditu. Behar instrumentalak aipa genitzake, hau da, eguneroko bizitzarako behar duen laguntza: garbitasunerako, elikatzeko, mugitzeko... Eta bestetik, emozioari dagozkion behar

ERRETIROA

"Askapen moduan hartu behar da, zaletasunak garatzeko denbora luzeagoa dugun etapa"

ZAHARTZAROA

"Adimena lanean mantendu eta egunean dagoen adinekoak zahartzaro gozagoa izango du"

BOLUNTARIOA

"Pertsona boluntarioa da eta beharrenda dauden guztiei laguntzeko beti gertu dagoena"

rrak daude: maitasuna, arreta, laguntasuna... Boluntarioak bigarren taldeko behar horietaz arduratuko lirateke.

Zer da boluntario izatea?

Boluntarioaren helburua da zerbaiten beharrenda dagoenari laguntzea, pertsona, talde edo gizarte izan. Pertsona solidarioa da boluntarioa, eta beharrenda dauden guztiei laguntzeko gertu dagoena.

Zein ekintza edo aktibitate egin ditzake boluntario den nagusi batek?

Lan asko egiten dituzte. Etxetan zein egoitzetan bizi diren nagusien alboan egoten dira: paseatu, berriketan egin, medikuarengana lagundu, bankuko gestioak eta antzeko lantxoak egiten lagundu... Egoitzetan animatzaile lanak egiten dituzte: berbaldi eta ikastaroak antolatu, jaialdiak egin, bingoan jardun... Eta bidaiak eta irteeretan ere laguntza ematen dute.

Zein onura dakartza boluntario izateak?

Nik uste dut asko direla onurak, eta boluntario bakoitzak baloratu behar du norberari zein onura dakarkion. Hala ere, beharrenda dagoen bati edo ezintasunak dituen bati laguntzen zabiltzala jakiteak zeure buruarekin gusturago sentiarazten zaitu eta uste dut nahikoa arrazoi dela borondatezko lanean jarraitzeko. Onura, zalantza barik, biendako da, hau da, laguntza jasotzen duenarendako eta ematen duenarendako.

Gizarteak zer ikas dezake boluntarioek egiten duten lanarekin?

Uste dut oso garrantzitsua dela boluntarioek egiten duten lanaren berri zabaltzea, behar-beharrezkoa delako lan hori gaurko gizarteak. Aditu eta profesionalekin batera lanean jarraitu behar dute adinekoei eskaintzen zaien arreta eta zerbitzuak hobetzeko.



zabalik

Jose Ramon Elortza

Gizarte berri baten bila

S ortu berria den Arizmendiarietaren Lagunak elkartearen helburuak dira, besteak beste, On Jose Mariaren pentsamendua zabaltzea eta berak igorritako balioak gureganatu eta gizartean txertatzea. Ez dezagun pentsa bere filosofia beste mundu batekoa denik, ez. Gizarteak behar duen filosofia da. Bere balioak lorgarriak dira guztiz.

Gizarte solidarioagoa lor dezaket balioak. Enpresan, lagunen artean, auzoan edo herrian presente izan beharko genituzkeen balioak.

Zentzugabeko gizartean bizi gara. Aberats bezala bizi, baina gero dirurik ez pertsona nagusiak hobeto zaintzeko edota gaur egun behar diren beste hainbat zerbitzu izateko.

Ekologistak garelako esan eta automobila gehiegi erabili. Esku-bideak exijitu eta gure betebeharrekin ahaztu. Kontsumismoan murgildurik bizi gara.

Balio haiek faltan botatzen ditugu: errespetua, laguntza, solidaritatea, adiskidetasuna, partehartzea, harremanak izatea, lan-kidetzak, tolerantzia, sentsibilitatea, konpromisoa... Baina, honako hauek dira ditugun jarre-
rak: kontsumismoa, elkartasun eza, norberekeria, individualismoa eta abar.

Sarritan galdetu digute ea noiz arte iraungo duten gure kooperatibek. Galderak askoz orokorrakoak eta garrantzitsuagoak dira. Nolako gizartea ari gara eraikitzen? Non bukatuko dugu? Zer transmititzen dugu? Zer erreferentzia ditu gure atzetik datoreen belaunaldi gazteak?

Horixe da elkarteak duen lana: gizartearen egoera aztertu eta, etorkizunari begira, balioak berreskuratu eta txertatu. Ez da lan makala. Geroan beste gizarte berri bat izan dezagun, denon partehartzea beharko da: unibertsitatea eta ikastolak, familiak, giza mugimenduak, alderdi politikoak, udalak...

"Ez dezagun pentsa Arizmendiarietaren filosofia beste mundu batekoa denik"

"Gizarteak behar duen filosofia da; haren balioak lorgarriak dira guztiz"

Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailtetako arduradunak** Edu Mendibil (Herriak), Aitziber Aranburuzabala (G2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Aintzane Irizar, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Berruso **Oinarritako diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Marilu Unamuno.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekarria

LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jaurilariak



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

herritarrak galdezka

BERGARAKO KIROL
EKINTZETAN ZERRENDA
PASATUKO DUTE

Irakurle batek kalean entzundakoa ziurtatu nahi du: "Entzun dut Agorrosingo kirol ekintzetan monitorea zerranda pasatzen hasi behar dutela eta huts asko egiten dituzten erabiltzaileak ikastarotik kanpo geratuko direla. Hori horrela da?", galdetu du.

Bada, erantzunaren bila Unai Azurmendi Kirol teknikariarengana jo dugu. Haren esanetan, irakurlea zuzen dago: "Urritik aurrera zerranda pasatzen hasiko dira monitorea ikastaro guztietan", azaldu du Azurmendik, "eta hileko, justifikatu gabeko lau huts edo gehiago egiten duena geratuko da ikastarotik kanpo".

Erabaki hori hartzeko arrazoiak ere azaldu du Azurmendik: "Batetik, itxaron zerranda luzeak daude. Spinning eta aerodandeko ikastaroetan, esaterako, 30 bat laguneko itxaron zerrandak daude. Eta, bestetik, badira erabiltzaileak klasera joan ez eta plaza okupatzen ari direnak. Izan ere, ikastaroen prezioa 6 bat euro da -bazkidetzaz aparte-, eta ez

denez batere garestia, bada, jendeak hileroko ordaintzen jarraitzen du plaza okupatuta izateko, baina klasera joan barik.

Horrez aparte, Agorrosingo igerilekuen gaineko beste galdera bat ere jaso dugu asteon. Irakurleak jakin nahi du noiz irekiko duten bainuetxea -hiru aste darama itxita hainbat lan direla eta-.

Galdera horri ere Unai Azurmendik erantzun dio. Haren esa-

netan, "seguruenik astelehenean, urriaren lehen irekiko dugu". Azurmendik gehitu duenez, lan ia guztiak egin dituzte, baina "badira bi gauza nahi baino gehiago atzeratzen ari direnak, horietako bat sauna hotzaren makineria". Horren harira, litekeena da nahiz eta bainuetxea astelehenean ireki, sauna hotza ezin erabili izatea.

NAFARROA OINEZ-ERA JOATEKO AUTOBUSAK Bergarako irakurle batek jakin nahi du ea Nafarroa Oinez-era joteko autobusik antolatzen duen Jardun elkarteak.

Jardun elkartearen azaldu dutenez, Debagunek -Debagoineneko euskara elkartearen elkargoa- antolatzen du urriaren 21ean Vianan egingo duten Nafarroa Oinez-erako autobusa. Bergara, Oñati, Arrasate eta Aretxabaletatik pasatuko da. Vianatik bueltatu, berriz, 19:00etan egingo da.

Txartelak urriaren 17ra arte eskura daitezke Jardunen, Laxanen, AEDn eta Loramendin. Prezioa dira 8 euro bazkideendako eta 10 gainerakoendako.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

marrakiz

Alex Ugalde



Hilleta eredu politta

Iban Arantzabal

www.goiena.net/blogak/arantzabal

Izan leike hilleta bat politta? Ez, horrenbeste ez, baiña gizur-ospakizun bat be ez da izan. Zapatuan trink egin neban hillek egitteko modu egoki batekin. Topau doten egokixena bai, behintzat. Begiz jota neukazen Eibarren egiten diran hilleta zibillak be... Ondiokan Jainkua eta Lege Zaharrak pisua daken honetan inbidixaz begiratu izan dot

Eibarren oso zabalduta eta onartuta dagon hilleta zibillaren kultura.

Berak idatzitako despedida karta bat, bere argazkixekin egindako ordu laurdeneko bideua kantu aukeraketa on batekin, lagun bik botatuko bertso paria, beste lagun batek biren testu politta, gazte denborako anekdota bat... Gura zebanak mikrofonua hartu eta han genden 150 lagun inguruan aurrian gura zebana esaten zeban. 40 minutuan amaituta. Lagunen artekoa, hunkigarria, apala eta zintzua.

Luntxaren aurretik baso-

ardaua jaso eta bere alde egin giñuan topa.

Gehixago ez da bihar.

Con los aitas, del baserri al sagardotegi

Juan Luis Zabala

www.berria.info/blogak/zabala

Visita a menudo a los aitas en su baserri natal, y en esas ocasiones le gusta llevarlos a cenar a algun sagardotegi. Ez da hitzez hitzeko

plazara

Gripearen kontrako txertoaren kanpaina abiarazi dute asteon. Eugenio Iturriotz medikuak txertoa hartzearen garrantzia azpima-

rratzen du eta gogora ekarri du komeni zaiela txertoa hartzea 65 urtetik gorako pertsoneri eta diabetesa eta bihotz, birika nahiz gil-

tzurruneke gaitza dutenei. Debagoienean arduratsu jokatzeko dugu. 65 urtetik gorako kasuan, esaterako, %70ek hartzen dute.

Eugenio Iturriotz *

Gripeari aurre egiteko, hartu txertoa

Gripen urteroko bisitaria dugu eta medikuok ematen dugun aholkua hau da: gripearen kontrako txertoa edo bakuna hartzea. Eta hori zergatik? Gripearen prebentziarako ezagutzen dugun modu egokiena delako. Gripearen kontrakoak bezala saltzen diren botikek molestia arindu bai, baina griperik ez dute sendatzen.

Neurri prebentibo bakarria txertoa da, udazkenaren hasieran jarri behar dena. Hala, gripearen erasorik latzenak hasten direnean, gorputzak ordurako sortuta izango ditu gripearen kontrako defentsak; hau da, antigorputzak. Txertoak ematen duen babesak sei bat hilabete irauten duela pentsatzen da.

Gripearen birusak urtero aldatzen du bere konposaketa eta horregatik txertoa eraginkorra izateko urtero errebisatu edo berri behar da. Eginkizun hori OMEk (Osasunerako Munduko Erakundea) betetzen du.

KANPAINAK, ZERTARAKO?

Gripen erraz kutsatzen den gaixotasuna delako. Gainera, eritasun oso infektiosoa denez, endemia moduan agertzen da. Lantegi, ikastola edo familia batean bata besteari atzetik harrapatzen dute gripea. Bat-batekoa izaten da hasiera eta sintomak hainbat dira: hotzikarak, kalentura, giharreko mina, gorputz makala... Katarroaren kasuan baino gogorragoak izaten dira sintomak. Gripeak astindu gogorra ematen du.

Txertoaren eraginari buruzko datuak ez dira guztiz fidaga-



MIKEL ARROIABE

rriak; izan ere, gripearen antzekoak diren gaixotasun asko dira. Askotan entzuten dugu norbaitek urtean gripe bat baino gehiago jasan dituela. Bada, oker dabil hori dioena, rinitis, katarro eta antzekoen zentzuak antzeko samarrak direlako. Baina ohikoa izaten da urtean gripe bat bakarrik pairatzea.

Ameriketako Estatu Batuetan egin dituzten ikerketen arabera, txertaketaren ondorioz, %80 gutxitu da gripea pertsona osasuntsuengan, %50 ospitalizazio tasa eta %80 hilkortasun tasa adineko pertsonengan.

Esan behar da, baita ere, txertoa hartzen dutenek gripearen kontrako babes handia

"Txertoa da gripearen prebentziarako ezagutzen den modu egokiena"

"Gripearen birusak urtero aldatzen du konposaketa; horregatik, txertoa eraginkorra izateko, urtero errebisatu behar da"

dutela eta gaixotasun hori hartzen baldin badute ere, arinago hartuko dutela.

NORI GOMENDATZEN DIOTE?

Gripeak sasoi onean dagoen pertsonari ez dio apenas kalterik egiten. Adinean aurrera doazenei edo aurrez gaixotasunen bat dutenei, ordea, txertoak babes egokia eskainiko die, urteroko bisitari gogaikarri horri atea itxiz.

Hartaileari dagokionez, bi multzo handi bereiztu behar gaude: 65 urtetik gorako herritar guztiei hartzea gomendatzen zaie, adina tarteko dela. Horrez gain, adin horretatik beherakoak izan arren, diabetesa, bihotzeko gaixotasunak, birika nahiz giltzurrunekoak, eta gaixotasun kronikoren bat dutenek ere hartu beharko lukete txertoa. Horiei ere gomendatzen zaie.

Bestetik, osasun zerbitzuetan diharduten langileei ere jarri ohi zaie gripearen kontrako txertoa, arrisku handiko taldean dihardutelako.

Txertaketaren kanpaina hilaren 24an hasi zen eta urriaren 31ra arte iraungo du. Debagoienera dagokionez, arrakasta handia izaten du: 65 urtetik gorako %70 inguruk hartzen dute eta gehien hartzen dutenak emakumezkoak dira. Ea gizonezkoak animatzen diren!

Bukatzeke honakoa, aholku gisa: hartu txertoa, on egingo dizu eta.

*Eugenio Iturriotz, medikua

zer deritzozu?

www.goiena.net

Ondo deritzozu gripearen txertoari?

BAI	%75
EZ	%25

> ONDO DERITZOT

Prebentziarako balio duen guztiarekin nago ados. Gainera adineko pertsoneri zuzenduta dago, batez ere, eta hori oso ondo iruditzen zait.

Ainara

> PREBENTZIOA

Gripeak sasoi onean dagoen pertsonari kalte handirik eragiten ez dion moduan, nagusiei dirudiena baino min handiagoa egiten die. Hori prebenitzeko balio baldin badu, ni erabat konforme nago.

Maite

> BEHARREZKOA DA?

Ez dakit txerto hori hartzea erabat beharrezkoa den ala ez. Bizitzan zehar beste hainbat ere hartzen ditugu eta ez dut uste beharrezkoak direnik. Gaixotzen bagara, gorputzak badaki nola erantzun.

Aitor

> BAI

Gaixotasunen kontrako guztiari deritzot ondo.

Rakel

DATORREN ASTEKOA: Anorexiaren kontrako kanpainari zer deritzozu?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

aipua, baina ez zaizue guztiz arrotza ere egingo doinu hori. Antza denez, gisa horretako gaztelania oso gustuko dute idazle eta kazetari batzuek, gaztelaniatzako prentsa abertzalean batez ere. Ni, berriz, neure onetik atera arte amorrarazten nau. Psikoanalistarengana joan behar al dut?

Hamaika galdera Richard Gereri

Edu Mendibil
www.goiena.net/blogak/edu

Martxelo Otamendik sari baterako proposatu nau *Berria*-n. Ez dut uste hainbesterako denik, gizon... Meritu bakarria, zera: Richard Gere aktoreari domekan, Kursoaleko prentsaurrekoan, euskaraz egin zioten galdera bakarria neuk egitea. Hainbat lagunek galdetu didate ea zer demontre galdetu nion Gereri... Glamourraren tiroia izango ote! Galdera hantxe geratu zen. Horra hor Richard Gereri bota ez nizkion beste hamaika galdera. Taxuzkoak diren ala ez zuek erabaki...

Gere jauna, ispiluak zer esaten dizu ba goizetan?

Budismoak eta zure begiradaren argitasunak zerikusirik daukate? Dalai Lamak zuek zuek dauzka? Cindyrekin gertatutakoaren ostean, bikote perfektua ezinezkoa al da?

Zure ingurukoentzat, non datza zure barruko edertasuna? Etxean, egunero, galai-papera jokatzeko nekagarria da?

Desioak sufrimendua dakarrela zioen Budak. Konturatzeko zara zenbaterainoko sufrimendua eragiten duzun?

Ziur naiz gure amak zureak baino gehiagotan ikusi duela *Pretty woman*. Apustu egingo dugu? (...)

Thank you, Mr. Gere. Eskerrik asko, Martxelo.

koplak

Irati Agirreazaldeg

Arrasate, bertsoaren ate

Gakoa da Gpuntu bertsoa da asuntua Gipuzkoako Txapelkeren lehen abiapuntua.

Oholtza gaina aldare bertsoz bertso parez pare ikuskizuna orekatua orekarik galdu gabe.

Entzulea da begiko berria edo betiko norentzat jardun ez baldin balitz isilik egon ta kitto.

Handitik zuzen txikira unkitzea komeni da sarritan bertsoan egiten baita sentipenenneurrira.

Abian da txapelketa martxan dago bertso festa Donostiako finalera arte atsedendaldirik ezta.

Hitzordua prest daukate hurrengo Arrasate domeka hontan bertso doinuek jantzi baietz Kulturate.

Kilometroak, ikastola, eskola...

Arantza Manterola

(Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen lehendakaria)
Donostia

Urriaren lehenengo igandea urtean barrena euskaltzaleok azpimarratuta dugun igande horietako bat da: Herri Urrats, Ibilaldia, Araba Euskaraz pasa ondoren eta Nafarroa Oinez-en aurretik, Kilometroak ditugu: Gipuzkoako ikastolen jaia. Aurten Debarroan den Bergarako Aranzadi ikastolari suertatu zaio jai erraldoi hori antolatzea. Aukera paregabea Gipuzkoaren geografia ezagutzeko eta, kasu honetan, historian zehar hain garrantzitsu izan den Bergarako herria. Eta, aukera paregabea baita, Aranzadi ikastolak prestatu dituen ekintza anitzez gogatzeko ere.

Horrez gain, Kilometroak —eta ikastolon jai guztiak— ikastoletatik Euskal Herri osoarentzat eskaintzen dugun kalitatezko hezkuntza eredu ezagutu, indartu eta laguntzeko aukera paregabea ere bada. Ikastolen hezkuntza eredu euskalduna, nazionala, anitza, aurrerakoa eta berritzailea erreferente izan da eta da gaur egun ere Euskal Herrian eta Euskal Herrikan. Ikastolak aitzindari gara apustu askori aurre egitean; eta, bide beretik jarrai dezan, ikastolak denon beharra du. Herri ekimenetik sortutako ikastolak ezin gara bizi administrazioak ematen duenetik bakarrik: ezinbestekoa dugu herritarren laguntza. Proiektuari babesa emateko eta hain beharrezkoa dugun dirua lortzeko antolatzen ditugu Kilometroak, ikastolak lanerakoan dakigun modu bakarrean: alaitasunez, festa giroan, elkarlanean, eta errespetuan.

Aranzadi ikastola burubelari aritu da urte luze honetan Kilometroak baldintza horietan antolatzen. Baina zorritzarekin, Aranzadi ikastola, Kilometroak jaiatz gain, protagonista egin da azkenaldian eskola publikoaren eskaera bat dela medio. Komunikabideek nahikoa hedatu duten gaiaren mamia hau da: eskola publikoak,

Rosario Arregi hil da

Aitor Iturriaga > Arrasate

Rosario joan zaigu, anonimotasunean, bizi izan zen bezala. Bere senideak lagun, igandean hil zen. Askotan esaten da gizon handi baten atzetik beti dagoela emakume handi bat. Kasu honetan ere horrela izan da. Halere, bere heriotzak ez du oihartzun handirik izan.

Jose Mari Lasagabaster *Bentxes* arrasatearraren alarguna zen. Jose Mari ezaguna genuen gure herriko argazkigintzan eta sindikalismoan burutu zuen lanagatik frankismoaren urte beltzetan. Hainbat aldiz atxilotu eta torturatua (gaur egun espainiar justiziak "terrorismoaren biktimatzat" onartu duen Melitón Manzanasen atzapar kriminaletatik ere pasatu zen), atzerrian ere bederatzi urte pasatu behar izan zituen eta amnistiarekin herrira itzuli zen. Gaixotasun luze baten ondoren Arrasaten hil zen.

Rosario bere ondoan egon zen beti, umil, goxo, orduko garai terribreak konpartituz. Bere laguntasuna ezinbestekoa suertatu zitzaion Jose Mariri.

Rosariorekin hitz egitea gozamenaren zen. Bere hitzekin bere goxotasuna transmititzen zuen, inorenganako gorroto edo amorrurik erakutsi gabe eta beti eskuzabal. Benetako heroi anonimo bat bezala.

Guzti horrengatik, Rosario, zuri ere, agur eta ohore.

bidezkoa izan daitekeen espazio fisiko baten behararen aurrean ikusten duen irtenbide bakarra hau da: Aranzadi ikastolak erabiltzen dituen eraikinak uztea, alegia, ikastolari inolako ordeko alternatibarik eman gabe eta, bide batez, jada zokoratuak zeuden publikazioaren mamuak harrotu. Ikastolak, esan bezala, herri ekimenetik sortutako erakundeak gara. Sorreratik herriaren zerbitzura egon gara eta gaur egun ere hala jarraitzen dugu. Gure antolamendua erabat gardena da, Bergarako Aranzadiren kasuan bezala. Irabazi asmorik gabeko elkarteak gara, herri onurako izendapenak ere baditugu eta ditu Bergarako Aranzadi ikastolak ere. Administrazioaren jabetzako edota haren menpe diren erakundeek bakarrik ez dute zerbitzu publiko eskaintzen. Ikastolak horren adibide esanguratsuenetakoa bat gara. Gainera, Hezkuntza Sailarekin hitzarmenak ditugu sinatuta eta gure ikasleek beste edozein zentro publiko edo kontzertutan dabilzan ikasleek adina betebeharrak dituzte baldintza egokietan eskolatutako izateko. Eta betebeharrak bezala, baita eskubideak ere!

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak aitortzen duen eskubidea da hezkuntza

eredua hautatzea (ik. 26. 3. art.), eta erabaki hori errespetuz hartu behar da. Gabeziak denok ditugu eta ezin dugu onartu eskola publikoak Aranzadiren kontura asetzea bere gabeziak. Irtenbide global bat bilatu behar da: bati erantzun eta bestea suntsituko ez duena, batzuen eta besteen gabeziak eta ezinak beteko dituen. Aranzadi ikastola horretan ari da jarrera ezin hobearrekin eta mahai baten bueltan gai honen inguruan zeresana duten guztiak biltzea eskatzen du, horrela epe motzean irtenbide bat lortzeko. Hori da Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak Bergarako San Martin eskola publikokoei ere luzatzen diegun deia: aldarrikapenak alde batera utzi, herriko giroa lasaitu eta denon interesak eta beharrak aseko dituzten erabakiak adosteko bideak jorratzea. Kilometroak dela-eta Bergara interes mediatiko duen gune bihurtuko da. Horrengatik diferentziak alde batera utzi eta eman dezagun arazoaren aurrean konponbideak jorratzen dakigun herriaren irudia.

Bukatzeke, Euskal Herriko eta Gipuzkoako euskaltzaleok, berriro gonbidatzen zaituztet urriaren 7an Bergarara hurbil zaitezten: egun eder bat pasatzeko aukera izango duzue!

Kontzertatua eta publikoa ez dira berdinak

Aitziber Etxeberria Arantzabal Bergara

Ausardia eduki behar da norberak bere buruari eginiko elkarrizketa bat herriko etxe guztietara bidaltzeko, gainera bertan egia erdiak esaten badira.

Bizitza honetan, pertsona orok edo pertsona talde orok, hartzen dituen erabakiak errespetatzeko dira. Zuek 1993an hartu zenuten ikastetxe kontzertatua izaten jarraitzeko erabakia ere oso errespetagarria da, baina bai garai hartan eta bai gaur egun ere jakingo duzue edo jakin beharko zenukete, arlo ekonomikoan ikastetxe kontzertatuen eta publikoen artean dauden ezberdintasunak; hau da, kontzertatuek jasotzen duten dirua ikasleen ratioko irakasle- en soldata izaten da, adibidez: 20 ikasleko irakasle bat behar bada, 100 ikaslerentzako 5 irakasle. Ikastetxeek irakasle horien soldata jasotzen dituzte administrazio publikotik. Eta beste arazo ekonomiko guztiak: atezaina behar dela, mantenua egiteko beste pertsona bat behar dela, eraikinean edo instalazioetan berrikuntzak egin behar direla... zuen kontu izango lirateke, zuen kontu edo zuek esaten duzuen bezala "Herri onurako irakaskuntza kooperatiba" zaretenez, kooperatiba horretako kooperatibisten kontu, ikastetxearen gestioa ere zeuena baita. Ikastetxe publikoetan, aldiz, bai irakasle- en soldatez eta baita bertan dauden behar ekonomiko guztietaz, administrazio publikoa egiten da kargu, ikastetxeetako gestioa ere administrazio publikoak egiten baitu.

Martinez Irala eraikina eta honen instalazioak administrazio publikoarenak dira; ondorioz, bertako instalazioen erabilera, ikastetxe bien beharren arabera, publikoa beti egongo da zuon aurretik, eta Bergarako Errege Mintegia orain dela gutxira arte Estatuarrena zen eta gaur egun UNEDeko patronatuarena.

Batek ezer ez daukanean ez dago ezer exijitzeko egoeran, eskaintzen zaiona onartzeko egoeran baizik. Nik ere argi

daukat herria nahasten nor dabilen. Horrelako jokabideekin jendearen laguntza jaso beharrean, bizkarra ematea lortzen ari zarete.

Debagoieneko gazte eta ez hain gazteei

Eneko Barberena eta Itsaso Mendizabal

(Txatxilipurdi eta Jardun elkarteetako kideak)
Debagoiena

Jardun eta Txatxilipurdi elkarteetatik zuzentzen gara zuengana, beste urte batez antolatzen ari garen ikastaro batez informazioa eman asmoz. Begirale ikastaroa da hori, haur eta gaztetxoan aisialdi esparruko langile edo dinamizatzaile izateko beharrezkoa dena.

Begirale izan denak badu lan horrek ematen dituen hamaika poztasunen berri. Buruhaustek ere ematen ditu noski, eta baita kasketaldiren bat ere noizbehinka, baina haur zein gazteekin lan egiteak sortzen duen alaitasunak ez du parekorik.

Gure begirale ikastaroak Eusko Jaurlaritzak homologaturiko titulua lortzeko aukera ematen du. Klase hauetan aisialdiko begiraleen esparruan sakondu daiteke, oso interesgarria delarik arlo horretan lan egin nahi duenarentzat edo gaian interesa duenarentzat. Gaitegia zabala da, aspektu ezberdin asko ikusten direlarik, eta hainbat tresna lortuko ditu hezitzaileak jardunean sortuko zaizkion egoera ezberdinei aurre egiteko.

Gure elkarteetan aisialdiaren esparrua jorratzen dugu, euskararen normalizazioa lortzeko bidean. Kalitatezko heziketa baten aldeko apustu argia egina dugu gainera, guretzako hezitzaileen formazioa ezin baztertu daitekeen arloa delarik.

Berrehun ordu teoriko dira, bi astean behin egun bat, urria erdialdetik apirilera.

Prezioa? Ez larritu horrengatik, hainbat udalek dirulaguntzak eskaintzen baitituzte ikastaro hauek egiten dituztenentzat.

Informazio gehiago behar duenak, jo beza Jardun edo Txatxilipurdira. Zuen zain egongo gara.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak



iAsteartea

iAsteazkena

iOsteguna

iOstirala

iLarunbata



Konekta zaitez kutxanet-era
eta eskura ezazu
iPod 80 GB bat egunero.

Irailaren 6tik urriaren 10era bitarte, kutxanetera eguneko lehen konexioa egiterakoan, **iPod 80 GB** eskura dezakezu.

Irabazi kutxanetekin eta jardun **kutxako** zure bulegoarekin eguneroko 24 orduz, urteko 365 egunez.

Sustapenaren oinarriak ikusteko: www.kutxa.net

kutxa**net**

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**



GRUPO RKUZ
ARETXABAETA 1950 • 2007 ARRASATE

RKUZ
ELECTRODOMESTICOS
Andramari auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA

ETXE MOBEL
ALZARIEN
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

RKUZ
COCINA INTEGRAL
Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA

RKUZ
MUEBLES
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA

Hotzak zaude etxeko altzarien prezioekin?
Har ezazu lasai!
Arkauz etxean bero-bero hartuko zaitugu.

Arkauz zure etxea da.



Argi daukagu

KMK'07 ARANZADI IKASTOLA BERGARA

ASTELEHENEKO GOIENKARIAren harpidedun bazara, *adi egon!*

Harpidedunen artean opari hauek zozketatuko ditugu:

- **10** kamiseta
- **10** poltsa
- **10** CD gordetzeko poltsa

Sariak jasotzeko pasa zaitezte honako egoitzetatik, astelehenetik eguenera 09:00 - 13:00 / 14:30 - 18:30

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Oñatikoak:

GOIENA
Nafarroa Etorbidea 2 - 10. Solairua - 5.Atea (Saiolan eraikina)
ARRASATE

Bergara, Antzuola eta Elgetakoak:

GOIENKARIA
Irizar Jauregia - Barrenkale 33
BERGARA

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:

18 euro
2007 bukaera arte.

ASTELEHENEKO GOIENKARIAren emango ditugu irabazleen izenak!

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**
Astelehenetik
aurrera hainbat
aldaketa
zirkulazioan > 19



> **BERGARA**
Orientazio
psikologiko
zerbitzua
gurasoendako > 25



> **ARETXABALETA**
San Migel jaiak:
hainbat ospakizun
domekara
bitartean, > 31



> **ANTZUOLA**
Erdigunea
trafikora itxiko
dute aste
bukaeretan > 36

HEZKUNTZA > AISIALDIA

Ibarreko ludotekak: neska-mutikoen jolaserako eta hezkuntzarako guneak

DEBAGOIENA

3 eta 12 urte bitarteko umeei zuzendutako lokalak daude hainbat herritan

ARRASATE 1988an zabaldu zuten lehenbiziko ludoteka, Seber Altube plazan

AISIALDIA

Eskolatik kanpo, lagun artean aisialdiaz gozatzea da helburua

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Jolasgunerako eta, aldi berean, haurren heziketarako guneak ditugu ibarreko ludotekak. Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan, Eskoriatzan edo Elgetan 3 eta 12 urte bitarteko umeei zuzendutako lokalak dituzte. Arrasate izan zen aitzindaria. Blanca Jauregi Udaleko Gazte Zerbitzuko teknikariaren arabera, 1988an zabaldu zuten lehenbiziko ludoteka, Seber Altube plazan. Gaur Santa Marinakoa eta Okendokoa dituzte zabalik eta hirugarrena zabalduko dute gaur bertan, Usaetxen. Jauregiaren hitzetan, "eskaera handia dago ludoteka zerbitzuekin. Euskarazko aisialdia eta proiektu hezitzaileak uztartzen ditugu eta zerbitzua arrakastatsua gertatu da orain arte". Txatxilipurdik kudeatzen du zerbitzua azken urteotan: iazko ikasturtean 175 bazkide zituzten Okendon eta beste 105 Santa Marinan. Usaetxekoa zabalteko arrazoia nagusietako bat urtean zehar auzorik auzo jardundako ludoteka ibiltarien arrakasta izan da.

NESKA-MUTIKOAK ERAKARRI

Maidar Etxaniz Aretxabaleta eta Eskoriatza udaletako gazte teknikaria da. Bietan ere harrera bikaina izan da: 140 bazkide izan zituen iaz Aretxabaletako Algara ludo-



LUDOTEKAK Aisialdian euskaraz jolasteko, gauza berriak ikasteko eta lagun berriak egiteko gune aproposak dira ludotekak.

TXATXILIPURDI

tekek eta 115 Eskoriatzako Tortolisek. Beste herrietan gertatzen den moduan, ume txikiak dira nagusi. Etxanizek hauxe dio: "Normalean umeekin erlazionatzen den espazioa da eta aurten 7 eta

12 urte arteko neska-mutikoak erakartzeko apustua egin nahi dugu. Izan ere, gaztelekuaren aurrekaria da ludoteka. Jolasari garrantzi berezia emanez, lasai ibiltzeko lekuak izatea nahi dugu".

NOBEDADEAK BERGARAN

1995a ezker lanean ari den Xipizaro ludotekak Agorrosinen eta Osintxun eskaintzen du zerbitzua. Astelehenean hasiko dute ikasturtean hainbat nobedade

izango dira: "Jolasten duten bitartean, marrazkiak, birziklapena, eskulanak eta bestelako gaiak lantzea nahi dugu", dio Ainhoa Dominguezek. Astelehenetik zapatara dago zabalik Xipizaro.

Ludoteka berria zabalduko dute gaur arratsaldean Arrasaten, Usaetxen

Santa Marinakoa eta Okendokoa ludotekekin batera, hirugarrena izango dute Arrasaten. Usaetxeko ludoteka zabalduko dute gaur, egubakoitza, 17:00etan. Datozen bi asteotan ate irekiak izango ditu eta urriaren erdialdetik aurrera Txatxilipurdiko begiraleak bertan izango dira lanean. Txikiendako (3-8 urte) 17:00etatik 18:30era izango da zabalik eta 9 eta 12 urte arteko neska-mutikoendako 18:30etik 20:00etara. Maite San Vicente haurren saileko arduradunarekin batera beste bederatzi begirale ari dira lanean Arrasaten gaur egun. Bestalde, Oñatin ludoteka berriaren aurreproiektua onartuta dago, dirua bideratuta, eta udaberri alderako zabalteza espero dute Lizaur kaleko lokala. Lurdes Idoiaga Oñatiko alkatearen hitzetan, "proiektua idazteko fasean dago, eta Lizaurreko lokalaz gain bestelako udal ekipamenduak ere zuzenduko ditugu aisialdira udaberrietik aurrera".



Egunotan matrikula epea zabalik daukate ibarreko ludoteketan.

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Egubakoitza, 28	Etxeberria	Zarugalde 42	943 77 16 30
Zapatua, 29	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Domeka, 30	Azkoaga	Iturriotz 17	943 79 79 99
Astelehena, 1	Corcuera	Aranbarri 1	943 79 22 26
Martitzena, 2	Irizar	Erguin 15	943 79 12 39
Eguaztena, 3	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Eguena, 4	Español	Araba Etorbidea 1	943 79 18 65

BERGARA

Egubakoitza, 28	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87
Zapatua, 29	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Domeka, 30	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Astelehena, 1	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Martitzena, 2	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Eguaztena, 3	Camacho	Oxirondo 4	943 76 11 74
Eguena, 4	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87

OÑATI

Egubakoitza, 28	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Zapatua, 29	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Domeka, 30	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Astelehena, 1	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Martitzena, 2	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguaztena, 3	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Eguena, 4	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58

ARETXABAETA

Egubakoitza, 28	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Zapatua, 29	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 30	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Astelehena, 1	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Martitzena, 2	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguaztena, 3	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguaztena, 4	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udalaitzaingoak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRIAOK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 71 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltzgia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67
Kiroldegia	
Aramaio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53

Udalak

Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)

08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Urbarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)

08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)

08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obreiro, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)

08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Urbarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geraletuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorenzo (Sorraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarretik irteerak

07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geraletuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubietza, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaio	Arrasate
08:30	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoeta-koendako. Bezperan delitu: 629 54 59 23

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 29

Larunbatean giro eguzkitsua izango dugu eta hegoaldeko haizeak zakar joko du haizeguneetan. Temperatura maximoak 20 °C-ren bueltan ibili-ko dira.




Domeka, 30

Temperatura mantenduko da eta hegoaldeko haizea nagusituko da. Eguraldi polita, nahiz eta zerua erabat garbi ez egon. Euri arriskua tarteka.

EUSKAL HERRIAN

Nagusiki hegoaldetik joko du haizeak eta temperatura epe- lak izango ditugu. Zapatuan, egunaren bukaeran hodeiak ugaritu egingo dira eta zaparrada trumoiatsuak bota ditza- ke, batez ere barnealdean. Domekan antzeko eguraldia izango dugu.



oharrak eta deialdiak

BERGARA

> Ayllon mendilerroa irteera Pol-Pol eta Gortia mendialdeekin

Nagusitendako irteera da eta urriaren 12tik 14ra bitartean izango da. Herriko mendizale guztiak daude gonbidatuta. 18:00etan izango da irteera, Fraiskozuritik.

DEBAGOIENA

> Geriatria ikastaroa emango du Gurutze Gorriak

Urriaren 15etik azaroaren 5era bitartean izango da. 30 ordu teo- riko eta 20 praktikok osatzen dute eta eskola- lak izango dira astelehenetik egubakoitzera, 18:15etik 20:30era. Prezioa 115 euro da. Izena emateko edo informazio gehiagorako, deitu 619 00 35 00 telefono zenbakira.

BERGARA

> Kultura elkarteek dirulaguntza eskatzeko epea zabalik dago

2007ko dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu dute. Baldintza orriak eta eskaera orriak eskuragarri daude udaletxean eta kultura etxean.

ARAMAIO

> Urriko hiru egunetan izango da dinamizatzaile KZgunean

Urriaren 1ean, 15ean eta 29an egongo da. 16:00-18:00. Bestalde, gogoratu behar da dinamizatzaile gabe bada ere, egunero nabigatze-

ko aukera dagoela KZgunean, 17:00-19:30.

BERGARA

> Ekonomia jardueren gaineko zerga ordaintzeko epea zabaltear

Ordainketa egiteko borondatezko epea da urriaren letik azaroaren 12ra arte. Borondatezko epea bukatu eta gero errekaruarekin kobratuko dute. Erreziboen ordainketa banketxeren batean helbideratuta dute zergadunei, banketxearen beraren bidez bidali eta kobratuko zaie. Helbideratu gabe dutenen kasuan, berriz, datolak izango dira astelehenetik egubakoitzera, 18:15etik 20:30era. Prezioa 115 euro da. Izena emateko edo informazio gehiagorako, deitu 619 00 35 00 telefono zenbakira.

ARRASATE

> Gripearen kontrako txertoa urriaren 31ra arte

65 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta asteen auzoetako zaharren egoitzetara joango dira txertoa jartzera, 12:00-13:00 ordutegian. Urriaren 1ean, San Andres auzora joango dira; urriaren 2an, Abaroara; urriaren 3an, Urbarria; 4an, Santa Marina; eta 5ean, Musakolara.

943 25 05 01

goienkaria@goiena.com

TENPERATURAK

MINIMOA
Eguena, 20

7 °C

MAXIMOA
Egubakoitza, 21

28 °C

ASTEKO
EURIA (l/m²)

12,1 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 19	20 °C	10	- l/m²
Eguena, 20	28 °C	7	- l/m²
Egubakoitza, 21	28 °C	11	1,6 l/m²
Zapatua, 22	18 °C	17	0,3 l/m²
Domeka, 23	26 °C	16	0,2 l/m²
Astelehena, 24	21 °C	13	4,9 l/m²
Martitzena, 25	17 °C	13	5,1 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA IRAILEAN

Ilgora
19Ilbete
26Ilbehera
3Ilberri
11

hartu nahi dutenek esandako egunean azaldu besterik ez dute. Iaz bezala, eguaztenetan izango dira eskolak, 10:30-11:30.

ARRASATE

> Maritxu Kajoi eguneko luntzerako izenematea zabalik dago

Abaroak antolatzen du eta izena eman behar da hilaren 28a baino lehen. Izena emateko bazkide txartela eraman behar da Abaroako bulegora.

ARRASATE

> 1943an jaiotako emakumeen bazkaria

Urriaren 27an izango da, batzokian. Izena emateko 20 euro aurre- rratu behar dira Murua- mendiaraz gozotegian.

BERGARA

> Zabalik dago izenematea Xipizaro ludotekan

3 eta 12 urte arteko umeendako da. Astelehenetik egubakoitzera eman daiteke izena, 10:00-20:00, zenbaki honetan: 696 15 99 24.

ARRASATE

> Txatxilipurdik lan eskaintza egin du

Ludoteka eta gazte txokoetarako dinami- zatzaileak behar dituzte. Arrasateko ludote- kan eta gazte txokoetan lau orduko kontratuko lana eskaintzen dute; eta Aretxabaleta, Esko- riatza eta Antzuolako gazteleketuetan aste bu- kaerako lana. Informa- zio gehiago: 943 79 54 46.

kale inkesta

Zer iruditzen zaizu alde zaharra automobilendako ixtea?



Arantxa Rubio
Langilea
Antzuola

Oso ondo, lasaiago ibiliko gara horrela. Dena dela, astean zehar ere itxi beharko lukete; ondo egongo litzateke goizez zabalik egotea, merkatariei begira, batez ere, eta arratsaldeetan ixtea.



Amaia Arriola
Langilea
Antzuola

Ondo iruditzen zait kaleak geroago eta gehiago izatea oinezkoendako. Gainera, asteburuetan ixteak ez die kalterik egingo merkatariei. Herriko Plazan aparkatzen ez lagatzea ere ondo ikusten dut.



Maria Pilar Agirrezabal
Erretiratua
Antzuola

Oso ondo; horrela lasaiago ibiliko gara paseatzen, batez ere umeekin dabilzanak. Orain, gainera, oso polita dago jarrita alde zaharra eta automobilik ez badabil hobeto aprobetea ere ondo ikusten dut.



Novodni Castaño
Langilea
Antzuola

Ondo iruditzen zait; astean zehar ere neurri bera hartuko balute, ondo ikusiko nuke: zenbat eta automobil gutxiago, hobeto. Gainera, badaude beste kale batzuk automobilendako.



Luis Mari Jauregi
Erretiratua
Antzuola

Oso ondo; hoberako izango dela uste dut. Gainera, alde zaharra itxita ere, badaude beste kale batzuk automobilak ibiltzeko. Hemendik aurrera, txikiteoan gabiltzanok ere lasaiago ibiliko gara.

5 galdera...

Laura Beristain

Larrañaga autoeskolakoa
Bergara

1. Espainiako gobernuak motorra gidatzeko baimena aldatu gura du. Potentzia handiko motorrak 24 urtetik aurrera erabiltzea pentsatu du. Nola ikusten duzu hori?

Ondo. 18 urterekin potentzia handiko motorrekin ibiltzea gehiegizkoa da. Potentzia handiko motorrak dira eta gazteek horiek gidatzeko esperientzia laburra dute. Trafikok ez digu notifikaziorik bidali aldaketa horien gainean.

2. Aldaketa berandu edo momentu onean datorre... la uste al duzu?

Orain, autoa gidatzeko baimena ateratzen duenak 125eko motor bat erabili ahal izango du handik hiru urtera. Jendea motorra hartzera animatzen da, esperientziarik gabe. Motorra ibilgailu bat da eta arauak ezagutu eta praktikak egin beharko lirakeke. Argi dago zerbait egin beharra dagoela.

3. Uda honetan sekula baino istripu gehiago egon dira. Esperientzia faltak ez du erru guztia izango...

Hala da. Abiadurak ere eragiten du, batzuk azkarregi doaz-eta. Konfiantza handiegia ere izaten dira motorrera, eta, esan bezala, esperientzia nahikorik ez dutenez, istripu asko daude. Gaur egun bazter-babesak, gainera, oso arriskutsuak dira; ondo egongo litzateke horiek aldatzea.

4. Zer egin behar da gaur egun motorren A baimena eskuratzeko?

Hasteko, 20 galderako azterketa teorikoa gainditu beharra dago. Horretaz gain, praktika gutxi batzuk egiten dira. Auto baimena dutenek zirkuitu itxi batean egiten dituzte horiek. Ez dira errepidera ateratzen, eta, beraz, ez dute errealitatea ikusten. Kanpora irten beharko lukete, hor dago-eta benetako arriskua.

5. Potentzia handiko motorren baimenak igo egin direla igarri al duzu?

Bai; nabarmen, gainera. 125eko motorra txiki geratu zaie eta potentzia handiagoarekin ibili gura dutenak etorri dira. Batzuk gaztegiak dira.



txaloak eta txistuak



M.B.

Aramaiorako bidea konpondu dute



Arrasateko Uribe auzotik Aramaiora doan bidea konpontzen ari dira. Martxoan errepide zati bat apurtu zen, euriteek hodi bat hautsi zuten-eta. Oraindik lanak amaitu barik badaude ere, bidetik desbideratu gabe ibil daitezke ibilgailuak joan den astelehena ezker.

asteko datua

%70

Gripearen aurkako txertoa jartzeko kanpaina astelehenean hasi zen. Arrakasta handia du horrek gurean; izan ere, 65 urtetik gorakoek %70 inguruk jartzen du txertoa. Emakumezkoek hartzen dute txertoa gizonen baino gehiago. Kanpaina urriaren 31n amaituko da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

ARRASATEKO UDALA > ENPLEGU ZERBITZUA

Lan bila dabilzanendako asteroko eskaintza prestatzen du Udalak

Lan eskaintzen gaineko informazioa batzen du, eskaintza publikoa zein pribatua, eta astero-astero berri egiten dute informazio hori

UBANE MADERA > ARRASATE

Lan bila dabilzaneei begira zerbitzu berezia eskaintzen du astero-astero Udaleko Enplegu Zerbitzuak. Arrasaterako dauden eskaintzak, Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkionak eta Estatu mailakoak, guztiak batzen ditu. Eta eskaintza horren barruan, gainera, enplegu publikoa (Lanbide, INEM...) eta pribatua (enpresa pribatuak, Kutxa Zeharo...), biak ala biak uztartzen dituzte.

Batze lanak egin eta gero, informazio guztia herriko hainbat puntutan ipintzen dute, behar duenak kontsulta dezan. Halaxe jakinarazi du Marga Garmendiak, Enplegu Zerbitzuko teknikariak.

Kulturaten (helduen liburutegian), Gazte Bulegoan, Udal Enplegu Zerbitzuan, Biztanleen Arreta Zerbitzuan eta Udalak Erdiko kalean duen iragarki tau-



BIZTANLEEN ARRETA ZERBITZUA Besteak beste, zerrendak kontsulta daitezke BAZen, Agurtzane Arregi teknikariak lagunduta. u.m.

lan kontsulta daiteke. Horrez gainera, Udalaren webgunean ere kontsulta daiteke informazio horren zati handi bat.

ASTERO BERRITU

Informazioa ipintzeaz gainera, informazio hori etengabe berri-tzen dutela ere azpimarratu gura izan du Enplegu Zerbitzuko udal teknikariak: "Astero berri-tzen dugu. Lanbidekoa asteartean berritzen dugu eta jendearen

eskuragarri ipintzen dugu asteazketan; lan eskaintza publikoaren gainekoa, berriz, astelehenetik asteartera bitartean".

Lan eskaintza pribatuari dagokionez, berriz, egunkarietan arakaten ibiltzen dira informazioa batzeko: "Egunkarietatik ateratako eskaintza sorta luzea izaten da hori, Euskal Autonomia Erkidego mailakoa; hori jendearen eskura ipintzen dugu asteartean".

KOPURU HANDIA

Enplegu Zerbitzuak erabiltzen dituen iturri horiek guztiak kontuan hartuta, Garmendiak azpimarratu du, baita ere, informazio kopuru handia batzen dutela: "Denetik dago, hori egia da. Hori bai, gero norberak ikusi behar du dagoen guztiaren artean zer egokitzen den bere beharretara. Edozelan ere, esan daiteke lan bila dabilzanek gure zerbitzu honekin dutela errekurtsio

INFORMAZIOA NON ESKURATU

> **UDAL ENPLEGU ZERBITZUA**
09:30etik 14:00ak bitartean;
Marga Garmendiarengatik galdetu behar da.

> **BAZ-EN**
16:00etik 19:00etara bitartean:
Agurtzane Arregiarengatik galdetu behar da.

> **KULTURATEN, LIBURUTEGIAN**
Liburutegiaren ordutegi berean:
10:00etik 13:00ak arte eta
16:00etik 20:30era arte; ordenagai-luaren ondoan daude zerrendak.

> **GAZTE BULEGOAN**
Gazte bulegoaren ordutegi berean: 11:00etik 13:00etara eta
17:00etik 20:00etara.

> **UDALAREN WEBGUNEAN**
www.arrasate-mondragon.org;
Bestelako Lan Eskaintzak izeneko-loturan.

> **UDALAREN IRAGARKI TAULAN**
Erdiko kalean duen taulan.

interesgarria, guk lan eskaintza asko mugitzen ditugu-eta". Informazio gehiago behar duenak Udal Enplegu Zerbitzura jo dezake edo telefonoz deitu. Zuzeneko zenbakia honako hau da: 943 25 20 70.



Elgeta-Piel

Udazken eta neguko moda

Domingo Iturbe 8

ELGETA

Tel.: 943 76 81 12

Martitzenetik zapatura:

10:30-13:00 eta 17:00-20:00.

Domeketan:

11:00-13:30.

Astelehenetan itxita.



PLANOA Arrasateko Udalaren planoak erakusten ditu zirkulazio arau berriak.

ARRASATEKO UDALA

OBRAK > AUTOEN JOAN-ETORRIAN ALDAKETAK

Asteleheneretik aurrera, aldaketak zirkulazioan

Bi noranzko izango dira Gipuzkoako Foruen plazatik Arrasate pasealekura eta Zerkaostetatik Garibaira

UBANE MADERA > ARRASATE

Astelehenera zabaldu behar dute zirkulaziorako Kontzetzinoren eta Arrasate pasealekuaren arteko errepide zatia. Horren ondorioz, zirkulazio aukera berriak sortuko direla jakinarazi du Obra eta Zerbitzu Sailak.

Batetik, Kontzetzinotik joanez gero, posible izango da Lau-bide plaza parean ezkerrean har-

tu eta gero gorantz jarraitzea, Arrasate pasealeku aldera. Handik bi bide hartu ahal izango dira, bata Gipuzkoako Foruen plazaraino iristeko eta bestea Biztanleen Arreta Zerbitzuaren bulego pareraino joateko. Hain justu ere, azken aukera horrek bakarrik balio du zamalanak egiteko eta garajeetako erabiltzaileek erabiltzeko.

Zerkaosteta ingurura bueltatuz, behearanzko noranzkoan zirkulatu ahal izango da kale horretako 15ean dauden garajeen paretik Garibai etorbidera joateko.

Iturriotz kaleari dagokionez, handik gora bakarrik egin ahal izango da, Arrasate pasealekutik, Gipuzkoako Foruen plazarantz.

Gipuzkoako Foruen plazan bagaude, berriz, handik joan ahal izango gara Arrasate pasealeku 27raino eta handik bakarrik jarraitu ahal izango dugu Gazte-luondoraino, Santa Barbara parkearen beheko aldetik.

GIZARTEA > URIBARRI

Uribarriko erretiratu-etxea laster zabalduko dute

Haserre handiak eragin ditu bi hilabetez erretiratu etxea itxita egoteak

batzordeko presidentearekin berba egin eta jakinarazi genion abuztuan ezin zela prozesua abiarazi, ez zegoelako batzorderik; horrez gainera, abuztua izanda, komeni ere ez zen komeni, jendea oporretan zegoen-eta".

U.M. > ARRASATE

Uribarri auzoan bazterrak harrotuta dabilta azken bi hilabeteotan. Auzoko erretiratuen etxea uztaile ezker itxita egoteak harrotu ditu hautsak. Kontua da erretiratuen etxea kudeatzen zuen langileak lana utzi behar izan zuela, eta harrezker itxita dago erretiratuen etxea.

Ondorioz, Uribarriko zaharren etxea erabiltzen duten erretiratuak egoteko leku barik geratu dira. Eta horregatik, auzotar asko haserre dabil. Pentsatzen dute bi hilabete larregi direla halako zerbitzu bat itxita egoteko. Eta erretiratuen etxeko taberna itxita egon arren, uste dute, besterik ezan, egoitza bera zabalik izan beharko lukeela Udalak.

AHALIK ETA LASTERREN

Udalari dagokionez, abiarazita dauka Uribarriko erretiratuen etxea kudeatzeko lehiaketa. Prozesua ahalik eta lasterren zabaldu dutela azpimarratu dute. Halaxe adierazi du Ander Rodriguezek, Gizarte Zerbitzuko zinegotziak: "Egoera guztiz ezohikoa izan da. Uztaileko azkeneko egunetan jakinarazi zigun atezainak, arazo pertsonalak medio, taberna lagako zuela. Uribarriko erretiratuen etxeko

BARKAMEN ESKE

Horrela, irailean abiarazi zuten prozesua: "Plegua martxan jarri genuen eta gainera larrialdiko deialdia egin dugu", azaldu du EB-Zutik koalizioko zinegotziak. Bizpahiru lagun aurkeztu direla ere kontatu du eta espero duela aste gutxi barru adjudikatzea zerbitzua.

Era berean, zinegotziak Udalaren izenean "barkamena" eskatu gura izan die erabiltzaileei, baina azpimarratu du "egoera horretan" ezin dela "azkarrago martxan jarri".

GRIPEAREN KONTRAKO TXERTOIA

Bestalde, Uribarriko erretiratuen etxearen harira, abisatu dute hura itxita izan arren urriaren 3an hantxe emango dutela gripearen kontrako txertoa, 12:00etatik 13:00etara. Atzeko atetik sartu beharko da.

Txertorako hitzorduak

NON	NOIZ
San Andres	Urriak 1
Abaroa	Urriak 2
Uribarri	Urriak 3
Santa Marina	Urriak 4
Musakola	Urriak 4

ITURRIA: ARRASATEKO ANBULATORIOA

arbolapeta

arrasate

beinke

MEHER

Bañez doktorea 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85

Maritxutarako eskaintza zabala arropa eta osagarrietan.

UGARTE

Industria hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Txinatar jatetxea

DRAGON ORIENTAL

Maritxu Kajoi egunerako menu bereziak

Deitu eta har ezazu tokia lehenbailehen!!!

943 79 85 33
943 71 25 00

Araba etorbidea 3 ARRASATE

((112))
SOS DEIAK

Hika
OSAGARRIAK

Juan Carlos Gerra 1 ARRASATE Tel.: 943 79 98 06

GAIA > ELKARTASUNA

Iturri gorri Elkarlan taldearen aldeko kontzertua

Amaia antzokian, izango da, bihar, 19:30ean; sarrerak 10 euroren truke

A.ARANBURUZABALA > ARRASATE
Askotariko musika estiloak entzuteko aukera izango da bihar, zapatua, Amaia antzokian egingo duten elkartasun kontzertuan. Agertokian izango dira: Goikobalu abesbatza, Arrasate Musikaleko Big Band eta Bergarako Belceblues taldeak, hain zuzen ere.

Hiru taldeak musu-truk ari tuko dira. "Goikobalu abesbatzakoak etorri zitzaizkigun taldeari lagundu nahi ziotela esanaz; hortik etorri zen jaialdi hau antolatzea", horrela azaldu du Aitor Azkaratek, elkarte kideak. Era berean, oso eskertuta daudela adierazi du: "Ika-

ragarria izan da alde guztietatik jaso dugun erantzuna, musikarien zein Udalaren partetik, besteak beste".

HEZUR-MUIN EMAILE BILA

Aurtengo urtarrilean sortu zuten Iturri gorri Elkarlan elkarte Arrasaten, nahiz eta ez duten lan esparrua herrira mugatzen. Sorreratik izan da taldearen helburu nagusia hezur-muin emaileen kopurua handitzea. Horrekin batera, gizarte sentsibilizatzea, erakundeekin koordinazio lanak bultzatzea eta hezur-muin gaitzaren dirulaguntzak lortzea dira dituzten beste asmoak. "Epe motzera begira, erakundeekin laguntza lortu nahi dugu", gaineratu du Azkaratek.

Ekitaldira joateko gonbidapena egin du Azkaratek. Pertsonaia ezagunak ere izango direla gaineratu du.



GOIKOBALU Biharko ikuskizunean parte hartuko du.

GOIENKARIA



Lilura

OIHALAK

Egin zure jantzia.

Konpromezurik gabeko aurrekontua.

Poltsak, eskularruak eta galtzerdiak bezalako osagarriak eskaintzen ditugu.

Zerkaosteta 5, behea.
ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72



Marixutarako osagarriak

Bañez doktorea 4
(San Andres auzoan)
Arrasate
Tel.: 943 79 19 94

Dabid Errasti > Antzerki zuzendaria

"Azpimarratzekoa da aktoreek egin duten ahalegina"

A.ARANBURUZABALA > ARRASATE
Gaur, egubakoitza, *Bertso-raperak* antzezlan egingo du Arizmendiko antzerki taldeak. Emanaldia Amaia antzokian izango da, 20:00etan. 15 urtetik gorakoentzako prestatutako lana Dabid Errasti aretxabaletarrak zuzendu du.

Zelan eta nondik sortu zen antzerkia egiteko ideia?

Arizmendi ikastolako guraso eta irakasleek hausnarketa egin zuten gazteek festetan duten kontsumo ohituren gainean; horren ostean sortutako ekimena da.

Zer kontatzen du lanak?

Gaspe lagun talde batek dituen beldur eta lotsetan oinarrituta dagoen istorioa da. Horrez gain, gazteek gauza berriak probatzeko duten irrika eta neurria hartzearen garrantziaren gainean ere jarduten du.

Juan Antonio Montianok idatzi eta Jokin Labaienek itzuli du. Ze ezaugarri ditu lanak?

Esketxeekin osatutako lana da. Umorea da nagusi, baina gordintzaren puntua ere badu. Izenburuak adierazten du musikak pisu handia duela.



Dabid Errasti zuzendaria taldeko partaideekin.

TXOMIN MADINA

Antzerki tailerrekoak dira. Aktore amateurak, beraz.

Bai, sekulako meritua dute. Goraipatzekoa da egin duten ahalegina. Nork bere ogibidea du:

ikastolako irakasleak eta gurasoak dira. Urtarrilean hasi ginen obra horrekin eta astean behin bakarrik ordu eta erdiko entseguak egin ditugu.

Citroën C4 Picasso 5 eserleku

VISIOSPACE

Haizetako panoramiko angeluhandia



ONDO PASAU SAN MIGEL JAIK!

EURO NCAP (1)



CITROËN C4
Picasso 5 eserleku



CITROËN GRAND C4
Picasso 7 eserleku

CITROËN Credit Ezagut itzazu eskaintza bereziak www.citroen.es webgunean. Citroën Informazioa: 902 44 55 66

CITROËN preferre TOTAL Ekimendua bertsoen arabera. Aurkezten diren modeloak dira Citroën C4 Picasso Exclusive 5 ate eta Citroën Grand C4 Picasso Exclusive 7 ate. Kontsumo mitua (l/100 km): CO2 gorpua (g/km): Citroën C4 Picasso 5 ate: 5,7 / 8,9 - 150 / 211. Citroën Grand C4 Picasso 7 ate: 5,7 / 8,9 - 150 / 211. (1) Bilgailu testatua: Grand C4 Picasso. Grand C4 Picassok lortutako puntuak: Bilgailuan daozen nagusien segurtasunean.

ETOR ZAITEZ Debaioieneko Citroën Zerbitzu ofizial bakarrak:
TALLERES CHAPIME S.C.L. San Andres 5 - Tel.: 943 79 45 22 - ARRASATE

CITROËN 
NO TE IMAGINAS LO QUE CITROËN PUEDE HACER POR TI

Zure ametsetako
marrit, trajea dugu...
der galant hori.
turrira
ahi bade
turriari
rdotxo txu
dango
degun guz
Maritxu Kajoi 2007
30 urte

Casa Ceciaga

**Casa Ceciaga 2007:
100 urte**
(Ardo onak nola, urterik urte hobetuz...)

**Aurten ere
festarako ehunka soineko eta traje
eta milaka osagarri ditugu
zure gaurik gogokoenerako**

Casa Ceciaga

Maalako Errabala, 3
ARRASATE
Tel/Faxa: 943 79 12 62




Amagara

Erdiko kalea 54 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

Zure azalak urteetan mantentzeko behar duena

Honako tratamendu eta terapiekin lor dezakezu:



- Aurpegirako gure tratamendu estetikoekin
- Terapia medikoekin



Glabelarra lehen Glabellarra orain



Aho eta sudur-ertzain ertzak lehen Aho eta sudur-ertzain ertzak orain

San Migelak

Garagartzako jaiak Arrasate 2007

Irailaren 28an, **BARIKUE** edo **EGUAKOTXA**

19:30 Jaixen hasierie, ikurriñe igo eta etxaflero jaurtiketie
19:30 - 22:00 Trikilarixek ibiliko die kalejiran
22:00 Dantzaldixe **KAIKO** taldearekin

Jaixen haiseratik zapatu gaberarte Garagartzako 1. Argazki digitalen Rallya ospatuko da.

Izen ematea **ANTE TXOSNAN**. Babeslea: **IKATZ**

Aurten ez diegu Lamiñei eta Neanthertal gizonei ongi etorrixe emango, **AHT** etorrera dala ta bildurtu eta ihes ein dauielako. Ea datorren urtian animetan dien.

Irailaren 28an, **ZAPATUE**

10:30 Garagartzako Leze txiki ekipoko gaztetxoek artien partidue
12:00 Meza naguxixe
12:00 - 14:00 **KULKI**: meatzarien joko eta jolasen jaixe
16:00 - 18:30 Garagartzako IV. Kobate Open futbol partiduek (umiendako)
18:30 - 20:30 Gorriti eta bere animaliak
20:00 - 23:30 Dantzaldixe **INIGORE**kin
23:30 Rock jaialdixe: Garagartzako III Neanthertal rock kontzertua (**LOS KEDOUS, PARAPLEJIA, SOCIEDAD CORRUPTA, PARALISIS CEREBRAL**)

Irailaren 30ean, **DOMEKA**

12:00 Meza, auzoko hildakuen alde
12:30 **ANTE TXOSNAN** argazki irabazleak ipiniko die eta opari banaketa eingo da.
13:00 Txikitxu taldeak euskal dantzak
14:00 - 14:30 Musika apur bat, **TXINPARTA** taldeak
14:30 Auzo bazkaixe
Bazkalostien erromerixie, **TXINPARTA** taldeak

**BARIKUEN ETA ZAPATUEN BUZKENTZAK EGONGO DIE
ATSALDEKO ZAZPIRETATIK AURRERA, AUZOETXIEN**

Kobate HARROBIA
obaundi HORMIGOIAK
Ondo pasau Garagartzako jaixetan

Tel.: 943 71 24 03. Faxe: 943 77 02 51 Posta kutxa: 85. Garagartza auzoa.



Belun

Garagartza auzoa Tel.: 943 79 61 14

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

Paraje eder
baten kokatua



Arteaga

Landetxea

Arteaga baserria,
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel. 943 71 18 81
Faxe: 943 71 18 82

ERRUGBIA > DENBORALDI-AURREA

Durangoko eta Errioxako taldeak Mojategin bihar

Emakumeek, seniorrek eta beteranok lagunarteko partiduak jokatu dituzte bihar Mojategin, goiz eta arratsalde

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Ilusio berrituarekin dabilta Arrasate Errugbi Taldeko kideak. Dagoeneko badituzte urtetan eskatu dituzten kirol instalazio egokiak, eta orain euren dagokie Mojategiko harmailera ikuskizuna eramatea. Errugbia biziberritzeko ahaleginetan dabilta, eta emakumeen taldea sortu dutela da adibide garbiena.

Hori horrela, bihar, errugbi-zaleek hitzordu hirukoitza izango dute Zigorrolan. Goizean (12:30), Herensugeak talde beteranoak La Rioja taldea izango du kontrario. Eta, arratsaldean bi

norgehiagoka egongo dira ikusgai, seniorrena eta emakumeena.

Emakumeen taldeak 16:00etan jokatu du Durangoren kontra eta 17:30ean jokatu dute seniorrek, Durangoren kontra baita ere.

EMAKUMEAK, BERRITASUNA

Aurreratu moduan, hori da aurtun klubak duen berritasunetako bat, emakumeen taldea estreina-tutela, alegia. Mikel Kerexetak eta Igor Erañak 30 emakumez osatutako taldea zuzentzeko ardura daukate, baina lana ez da taldea zuzentzera mugatzen; kasu asko-

tan taldekideei errugbia ezagutaraztea izan da euren lana: "Neska batzuek maila txikiagoetan errugbian jokatu izan dute, kadetan, adibidez, baina beste batzuek sekula ez dute errugbi norgehiagoka bat jarraitu".

Alde horretatik, egin beharreko lana handia da: "Joan den astean Atletico San Sebastian taldearen kontra uste baino hobeto ibili ginen. Erasoan lan handia dugu egiteko, baina defentsan, plakatzeko orduan nahiko lan txukuna egin genuen". Errugbian jokatzu ondo pasatzea dute helburu, eta lehenengo urtean, kirol mailan izango dituzten emaitzei ez diete kasu handiegirik egingo: "Zapatuan 48-0 galdu genuen, eta jipoi handiagoak ere hartuko ditugu, baina lasai gaudu, jokatzu ikasten da".



GOIENKARIA

Ford Mugarrik, lehena Basaurin

Atletico Basauri taldearen kantxan hasiko du Ford Mugarri Arrasateko Euskadiko Txapelketako denboraldi berria (zapatua, 16:30, Artunduaga kiroldegia). Joan den urtean, Balerdiren eta Fertxuren mutilak uste baino hobeto moldatu ziren kategorian berrira, eta aurtun ez lukete okerrago ibili beharko. Hori bai, iaz garrantzitsuak izan ziren hainbat jokalarik taldea utzi dute, eta haien hutsunea ez igartzea da erronka.

> BESAIDE

Pilarikan egingo duten mendi zeharkaldian izena emateko egunak, eguena eta eguaztena

Besaidekoek hiru eguneko mendi zeharkaldia antolatu dute Pilarikako zubian egiteko, eta datorren eguaztena, urriak 3, eta eguena, urriak 4, dira izenak emateko egunak (19:30-20:30).

Aurtengo mendi zeharkaldia Frantziatik (La Frutiere ingurutik) Aragoira (Sallent de Gallego) prestatu dute. Pirinioetako bailara ikusgarrietako batzuk zeharkatuko dituzte.

> XAKEA


Arrasate Hiria xake txapelketan, rankingeko lau lehenek elkarren kontra jokatu dute gaur

Gaur, 19:00etan hasita, Arrasate Hiriko hirugarren jardunaldia jokatu dute, eta antolatzaileek lehia estuak aurreikusten dituzte, saikapeneko lehenengo lau xakelariak elkarren kontra lehiatuko dira-eta.

Alejandro Franco nazioarteko maisu madrildarrak Yeray Galzagorri abadiñarra izango du aurrean eta Fran Miguel atxalbaltarrak Cristobal Limeres izango du kontrario. Bestalde, Isidro Ruizek eta Josu Tornayk derbia jokatu dute.



EMAKUMEZKOEN TALDEA Joan den zapatuan egindako talde-erretratu, Atleticoaren kontra jokatu aurretik. ARRASATE ERRUGBI TALDEA



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE

Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

HERRIA > OSOKO BILKURA

San Martin eskolako ordezkariak soluzio bat eskatu zioten udalbatzari astelehenean

Seminarioko lagapenaren gainean otsailean egindako hitzarmenaren aurrean, adostasun handiagoko irteera bat topatzearen aldekoa da udal gobernua

EDU MENDIBIL > BERGARA

San Martin ikastetxeko ordezkariak estu jarri zuten udal gobernua astelehenean osoko bilkuran. Bestelako gaiak aztertzeak baziren ere, erregu eta galderen txandan, Aranzadi ikastolaren eta San Martin ikastetxearen arteko auziak hartu zuen protagonismo osoa. Aretoa jendez lepo zegoela, besteak beste, Susana Uriarte San Martineko zuzendariak eta Usoa Urbietak, Miren Gurutze Arana, Iñaki Arriola eta Iñigo Azkarate gurasoek egin zuten berba, behin baino gehiagotan kasu gehienetan. Ordubete luzez jardun zuten zinegotziek eta San Martineko ordezkariak eztabaidan.

OTSAILKO HITZARMENA

San Martineko ordezkariak nagusiki bi eskaera egin zituzten: batek, aldarrikatzen dituzten bi gelak lehenbailehen Martinez Iralan kokatu ahal izatea; eta, bestetik, Aranzadiri Seminarioaren lagapenari buruz udalbatzak otsailean aho batez adostutako hitzarmena indarrean jartzea. Hitzarmen horren arabera, Aranzadik Martinez Irala uzteko bost urteko epea izango lukeela gogoratu zuten. Era berean, Iñaki Arriolak azpimarratu zuenez, 1982ko hitzarmenean jasotzen denez, Aranzadiri Martinez Iralako eraikina utzi zitzaion, San Martinek behar ez duen bitartean. Orain, San Martinen duten espazio falta konpontzeko hara bueltatzea eskatzen dute euren espazio arazoa konpontzeko.



SOLUZIORIK GABE San Martineko irakasleek eta gurasoek behar dituzten bi gelak aldarrikatu zituzten kalean zein osoko bilkuran, astelehenean.

MIGURA

ESKUMENA, NORENA?

San Martinekoek otsaileko hitzarmenaren gainean galdetu zioten udalbatzari. Iñigo Iñurrategi Aralarko ordezkariak jaso zituen kritikarik gogorrenetakoak Miren Gurutze Aranaren partetik: "Eskola Kontseiluko kide den Iñurrategik ondo daki aspalditik arazo hau bazetorrela eta bada garaia konpontzeko". Agurne Barruso alkateak gogoratu zuenez, beraiek kanpotik bizi izan zuten orduan adostutakoa. "Alde guztien beharrik ez zituen asetzen hitzarmenak eta konponbide adostu bat lortu nahi dugu", esan zuen. Iritzi berekoak dira Aralar, EAJ eta EA: "adostasun handiagoko irteera bat nahi dugu", adierazi zuten. PSE-EEk San Martinekoen eskaerakin bat egin zuen.

Bestalde, irtenbidea topatzeko orduan azken erabakia noren

esku dagoen jakin nahi izan zuten San Martinekoek. Joan den aste-
an udal gobernua prentsurrekoa eman zuen, eginkizun hori Hezkuntza Sailari leporatuz: "Eraikina Udalarena bada ere, Hezkuntza Sailari atxikita egoteak erabilera Hezkuntza Sailaren esku dago". Argudio horren aurrean zalantzak agertu zituzten San Martinekoek: "Aurretik, haurreskola publikoa jartzeko Udalak eman zuen baimena. Orain, Hezkuntzaren eskaera bada guri Martinek Iralan lekua egitea, zergatik ez da hori aurrera eramaten? Gure seme-alabak bigarren mailako ikasleak dira akaso? Hezkuntzaren kalitatea aipatzen da han eta hemen baina gure seme-alabendako baldintza duinak aldarrikatu beharrean gaude". Ikasturtea aurrera doala eta lehenbailehen soluzioren bat behar dutela

gaineratu zuten; eta euren asmoa ez dela inondik inora kilometroak jaia zapuztea. Egoera berdin jarraituz gero, ea osoko bilkuren aretoa eskolak emateko erabiltzerik izango duten galdetu zuten baita. "Pilota pasatzen ari zarete batzuk besteei eta erantzukizuna norena den ez daukagu argi"; udal gobernuaren partetik, berriz, irtenbide bat topatzeko lanean dihardutela eta eguaztenean Lakuara joateko zirela erantzun zieten. Akordio posible horren aurrean, San Martinek desadostasuna azalduko balu, ea zer egingo zuten galdetu zieten gero. Denon gustuko akordio bat bilatu nahi dutela izan zen gobernuaren erantzuna.

EGUAZTENEAN LAKUAN

Udaleko ordezkariak Hezkuntza Saileko ordezkariekin bildu ziren eguaztenean. Atzo, eguna, han

hitz egindakoaren jakinarazpen ofiziala jasotzeko zain ziren. Alkaterearen hitzetan, "jakinarazpena jaso bezain pronto, ikastetxeetako ordezkariekin bilduko gara haren berri emateko".

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

AZPEITXI

Jatetxea


Aranerrekak 13 behea. Bergara
943 76 55 00

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

UDALA > ONGIZATE ZERBITZUA

Orientazio psikologikoa gurasoendako

Familiei zuzendutako orientazio psikologikoko doako zerbitzua eskainiko du Udalak aurten

EDU MENDIBIL > BERGARA

Familiei zuzendutako orientazio psikologikoko zerbitzua eskainiko du Bergarako Udalak aurreantzean. Debagoiengan zerbitzu aitzindaria izango da. Lea Artibain eta Urola Kostan zerbitzuak izandako erantzun onari eutsi nahi dio Bergarako Udaleko Ongizate Zerbitzuak.

Udalak eta EHUko Psikologia Fakultateak hitzarmena sinatu dute aurtengo ikasturtean Ber-

garan zerbitzua eskaintzeko. 0 eta 19 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta dago zerbitzua. Besteak beste, guraso eta seme-alaben arteko harremanak hobetzeko informazioa eman, seme-alaben garapen pertsonala sustatzeko orientazioa eskaini eta familian heziketaren gainean sortutako zalantzak argitzen saiatuko dira Etxadi taldeko psikologoak. Zerbitzua doanekoa eta konfidentziala izan-



AURKEZPENA Roberto Martinez -Ongizate batzordeko burua- eta Arantazu Loidi -Prebentzio teknikaria- eguaztenean. E.M.

go da eta interesatuek hiru aukera izango dituzte zerbitzura jotzeko: 94 405 15 49 telefono zenbakia (eguenetan, 11:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 17:00etara), Udaleko webgunea (www.bergara.net) eta posta arrunta. Aurrekontua 9.280 euro da.

ZERBITZUA AZALTZEKO HITZALDIAK
Eguazteneko aurkezpenean Arantazu Loidi teknikariak eta Roberto Martinez zinegotziak azpimarratu zuten, nolabait Gurasoen Eskola ordezkatzera dator zerbitzu berria. "Zerbitzua- ren xedea haurtzaroan eta nera-

bezaroan garapen pertsonal osuntsua lortzen laguntzea da", esan zuten.

Zerbitzuaren nondik norakoa azaltzeko bi hitzaldi izango dira martitzenean, urriaren 2an, kultura etxean: 15:30ean lehena eta 18:30ean bigarrena.

JAIK > SAN MIGELAK

San Migelak Angiozarren asteburuan

E.M. > BERGARA

San Migel jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran Angiozarren. Gaur, egubakoitza, danborrada izango da, 19:00etan. Iazko estreinatuta zuten *Angiozarko martxa* eta gaur ere entzuteko aukera izango da. Ondoren txupinazoa, tortilla txapelketa eta gauean, 23:00etan, kontzertua Aby Kem, Belceblues, Extorsion eta Trigger Travis taldeekin.

Zapatuan, San Migel egunean, meza nagusia 11:30ean eta ondoren Pagomendi elkartearen erretiratuendako luntxa eta trikitilariak; arratsaldean, plater tiroketa 15:30ean, jolas puzgarriak 17:00etan eta arku tiroketa 17:30ean. Briska txapelketa jokatuko da Pagomendin 18:00etan eta ordu berean buruhandiak izango dira. Iluntzean trikipoteoa egingo dute eta gauean sardina jana frontoian, 21:30ean.



DANBORRADA Irudian, Angiozarko danborradako argazki bat.

GOIENKARIA

Azkenik domekan, meza 11:00etan, saloiaren inaugurazioa 12:00etan, pilota partiduak 12:30etan eta herri jolasak 17:00etan. Ondoren zezenak, 19:00etan, mus txapelketa Pagomendin. Bukatzeko, San Migelen zeruratztea egingo dute 20:30ean.

DOMEKANARITZETAKO SAN MIGELEN
Bestalde, ohikoa denez, Aritzeta San Migelen ere San Migel eguna ospatuko dute. Hala ere, zapatuan egin beharrean, domekan egingo dute meza, 11:00etan. Migel Muxika apaizak esango du domekako meza.

> ONGIZATEA

'Heldutasunaren plazerra' emakumeei zuzendutako ikastaroa hasiko da egunean

Ongizate zerbitzuaren eskutik, Pepa Bojó psikologoak *Heldutasunaren plazerra* ikastaroa eskainiko du urriaren 4tik abenduaren 20ra, eguenetan. Emakumeei zuzendutako ikastaroa da. Izenematea astelehenera arte dago zabalik. Argibideak: 943 77 91 80.

> ODOL ATERALDIA

Odol emaleek dei egiten diete herritarrei hurrengo asteko odol ateratzean parte hartzeko

Bergarako Odol Emaleen Elkarteak dei egiten du eguaztenean, urriaren 3an, Seminarioko lokalean egingo den odol ateratzean parte hartzeko. Ohikoa denez, 18:30ean hasiko da odol ateratzea. Urrian beste bi izango dira: hilaren 17an eta 31n, hain zuzen.

> ERLIJIOA

Katekesi eskolak gaztetxoendako San Pedro parrokiaren eskutik: izenematea zabalik

Katekesi eskoletarako izenematea egin daiteke Komenioko 4. zenbakian, 17:00etatik 18:00etara: astelehenean (urriak 1) 2. eta 6. mailako ikasleak joan daitezke; martitzenean 4. mailako ikasleak eta eguaztenean 3. eta 5. mailako ikasleak. Lehen mailako ikasleak aurrerago hasiko direnez, pasatuko zaie abisua datozen egunotan.



GAZTELU
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55



Irrintzi
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26



Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

MUSIKA > ORGANO ERROMANTIKOIA

Organo zikloa hasiko da aste bukaeran

Organo erromantikoaren nazioarteko zikloaren VII. edizioa da eta hiru herritan izango da

Guztira hamabi kontzertu eskainiko dituzte, eta horietatik lau Bergarako San Pedro elizan

MIRIAN BITERI > BERGARA

Bihar, zapatua, organo erromantikoaren nazioarteko zikloaren beste edizio bat hasiko da. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Azkoitia, Azpeitia eta Bergarako udalek antolatu dute.

Bihar hasi eta urriaren 18ra bitartean iraungo du horrek. 12 kontzertu izango dira guztira, eta horietatik lau Bergarako San Pedro parrokian. Kontzertu guztiak doanekoak izango dira.

Belgikako Ignace Michiels organo-joleak zikloa estreinatu du San Pedro elizan bihar. Ondoan, Alemaniako Matthias Schlubeck izango du Michielsek, pan-txirula jotzen. Prestatutako

egitarauaren berritasunetako bat da hori. Organo eta pan-txirularen arteko konbinazioa, hain zuzen ere. Matthias Schlubeck, gainera, pan-txirulako goi ikasketak lortu dituen besorik gabeko lehenengo pertsona da.

JAPONIATIK ETORRIA

Horrez gain, Japoniatik iritsitako organo-jole bat ere izango da aurten Bergaran. Mami Sakato du izena eta urriaren 6an joko du. Hirugarren kontzertua, berriz, urriaren 13an izango da: Jose Luis Franzesena azpeitiarra entzuteko aukera izango dute San Pedro elizara joaten direnek. Aretxabaletako abesbatza-



SAN PEDRO Irudian, 2005ean San Pedron emandako kontzertu bat.

ARTXIBOA.

rekin batera joko du hark. 34 partaidek osatzen dute abesbatza. Azkenik, Loreto Aramendi organo-jole oriotarrak eta Naroa Intxausti soprano bilbotarrak

zikloa itxiko dute urriaren 20an. Aurten ere pantaila handi bat jarriko dute, kontzertuak hobeto ikusteko. Bergarako kontzertuak 20:00etan izango dira.

FILM LABURREN LEHIAKETA > AGORROSINEN, 19:00ETAN

Gaur jakingo da film irabazlearen izena

Lehenengo, aurkeztu diren sei lanak ikusi ahal izango dira eta ondoren sariak banatuko dituzte

M.B. > BERGARA

Film laburren lehiaketako sari-banaketa gaur, egubakoitza, egingo dute Agorrosinen, 19:00etan. Udaleko Kultura Zerbitzuko Nagore Narbaizak esan duenez, lehenengo, aurkeztu diren sei lanak proiektatuko dituzte eta ondoren irabazlearen izena emango dute. Partaideen gaine-

an ez du informaziorik eman gura izan, bergararrak daudela baino ez.

KIROL ARGAZKIAK AROZTEGIN

Bestalde, kirol argazki lehiaketarako aukeratutako 44 lanak ikusgai dira domekara arte Aroztegin; sari banaketa gaur, egubakoitza, egingo dute, 20:00etan.



FILM LABURRAK Gaur jakinaraziko dute lehiaketako irabazlea zein den.

ARTXIBOA

Marraski eta pintura klaseak
Edurne Eraña

Kurtso hasiera:
Urrian

Goizez eta arratsaldez


651 74 21 54

943 76 40 14

Arrizuri 5, 1.C

Bergara

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10



Neurriak
38tik 60ra

Mirari
JANTZIDENDA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

UDAZKENA
NEGUA



*Eraman dotoretasuna
zure etxera*



gelatuz s.l.

Zubillaga auzoa 1 OÑATI

Tel.: 943 71 63 22

Faxa: 943 78 15 51

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Ligako oilarretako baten kontra hasiko du Bergarak txapelketa

Zapatuan (18:00), Donostiako Egia Servi-Chap taldearen kontra hasiko du denboraldia Euskadiko txapelketan lehiatuko den Bergarak

XABIER URTZELAI > BERGARA

Agorrosinen hasiko du Bergarak denboraldia, iaz bigarren postuan sailkatu zen Egia Servi-Chap taldearen kontra. Eta, taldeko entrenatzaile Josetxo Muniategik aurreikusten du aurturaren ere talde hori aurrealdean ibiliko dela: "Aurreko hiru postuetatik lehiatzen ibiliko dira, seguru, baina, nire iritziz, horrelako talde baten kontra hastea gauza ona da, gu non gauden erakutsiko digulako; onerako ala txarrerako izango da hori, baina Donostiako taldeak non gauden erakutsiko digu".



KATEGORIA BERRIAN Lehen territorialean baino azkarrago eta gogorrago jokatu beharko du Bergarak.

GOIENKARIA

ERREFERENTZIA BARIK

Maila berria estreinatuko du bihar Bergarak, eta hori da, hain zuzen ere, taldeak duen galdere-

tako bat: ze maila dago Euskadiko txapelketan? Muniategik argi dauka taldeak oraindik lan handia egin beharko duela: "Ez naiz

oso gustura geratu egin dugun denboraldi-aurrearekin, oraindik oso urrun dagoelako iaz izan genuen maila. Egia da nahiko

zorrotz jokatzeko nabilela, kritikoa naizela taldearekin, baina aurturaren behar baino gehiago sufritu nahi ez badugu, ehuneko ehun eta hogeita eman beharko dugu. Dena dela, taldeak ondo egin du lan, eta lehenago ere bagenekien liga hasita ere bizpahiru aste beharko genituela fisikoki ondo egoteko. Aurreikusita geneukan hori, berandu hasi ginen-eta entrenatzen".

JOKO MOTELIK EZ

Donostiako taldearen bisitaren aurrean, Muniategik badaki ikusteko moduko norgehiagoka izango dela: "Ondo pasatzeko norgehiagoka izango da, zaleak ez dira aspertuko, ezta gu ere. Azkenean, horrelako txapelketan norgehiagokak ez dira joko motelekoak, aspergarriak izaten diren horietakoak. Ez, hemen erritmo handiarekin jokatzeko da, eta ikusleak eskertu egiten du hori".

Aurreratu moduan, Labegaraiek hartuko du Euskadiko txapelketako lehenengo norgehiagoka. Bihar, 18:00etan.

ZIKLO-KROSA > LASTERKETA

Azaroaren 1ean egingo dute ziklo-krosa Osintxun

Hamabi urteren ostean itzuliko da ziklo-krosa berriro ere Debagoienara, Osintxura

X.U. > BERGARA

Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioak dagoeneko zehaztu du ziklo-kroseko aurtengo denbo-

raldiko egutegia, eta erabaki dute Osintxuko lasterketa azaroaren 1ean egitea. Hori horrela, 12 urteren ostean gurera itzuliko da ziklismoak duen modalitate ikusgarri hori.

Gure bailaran 1990eko abenduaren 23an egin zuten, azkeneko, ziklo-kros lasterketa. Aretxabaletan egin zuten proba -herri horretan ziklo-krosak zaletasun handia pizten zuen, urtetan antolatuta zuten lasterketa hori-, eta

nazioarte mailako lasterketa izan zen. Orduan, Maik Kluge alemaniarra izan zen azkarrena, eta ordutik, Debagoienak ez du senior mailako txapeldunik izan.

1990 eta 1995. urte bitartean Aretxabaletan jarraitu zuten ziklo-kros lasterketa egiten, baina kadete eta gazte mailetako probak izan ziren. Kategoria horietako azken txapeldunak kadetan Andoni Aranaga eta gazte mailan Oier Eraña izan ziren.

FUTBOLA > ERREGIONALA

Bergara Rotetaren etxean ahaleginduko da lehenengo hiru puntuak eskuratzen

X.U. > BERGARA

Joan den astean aurreratu zuen Bergarako entrenatzaileak, Manu Diazek, komeni zela kanpoan jarraian jokatu behar dituzten bi norgehiagoketatik bat irabaztea. Hala, joan den asteburuan Elgoibarren zelaian 1-0 galduta, Bergarak Rotetaren zelaian saiatu beharko du asteburuan.

Bergarak apustu sendoa egin du aurturaren, etxeko jokalariekin bakarrik jokatzeko erabaki dute. Apustu horren

aurrean, liga ondo hastea oso lagungarria izango zen, baina ez da kasua, eta taldea atzeko postuetan ikusteak ez du laguntzen. Egoera hori dela eta, lasai jarraitzeak berebiziko garrantzia izango du.

BTLS, ONDO

Bigarren erregionalean, BTLS taldeak ondo hasi du liga, jokatutako bi partiduetan irabazi egin dituzte-eta. Asteburuan, laugarren lekuan dauden Gazteak izango dute aurrean.

EDEL

TAPIZ DENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

Ion Murgizu
Pinturak

Margoketa
orokorrean

- Enpapelatuak
- Iztukoak
- Fatxadak
- Eskilarak eta patioak
- Pintura industrialak

Zabalotegi 9, 2. esk • Bergara
Esozia 24- 2º behe • Soraluze

Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34


TELEIXA BILTEGIAK

**Eraikuntza
materialak**

Telleria (Labegarieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Goienkaria

Egubakoitza / 2007ko irailaren 28a / GOIENKARIAren ARGITALPEN BEREZIA / Arduraduna: Monika Belastegi / Maketazioa: Oxel Arrieta / Publizitatea: Itsaso Berezibar



SAN MIGELAK 2007

Aretxabaletako jaiak

ARGAZKILARIA: JOSETXO ARANTZABAL

ARETXA AUTOAK

Debagoieneko espezialista onena marka hauetan:



**San Migel jai zoriontsuak
opa dizkizue!**

Basabe poligonoa A-2-4 20.550 Aretxabaleta • Tel.: 943 71 00 68
www.autosaretxa.com




AZKARATE
aroztegia



Arotz lanetan behar duzun guztia

• Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak



Telleria 19, B-0-2 B-0-3 • BERGARA • Tel.: 943 76 47 19 / 610 884 020
azkaratearoztegia@euskalnet.net

www.goiena.net/blogak/azkarate

- Erakusketak
- Antzerki, zine eta musika-zikloak
- Liburuen argitalpena
- Kanpaina desberdinen eragiketa
- Erakusketa eta ikus-entzunezko materialen alokairua

KULTURGAIAK

HURBIL

KULTURA ZERBITZUAK

HURBIL KULTURGAIAK, S.L.
Arkarazo auzoa • Bikarixuena baserria • p.k. 160
20550 ARETXABAETA

tel.: 943.71.42.08 • faxa: 943.71.47.08
e-posta: hurbil@hurbil.es

JAIETAKO EGITARRAUA

Egubakoitza 28

19:00 BURUHANDIAK, Aretxabaletako trikitilarien laguntzarekin.

19:30 eta 22:30 Euskal DISKOTEKA.

Zapatua 29

10:00-14:00 ARTISAU FERIA eta XIII. AZOKA BIOLOGIKOA, Durana kalean eta Herriko plazan.

10:00 Talo TXOSNA egongo da Pagadaldaienian.

10:30 DIANA herriko txistulariekin.

11:30 Leizarra Musika Eskolako trikitilarien KALEJIRA.

12:30 TXALAPARTA emanaldia, Durana kalean.

12:30 Etxarriko ZANPANTZARRAK, herriko kaleetan.

14:00 Bilboko GAITARIEN emanaldia, bazkal ordura arte.

14:30 HERRI BAZKARIA, Herriko plazan. Txartelak eros daitezke 12 euroren truke -6 euro 12 urtetik beherakoendako- Urbaltz eta Gurea tabernetan. Bertsolariak, umeendako txokoa eta koadrilendako jokoak ere egongo dira.

Gero, Zurgaiarekin HERRI KIROLEN saioa egongo da Herriko plazan.

18:00 BURUHANDIAK, gaitariekin lagunduta.

19:00 LARRIN DANTZA, gaitariekin, Durana kalean.

22:00 Aukeran dantza taldeak *Bideak* IKUSKIZUNA egongo du, Iturrigorri pilotalekuan.



DURANA KALEAN EGINGO DUTE LARRIN DANTZA HERRITARREK.

Herri kirolen erakustaldia

Tradizio handiko ikuskizuna dira herri kirolak San Migeletan eta hori horrela, aurtan ere ez du hutsik egingo ikusikuzun horrek. Domekan, hilak 30, izango da erakustaldia, 13:00etan Herriko plazan. Aizkorarekin arituko dira: Ernesto Ezpeleta *Bihurri*, Jose Inazio Flores, Maika Aristegi, Maider Manzisidor eta Odei Ezpeleta. Harria jasotzen arituko dira: Joseba Ostolaza -Euskadiko txapeldun bost urtez- eta Goenatxo II.a.



Promesak ere ikusi izan ditugu.

GOIENKARIA

Domeka 30

11:00 DIANA Basauriko Haizedoinu gaitariekin.

13:00 HERRI KIROLEN erakustaldia, Herriko plazan.

Aizkolariak:

Ernesto Ezpeleta 'Bihurri'

Jose Inazio Flores

Maika Aristegi

Maidar Manzisidor

Odei Ezpeleta

Harri jasotzaileak:

Joseba Ostolaza (Euskadiko txapelduna bost urtetan)

Goenatxo II.a

Aurkezlea:

Ziriako

16:00 XV. San Migel MUS TXAPELKETA jokatu dute, Herriko plazan. Garaikurrak, txapelak eta dirua emango zaie lehenengo sailkatzen diren jokalariei. Izenematea da 20 euro eta 15:15etik 15:45era egongo da zabalik.

16:00 Arlutz Xake elkartearen eskutik I. San Migel Haur XAKE TXAPELKETA. Herriko plazan jokatu da.

17:00 Iruñako Alde Zaharreko Erraldoien Konpartsa, herriko kaleetan.

19:00 Mikel Deunaren KONTZERTUA, Iturrigorri pilotalekuan. Ohiturari jarraituz, parte hartuko dute Mikel Deunaren emanaldi horretan Aretxabaletako Leizarra Musika Eskolako kideek eta Aretxabaletako Abesbatzak.

Ondo pasa
San Migelak !!

EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

KOOP. E.

AZOKA

Ortuko jakiak eta artisauen lanak, herritarren eskura

Durana kalea

Zapatua, 28
10:00-14:00

Produktu ekologikoekin datozen baserritarren azoka eta artisau feria

XIII. produktu ekologikoen azoka eta artisau feria Durana kalean, txalapartariak eta herriko trikitilariak girotuta

MIRARI ALTUBE

Ortuan hazitako jateko ekologikoak dakartzaten baserritarrek bat egingo dute artisauekin, Durana kalean. XIII. azoka izango da.

Aretxabaletako Udalak antolatuta eta Nekazaritza Ekologikoaren aldeko Gipuzkoako elkarteak, Biolurrek, lagunduta XIII. produktu ekologikoen azoka egingo dute zapatuan, hilaren 28an.

SASOIKO BARAZKIAK

Guztira 14 bat postu jarriko dituzte, eta jaki asko eskainiko dizkiete herritarrei: sasoiko barazki eta fruituak, gazta, ogia, marmeladak eta antzekoak. Orturako landare txikiak ere ekarriko dituzte, eta Biolur elkarteak argibideak emateko gunea jarriko du. Handik eta hemendik etorriko dira baserritarrek, eta Jose Lombide aretxabaletarra izango da tar-



Kurtzebarri eskolako ikasleak ortuko barazkiak erakusten iazko azokan.

GOIENKARIA

tean. Kurtzebarri eskolako ikasleek ere ez dute hutsik egingo, eta ortuko barazki eta fruiturik goxoenak eskainiko dizkiete senide zein gainerako herritarrei.

Sendabelarrak eta fruituen hondakinekin egindako bitxien tailerra izango dira artisau ferriako berrikuntzak

20 ARTISAUTIK GORA

Baserritarren alboan Euskal Herri osotik etorritako artisauak elkartuko dira. Batzuk jatekoekin etorriko dira: euskal pastela, txokolatea, Gorbeia ezitia... Eta

beste batzuek produktu eta tresna erabilgarriak eskainiko dituzte: euskal zeramikazko ontziak, larruarekin egindako diru-zorro eta poltsak, ezpelarekin egindako ontzi eta mahai-tresnak, oihalezko jertseak...

Berrikuntzarik ere badago aurten: batetik, sendabelarrak ekarriko dituzte, era guztietako gaitzak arintzeko, hain zuzen; eta bestetik, produktu organikoak erabilia bitxiak egiten dituen tailerra jarriko dute: intxaur oskolak, okaran hezurak eta beste fruitu batzuen hondakinak bitxi eta tresna erabilgarriak egiteko.

TALOA, PAGALDAIXENEAN

Azokak iraun bitartean sagardoa eta taloak eskainiko ditu Loramendi Eeko Tril emakume taldeak, urtero legez. Aurten, gainera, Pagaldaixena taberna izandako lekuan jarriko dute talo txosna, Durana eta Mitarte kaleen artean. Eta goiza girotzeko txalapartariak eta Leizarra musika eskolako trikitilariak jardungo dute lanean.

GARCIA ENBALATZEAK

- ENBALATZE TOLESTAGARRIAK
- PALETAK
- EGUR KUTXA ETA KAIOLAK
- MOTA GUZTIETAKO TAULAK
- AGLOMERATUAK, TABLEXA, DM, ETAB.
- ENKOFRATZEKO TAULA



Etxabarri Auzoa 9 - 193 P.-K.
Tel.: 943 79 81 36 Fax:a: 943 79 82 38
20550 ARETXABALETA GIPUZKOA

Subinoa 10 - Gojain industrialdea
Tel.: 945 46 62 09 Faxes: 945 46 56 33
01171 LEGUTIANO ARABA

www.embalajesgarcia.com
e-posta: garcia@embalajesgarcia.com



GUREA

Gora San Migelak!

TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta

Tel.: 943 79 20 64



Zure
Osasuna
gure **ardura** da

- Masaje terapeutikoa eta kirol Masajea
- Akupuntura
- Presoterapia
- Hidroterapia SPA
- Osteopatia
- Errehabilitazioa
- Pancafit Metodoa



Belorrieta 6-7 • 20550 Aretxabaleta • Gipuzkoa
Tel.: 943 79 95 64

ELKARRIZKETA PACO SANCHEZ EUSKAL DISKOTEKA

"Argia duten makilatxoak oparituko ditugu"

OIHANA ELORTZA

Euskal diskoteka izango da aurtengo San Migel jaietan Herriko Plazan. Jaien lehen egunean zabalduko dute herritarrendako, egubakoi-tzean, irailak 28.

Betetzen da euskal diskoteka Aretxabaletako jaietan?

Joan den urtean, adibidez, jende gutxi ibili zen, baina aurrekoetan plaza bete egin da. Ea aurten ere jende asko datorren.

Zenbat lagun etorriko zarete?

Bi. Nik diskoak jarriko ditut eta Urtza Zuazo lan-kideak animazio lanak egingo ditu.

Nolako abestiak jarriko dituzue?

Estilo guztietakoak. Birritan zabalduko dugu diskoteka: 20:00etatik 21:30era eta 23:00etatik 01:30era. Iluntzean umeendako kantuak jarriko ditugu, txikiak dantzatzeko modukoak eta gauean, gazteak eta helduek dantza egiteko modukoak.

Euskal kantuak?

Ez denak. Euskal kantuak ere izango dira, bai, baina beste hizkuntza

"Iluntzeko saioa umeendako da eta gauekoa, helduendako"

batzuetan egindakoak ere entzungo dira. Estiloari buruz, mota guztietako estiloak jartzen ditugu.

Gero eta jende gutxiagok egiten ei du dantza plazan. Nabaritu duzue zuek hori?

Bai. Entzule gehienak gazteak dira eta gaur egun goek nahiago dute banku batean eserita egon eta noizean behin salto batzuk egin.

Aretxabaletako jaiak dituzue azkenak?

Azkenetakoak bai, behintzat. EAE osoan ibiltzen gara gu eta normalean herriko jaien egutegia izaten dugu. Neguan oso jai gutxi ospatzen dituzte; horixe izaten da sasoirik lasaiena guretzako. Baina Aretxabaletan gogoz egingo dugu lan.



Paco Sanchez taldeko kide batekin.

GOIENKARIA

Giro ona egoten da plazan?

Horixe da garrantzitsuena, giroa egotea. Ez dagoenean, sortu egin behar da.


Nola konbentzitu dugu aretxabaletar bat diskotekara joateko?

Aurten opariak eman go dizkiegu plazara joaten diren guztiei. Ilunetan

argia egiten duten makilatxo batzuk oparituko ditugu dantza egitera joaten direnei. Giro ona sortzea ere bada opari horren helburua. Ea lortzen dugun.

GRUPO **GEM** TALDEA

Zabalkunde haundiko enpresa, beti zure ondoan



Gipuzkoako kontseziarioen sare ofiziala

GIAUTO



ELGOIBAR · EIBAR · BERGARA · ARRASATE
OLABERRIA · ANOETA
Tel. 902 345 123 · www.giauto.es
clientes@giauto.es



EIBAR · OLABERRIA
Tel. 902 345 225 · www.red-chevrolet.com
clientes@giauto.es



BERGARA
Tel. 943 763 347 · www.giauto.redsaab.com
clientes@giauto.es

MENDAUTO



ELGOIBAR · DONOSTIA · IRUN
LASARTE · ARRASATE
TOLOSA · BEASAIN
Tel. 902 345 335
www.mendauto.com
hyundai@mendauto.com

KUAUTO



DONOSTIA · LASARTE
ELGOIBAR
Tel. 902 345 365
www.kuauto.net
kuauto@kuauto.net



EUSKOAUTO

PASAIA · ELGOIBAR
BERGARA · OLABERRIA
Tel. 902 345 245
www.euskoauto.toyota.es
toyota@euskoauto.com




Fino

Gizonezkoen
ile apaindegia

*Ondo pasau herriko
jaixak!*

Durana 19 • Aretxabaleta
Tel.: 666 264 886



Dantza *Umorea* *Anaitasuna* *Jolasa*
Atsedena *Kantua* *Parranda*
Alaitasuna *Ospakizuna* *Kalejira*

aretxabaletako

aralar

**Gora San Migelak
eta aupa Atxabaltoa!**

HERRI BAZKARIA

Biharko herri bazkarian 400 bat lagun espero dira

Bazkaldu ostean nagusiek abesti herrikoiak kantatuko dituzte eta umeez herri kirolean aritzeko aukera izango dute

MIRIAN BITERI

Herri bazkari arrunta baino gehiago da San Migeletan egiten dena. Bazkaldu eta gero, nagusiek abesti herrikoiak kantatuko dituzte eta haurrek herri kirolak egingo dituzte.

Aurreko urteetan izandako arrakasta ikusita, aurten ere herri bazkaria antolatzea erabaki du Presoen Aldeko Lagunak taldeak. Bihar izango da hori, Herriko Plazan, 14:30ean. Antolatzaileek 400 lagun inguru espero dituztela jakinarazi dute.

Bazkarira joaten direnek patatak txorizoarekin, oilaskoa entsaladarekin eta

goxua izango dute. Kafe eta koparrik ez da faltako.

Nagusiendako txartelek 15 euro balio dute eta 12 urte beherakoek, berriz, sei euro ordaindu behar dituzte. Herriko Orly, Urbaltz eta Gurea tabernetan egon dira salgai horiek.

KANTU HERRIKOIAK

Bazkarian zehar kantu herrikoien hitzak banatu dituzte antolatzaileek, bazkaldu ostean guztiendako ezagunak diren kantuak abestu ahal izateko. Donostia Kantuz taldearen laguntza izango dute horretarako abeslariak.

Errifak ere salduko dituzte bihar. Bazkaldu ostean jakingo da saria zeinek irabazi duen. Txerrikume bat eskuratuko du aurtengo irabazleak.



Giro ederra izan zen iaz Herriko Plazan egindako herri bazkarian.

GOIENKARIA

Herriko Plaza

**Zapatua
14:30**

Bazkaldu ostean Donostia Kantuz taldearekin abestiak kantatuko dituzte

Haurrek herri kirolean jardungo dute

Nagusiek abesten duten bitartean, haurrak beste kontu batzuekin dibertituko dira. Herri bazkarira joaten diren haurrek herri kirol mota ugari praktikatzeko aukera izango dute, Zurgai Herri Kirola taldearen eskutik.

Baserriko lanetan oinarritutako jokoak izango dituzte, hala nola trontza, harri-jasotzea, zakuak, sokatira, ingudea eta aizkolariak, besteak beste. Aspertzeko astirik ez dute izango.

Kimua

Loradenda

- Lore natural eta artifizialez egindako konposizioak
- Etxera eramateko zerbitzua
- Ezkontzak (elizen dekorazioa, ezkontzetarako lore sortak,...)
- Hilerrietarako lore koroak

ONDO PASAU SAN MIGELAK!



Araba ibilbidea 24 Aretxabaleta Tel.: 943 53 49 40

ARETXABALETAKO UDALAK SAN MIGEL JAI ZORIONTSUAK

OPA DIZKIZUE ARETXABALETAR GUZTIOI!



Aretxabaletako
Udala

AUKERAN DANTZA TALDEA

'Bideak' dantza ikuskizuna zapatuan Iturrigorrin

Hamargarren urteurrena ospatzen ari da Aukeran

EDU MENDIBIL

Donostiako Aukeran dantza taldeak *Bideak* ikuskizuna egingo du zapatuan, irailaren 28an, Iturrigorrin frontoian, 22:00etan. Azpeitian saritutako lana da *Bideak*.

Dagoeneko hamar urte egin ditu Aukeran dantza konpainiak; hain zuzen ere, urteurrena ospatzeko 10 urte izenburuko ikuskizuna estreinatu zuten ekainean, Lekeitian. Horrez

gain, *Sutargi* (1997), *Izena duen guztia* (2001) eta *Bideak* (2006) plazaratu dituzte. Aretxabaletara ekarriko duten lanak ikusleen saria jaso du aurtengo Azpeitiko antzerki topaketetan.

Edu Muruamendiaraz (Bergara, 1964) Aukeran taldeko dantzaria eta koreografoa dugu. Haren hitzetan, "kultura, musika eta koreografia mestizajea duen mundu batean bizi garela nabarmendu nahi izan dugu hasieratik. Horregatik, erritmo, melodia eta folklore tradizionalako elementuak dantza garaikidearekin bateratuz eta gure erritmoak eta urrutiko musika-erritmo ezagunak nahastuz, gure estiloa bilatu dugu".

Bideen eta bidegurutzeen inguruko hausnarketa da ikuskizuna

HERRIALDEEN TRUKEA
Bideak ikuskizunaren kasuan, bideen eta bidegurutzeen inguruko hausnarketa egiten dute, bai eta



laz estreinatu zuten *Bideak*. Taula gainean hamar bat lagun arituko dira.

GOIENKARIA

historian zehar herrialde ezberdinen artean izandako trukeaz ere. Horretarako, Europa iparraldeko doinuak bestelako erritmoekin (hirutar arabia-

rrak, darbukas, tar, kriskitinak, nay musika tresnak...) nahastu dituzte. "Bide metaforikoa da gurea, bizitzaren irudia eta historiaren igarotzea.

Hori irudikatu ahal izateko, sokak eta zintak erabiliko ditugu, eta horiek izango dira ikuskizunari lotura emango diotenak", dio Muruamendiarazek.

BASABE jatetxea

Basabe poligonoa Aretxabaleta
Tel.: 943 77 07 94

- Eguneko menua • Karta
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak

DOMEKETAN ITXITA (Enkarguak izan ezik)

SAN MIGEL ZORIONTSUAK IGARO!





Milesman Diodo laserra
Laserraren iraultza

Presta zaitez datorren udaberri-udarako.

Presta zaitez laser depilaziorako

- Besapeak
- Iztaiak
- Aurpegia (bibotea, patillak)
- Sorbalda
- Hankak
- Besoak

3-6 saiotan ilea desagertzea ziurtatzen du
Etorri eta informa zaitez konpromiso barik.

Gemes
estetika

Ilargi plaza 2 / Tel.: 943 79 99 18
ARETXABALETA



Mobiliario
ARENAZA
ALTZARIAK • DISEINUA

Jai zoriontsuak aretxabaletar guztioi!

Bizkai 1 ARETXABALETA Tel.: 943 79 08 07

XAKE TXAPELKETA

San Migeletako lehenengo xake txapelketa domekan

Herriko Plazako arkupeetan jokatuko dute Aretxabaletako xake taldeak antolatutako txapelketa

XABIER URTZELAI

Urtean zehar hainbat txapelketa egiten badituzte ere, lehenengo aldiz egingo dute San Migeletako txapelketa. Gura duenak eman dezake izena, baina gazteei zuzendutako txapelketa da.

Lehenengo ohiturei eutsi guran antolatu dute Aretxabale-tako xake taldekoek San Migeletako lehia: "Lehen, Portasoleko jaietan egiten genuen horrelako txapelketa bat, eta orduan gazteek hartzen zuten esku. Eta, orain ere hori da gure asmoa, txapelketa hau zerotik hasi eta herriko gazteak joka-

tzera animatzea", esan digu txapelketako antolatzailerak Aitor Alkaidek. Edozelan ere, edonork eman ahal izango du izena txapelketan: "Ez dugu mugarik ipiniko".

XAKEA BULTZATZEKO

Izan ere, txapelketa hori baliatu gura dute herriko gazteen artean xakea sustatzeko: "Bultzada ematea da asmoa, eta aurrerago, gazteendako eskolak antolatu gurako genituzke, gure lokala gazteei ere irekitzea. Baina zehazteko daukagun ideia da hori".

Hala, domekan xake partida normalak jokatuko dituzte: "Askok ez dute erlojuaren kontra jokatzen jakingo; horrenbestez, partidak asko luzatzen ez diren bitartean, ez dugu mugarik jarriko".



Aretxabale-tako xake txapelketako iazko erretratu; domekan arkupeetan jokatuko dute.

GOIENKARIA

Herriko Plaza

**Domeka
16:00etan**

San Migeletako lehenengo xake txapelketa egingo dute Herriko Plazan

25. mus txapelketa, domekan

Xake txapelketarekin batera, muslariek ere hitzordua izango dute domeka arratsaldean Herriko Plazan.

16:00etan hasiko dute txapelketa, eta antolatzailerak 40 bikote inguruk parte hartuko dutela aurreikusten dute: "Gutxi gorabehera Andramaietako txapelketan moduan", esan digute Udaletik. Bikoteko 20 euro ordaindu beharko dira, eta batutako dirua sarietan banatzeko izango da.



BARRUKO ETA KANPOKO LORATEGIAK ZAINDU ETA SORTZEN DITUGU

UREZTATZE-SISTEMA AUTOMATIKOAK INSTALATZEN DITUGU

Basabe poligonoa D-2-1. T/F: 943 79 78 45 / 616 96 57 98. 117 posta kutxa ARETXABALETA

Ondo ibili San Migeletan!





Album digitalak, ezkontzak, bataioak, moda, industrialia, jaunartzeak, ...

Ondo pasa San Migelak!!!

Begira
argazkilaritza



Ilargi plaza 1, Aretxabaleta tlf: 943 53 49 45



J.J. ITURGIINTZA
IRURE



• URA • GASA • KALEFAKZIOA

Mitarte 15 ARETXABALETA
Tel. / Faxe: 943 79 31 87

**ONDO IBILI
SAN MIGELETAN!!!**

HERRIKO ABESBATZEN SAIOA

Doinu herrikoia eta alaiak agurtuko dituzte jaiak

Txalapartariak, Leizarra Musika Eskolako abesbatza, nagusien dantza taldea eta Aretxabaletako abesbatza arituko dira

Iturrigorri frontoia

**Domeka, 30
19:00etan**

Leizarra Musika
Eskolaren eta
Aretxabaletako abes-
batzaren kontzertua

ARANTZAZU EZKIBEL

San Migel jaiak agurtzeko modu ezin hobe izango da: Iturrigorri frontoian, musika alaiak eta kanta ezagunak eskainiko dituzte.

Musika izango da protagonista San Migel jaietako azken egunean. Domekan, arratsaldeko zazpietan eskainiko dute San Migelen kontzertua; hain zuzen ere, txalapartariak, Leizarra Musika Eskola, dantzariak eta Aretxabaletako abesbatza arituko dira.

TXALAPARTARIAK

Iturrigorri frontoian izango da kontzertua eta sarre-

ra doakoa izango da. Ikusleei ongiatorria egiteko, Aitor Ziardegi eta Oier Sarasua txalapartariak arituko dira.

Ondoren, Leizarra Gazta abesbatzakoek hartuko dute lekukoa. Idoia Azurmendiren zuzendaritzapean bi abesti eskainiko dituzte: *Sailing* doinu amerikarra eta Imanolen *Mendian gora* abesti ezaguna.

Gero, abesbatzakoek Gero, abesbatzakoek Gero, abesbatzakoek hartuko dute lekua; nagusien dantza taldeak, hain zuzen. *Laguardiako jota* eta *Axuri Beltza* dantzatuko dituzte. Aitor Villarreak zuzentzen dituen dantzariak giro ezin hobe jarriko dute. Hala, azken taldearen txanda iritsiko da.

Aretxabaletako abesbatzak erreperitorio zabal eskainiko du. Lehenengo zatian, euskal kantuek abestuko dituzte: *Goizeko izarra*, *Ikusten dezu*, *Lertxundiren Erribera* eta *Kai-ku*; bigarren zatian, berriz, *La Misión*, *Las Mañanitas* eta halako abesti ezagunak entzungo dira Iturrigorrin.

Aretxabaletako abesbatzak erreperitorio zabal eskainiko du. Lehenengo zatian, euskal kantuek abestuko dituzte: *Goizeko izarra*, *Ikusten dezu*, *Lertxundiren Erribera* eta *Kai-ku*; bigarren zatian, berriz, *La Misión*, *Las Mañanitas* eta halako abesti ezagunak entzungo dira Iturrigorrin.

70 PERTSONA INGURU

Kontzertuan 70 pertsona inguruk hartuko dute parte. Bestalde, ikusleei abesti guztien letrak banatuko dizkiete; horrenbestez, abesteko aukera izango dute.

Ikusleei abesti guztien letrak banatuko dizkiete kontzertuan



Aretxabaleko abesbatzako kideak.

GOIENKARIA



Aretxabaletako EAJ/PNV-k

jai zoriontsuak opa dizkizue aretxabaletar guztioi!



Kilima

ume eta haurdunendako arropak



Ilargi plaza 6 Aretxabaleta
Tel.: 943 53 34 96

Ondo pasau San Migeletan!

Aretxabaletan zure
etxe agentzia berria...



... bidegorri berrian paseoa egin eta bisita gaitzazu Beroa eraikinean.

ondo pasau San Migelak!



Irabalbarri Plaza 10, behea 20550 Aretxabaleta Tel: 943 532 830 Fax 943 534 987



www.amaralekua.com

etxebizitzaren erosketa eta salmenta - promozioak - gestioak - alokairuak - finantzaketa eta aholkularitza teknikoak - tasatzeak
eraikuntzak - eraikin berritzeak - arkitektura proiektuak - barne diseinua - obren zuzendaritza - urbanizazioak - aurrekontuak



INTIMA CHERRY



T. LeClerc
PARIS • 1881



Zippo
BAGS AND MORE



francesco biasia

Lurrindegia • Opariak • Lentzeria

Mitarte, 18
Tfnoa.: 943 79 38 59
20 550 Aretxabaleta



RS Ramon
Santaularia



**Aurrez
prestatutako
jakiak**

**San Migel jai zoriontsuak
opa dizkizuegu aretxabaletar guztioi!!!**

Aretxabaleta Tel.: 943 770612
gertujanariak@euskalnet.net
www.goiena.net/blogak/gertu

nire bidaia hura

Xabi Mondragon

Europar zehar ibili zen bizikletan > 2007ko abuztuan

"Ez dago zertan Migel Indurain bat izan oporrrak bizikleta gainean emateko"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Xabi Mondragonek bizikleta gainean eman ditu aurtengo oporrrak. Beste bi lagunekin batera Veneziatik irten eta Atenaseraino joan zen bergararra. Tartean, Kroazia, Montenegro eta Albanian ibili zen. Hondartzan hilabete eguzkipean egon ezin den edonori gomendatuko lioke Mondragonek bidaia hori.

Uztailaren 24an irten zen Bergararik Xabi Mondragon, Jurgi Lazkano eta Aitor Soltilekin batera. Hiru lagunek hilabeteko oporrrak zituztenez, alforjak ondo bete eta bidaia bizikletan egitea pentsatu zuten. "Nola joango ginen erabakita, nora joatea erabakitzea bakarrik falta zitzaigun", azaldu du Mondragonek. Kostu txikiko enpresa baten bidez, Madril eta Venezia lotzen dituen hegaldia hartu zuten. Buelta, berriz, Atenastik egitea adostu zuten.

Lehenengo eguna Venezian eman zuten bergararrek, hango bazterrak ikusten. Bigarrenegun, bizikletara igo eta Kroaziarantz abiatu ziren. "Hasieran zaila ikusten genuen Atenasera bizikletaz heltzea, tartean tren edo autobusik hartu gabe, eta asmoa Kroaziako Dubrovnik hirira heltzea izan zen", aipatu du Mondragonek. Hara iristean, hala ere, indarrez oso ondo zihoazela ikusita "deskantsu egun bat hartu eta bizikletan jarraitu zuten.

ALBANIARAKO EGOERA ESKASA

Handik Montenegro sartzu ziren eta egun eta erdi geroago, Albaniara. "Hain denbora laburrean Kroaziako kostalde turistikotik Albaniara sartzeko askotxo hunkitu gintuen". Azken herrialde horren egoera eskasarekin harriritu geratu ziren bergararrek. "Zaila da ulertzea Albania moduko herrialde baten egoera eta muga bat pasatuta nola aldatzen den bizimodua".


Behin Albaniatik irtenda, Grezian sartu ziren. Atenasera iristea posible zela ikusi zuten



Ezkerretik hasita, Aitor Sotil, Jurgi Lazkano eta Xabier Mondragon. Erretratua Dubrovnik hirirako bidean aterata dago.

orduan. "Egunak soberan geneuzkanez, lasaiago hartu genuen bidaia, eguneko kilometro gutxiago egin eta arratsaldeak bazterrak bisitatzeke erabili", gaineratu du Mondragonek.

Atenasen sartzea "nahiko kaotikoa eta arriskutsua" izan zela esan du, zirkulazioa zela-eta. Baina kanpinera heldu orduko, bizi-



Irudian, Xabi Mondragon.

kletak alde batera laga eta gertzen ziren lau egunetan hiria ezagutu zuten. Han pasatako beroa gogoratzen du oraindik. "Eguna botata pasatzeko gogoia sartzen zitzaigun", dio. Horixe izan da bidaiatik gutxien gustatu zaiona.

Kroazia eta Albaniako kostaldea, bestalde, gustuko izan ditu bergararrek, Greziako Nafpaktos,

"Zaila da ulertzea Albania moduko herrialde baten egoera eta muga pasatuta nola aldatzen den bizimodua"

"Atenasen sartzea nahiko kaotikoa eta arriskutsua izan zen, zirkulazioa zela-eta"

Delphi eta Atenasekin batera. Bidaian zehar jende ezberdina ezagutu dute eta albaniarrekin harriritu geratu dira. "Hasieran oso serioak direla ematen du, baina, behin tratuan hasita, oso jende jatorra eta umila da. Hizkuntza arazoak izanda ere, beti topatzen genuen elkar ulertzeko modua", dio Mondragonek.

Bizikleta gainean egindako beste bidaia bat gustura egingo lukeela ere aipatu du. Bergarararen ustez, "edonork planteatu ahal ditu" horrelako opor batzuk. "Eguneko etapak norberaren egoerara baino ez dira egokitu behar. Ez dago zertan Indurain bat izan alforjak trastez bete eta oporrrak bizikleta gainean emateko", esan du.

Horrez gain, hondartzan hilabete eguzkipean egon ezin den bat gustura ibiliko litzatekeela ere azpimarratu du Mondragonek.

bere ustez



Andres Osa

Aharia, zezenak eta lotsagabeak

Txikiari beti egurra. Indar-tsuari beti errespetua eta amen. Honen harira, Iurretan, Bizkaian, San Migel jaietan egin behar zen eta egingo ez den kasua dakargu orain-goan.

Iurretan ohitura da, ahari jokoak jartzea jaietako programan. Baina Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Aldundiaren eta ekologisten presiopean Udalak debekatu egin du, Animalien Babesa dekretuan oinarrituta.

Begira, aharia plazan berdin mendian, elkarrekin tope-

"Aharia plazan berdin mendian, elkarrekin topeka ariko dira. Gauza naturala da hori"

ka ariko dira. Gauza naturala da hori. Plazan, jendaurrean lehia bezala jartzea zerbait desberdina dela, bale. Hortik debekua ezartzea astakeri demasa.

Zer da krudelagoa, plazan aharia topeka ikustea ala zezen plazan zezenak toreatu, engainatu, batean banderila, bestean errematatzeke ezpata erabiliz milaka ikusleen aurrean ikuskizun bihurtzea? Eta gu geu, ez gaude zezenketaren aurka.

Baina konparazioak egin egin behar dira, erakundeen eta agintarien zurikeria eta lotsagabekeria agerian jartzeko. Eta boxeo eta abar. Kasu hauetan Jaurlaritzak, Aldundia eta Udala mutu izaten dira. Batean dirua eta indarra dago, bestean jai antolatzaile pobreak.

- Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin
- Puntuak berreskuratzeko aukera

Gaunditu **motorraren** azterketa teorikoa **16** urte bete aurretik!
Eta **autoarena** **18** urte bete aurretik!


943 76 16 63 BERGARA



Hizkuntzak ikasiko dituzu, hitza

ingelese - frantsesa - alemana - euskara - txinera - italiera

Maila guztiak eta malgutasuna ordutegietan

 **Cambridge Unibertsitateko**
azterketak gure zentroan

Sistemak:

- Aurrez aurrekoa
- Blended (On Line + Aurrez aurrekoa)

Balio erantsiko zerbitzuak:

- Mediateka, mailegu zerbitzuarekin
- Extranet, materiala on line duten bezeroentzat
- Lingua Maila-ak astero (ingelesezko ikasgai txikiak)
- Astero txatetan parte hartzea
- Hilero kalitate oneko sariak banatzen dituzten hizkuntza lehiaketetan parte hartzea
- Ikasleen jarraipen pertsonalizatua
- Batez besteko ikasle kopuru txikia
- Ordenagailu eta internet gela

Klaseak:

Arrasaten, Oñatin, Aretxabaletan, Aramaion, Eskoriatzan

matrikula epea zabalik



Arrasate
Araba Etorbidea 4
Tel.: 943 71 20 55


Donostia-San Sebastián
Zubieta 26
Tel.: 943 43 31 02

Vitoria-Gasteiz
Florida 8A
Tel.: 945 15 01 55

Oñati
Olakua 14
Tel.: 943 71 60 00

Bilbao
Buenos Aires 7
Tel.: 946 61 34 67

www.mondragonlingua.com



Zenbaki Aholkulariak



• Juridikoa:

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

• Laborala:

- Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioa, ...

• Fiskala:

- Etxebizitzaren salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...

• Kontabilidadea:

- Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

SAN MIGEL JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA

Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

zenbaki@zenbaki.es www.zenbaki.es

UDALA > OHIKO OSOKO BILKURA

Serbitzu enpresak jarraituko du herria garbitzen datozen zortzi urteotan

'Atxabaltarron erabakia errespetatu' kartela erakutsi zuten EAEko kideek, eta bukatutakoan esan zuten zinegotzien eskubide guztiak izateko modua badagoela

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak astelehenean. Ohiko lehenengoa izan zen, eta ekainean kargua hartu zuten zinegotzi guztiak elkartu ziren, hamar. EAEko kide batzuk ere izan ziren, *Atxabaltarron erabakia errespetatu* zioen kartelarekin.

ANTXIA, AUZOETAKO ZINEGOTZI

Leintz Udal Euskaltegia joango diren udalbatzako ordezkariak aukeratu zituzten lehenengo: Inaxio Garro alkatea eta Lore Martinez eta Edorta Mendieta EAKo zinegotziak. Auzoetako



UDALBATZA Astelehenean egin zuten ohiko osoko bilkuran kargua hartutako zinegotzi guztiak elkartu ziren.

M.A.

zinegotzi, oster, Joxe Anjel Antxia proposatu zuten. Hautaketak onartzeko bozketa eginda-koan, Aralar eta EAKo zinego-

tziak alde azaldu ziren, bost; eta EAJkoek, PSE-EEkoek eta Ezker Batukoak abstentzioaren alde egin zuten, beste bost.

Herriko kaleak hurrengo zortzi urteotan zeinek garbituko dituen ere erabaki zuten. Enpresa bi aurkeztu ziren lehiaketara:

Cespa eta orain dagoen Serbitzu. Eskaintza ekonomikoa, zerbitzuaren ezaugarriak eta beste zehaztasun batzuk hartu dituzte kontuan erabakia hartzeko, eta Serbitzuri ematea erabaki zuten.

ARALARREN ERABAKIAREN ZAIN

Legez kanpo utzi zuten Eusko Abertzale Ekintzako kideek jakinarazi zuten osoko bilkura bukatutakoan, Aralar alderdiak hartuko duen erabakiaren zain daudela. "Gure ordezkariak zinegotzien eskubide guztiak izan ditzaten Udalean badago aukera, eta horren zain gaude", adierazi zuen Josu Atxagak, eta gaineratu zuen: "Hainbat bilera egin ditugu hauteskunde ostetik hona, eta, gai batzuek aurrera egin badute ere, lau urterako programaketak esaterako, zinegotziak Udalean sartzeko kontua oso motel doa".

Aralarrek erabakia har dezan gura dute Eusko Abertzale Ekintzako kideek, eta epea jarri zuten horretarako; gaur, irailaren 28a, da egun hori.

JAIK > SAN MIGELAK

Azoka, herri kirolak, dantzak eta kontzertua San Migel jaietan

Berrikuntzen artean xake txapelketa dago, erraldoi eta buruhandiak hiru egunetan eta Aukeran dantza taldeak eskainiko duen 'Bideak' ikuskizuna

M.A. > ARETXABALETAKO

Gaur hasi eta domeka ilunkarara bitartean ospatuko ditugu San Migel jaiak. Egitarau borobila antolatuko du Udaleko Jai batzordeak.

Buruhandiak eta eusko diskoteka izango dira gaur arratsaldean ume eta gazteen gozagarri. Bihar goizean, XIII. produktu biologiko-

en azoka eta artisau feria izango dira Durana kalean, eta trikilitariak, txalapartariak eta Etxarriko zantzarrek girotuko dituzte kaleak. Eguerdian herri bazkaria egingo dute, Herriko Plazan, eta bazkalostean, Donostia Kantuz taldea eta Zurgaila herri kirolak izango dira. 22:00etan, Aukeran dantza

taldeak *Bideak* ikuskizuna eskainiko du Iturrigorri frontoian. Domeka goizean herri kirolak izango dira plazan, eta 16:00etan mus eta xake txapelketak. Iruñeko erraldoien konpartsak girotuko du arratsaldea eta 19:00etan kontzertua eskainiko dute abesbatzak eta musika eskolako kideek.



LARRIN DANTZA Zapatuan, 19:00etan, dantzatuko dute Durana kalean.

M.A.

GARBITU KOOP. ELK.

*Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
Obra bukaerako garbiketak
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
Kristalen garbiketak*

Errekabarren 3- Behea ARETXABALETAKO
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 606 665 448

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta odolosteak

Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

bere ustez



Irati Pagoaga

Bazan behin
Atxabalta
herrixen...

Behin baten, Atxabalta izeneko herri baten, hauteskundiek burutu zituen. Hauteskunde honek berezixek izen zien, alderdi danak ez zien modu berien aurkeztu. Aurkeztu zien alderdi danen artetik bat jokuz kanpo geratu zan, Espainako gobernuak hala gure izen euelako. EAE-ANV zan alderdi honen izena.

Hauteskunde egune izen zanien, nahiz eta legalidadarik ez euki, herrixen presente egon zan. Zorionez gainera, lehenengo inderra berau izen zan,

"Ez zan EAE-ANVko alkaterik ezauketako aukerarik egon, ezta zinegotzirik be"

839 herritarrek emun eutzen baiezkue ekipa barrixai.

Handik aste pare batera udal barrixe osatu zan, eta orduan ez zan EAE-ANVko alkaterik ezauketako aukerarik egon, ezta zinegotzirik be. Numbait honeik ardi baltzak zien artalde zurixen aurrien. Herritarrak saiatu zien hitzarmen moduko bat lortzen, baina ezer! Ondio ezta ezer agertu.

Ia hamendik aurrera ipuin moduko honen akaberia aldatetan dan, eta EAE-ANVko gizon emakumiek be dagokixen lekue eukiten dauien danona dan etxien.

Eta hau kontuau hala bazan edo ez bazan, sartu daixela kalabazan eta urten daixela Atxabaltako plazan!

Ondo pasau San Migeletan eta agur bat urrineko txokuetan dazenei!

Aitor Alcaide, Esteban Romero eta Fran eta Andoni Miguel > Xake jokalariai

"Eskola kirolaren barruan sartu eta xakean zelan jokatzeko den erakutsi gura dugu ikastetxeetan"

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Hasi du denboraldia Arlutz Xake Taldeak eta proiektu berriak abian jartzeko asmoarekin dator. Xakearen zirrara eroan gura diete ikastetxe-etako gaztetxeoi.

Txapelketekin hasi duzue denboraldia?

Bai, Arrasateko xake txapelketa jokatzeko gabilta irailaren 14an hasita. Egubakoitzetan dira partidak eta urriaren 19an bukatuko dugu. Gero, hilabete bi barru Gipuzkoako banakako txapelketa hasiko dugu, eta urtarrilean Euskal Liga.

Jakin dugu Franek tituluren bat eskuratu duela.

Bai, hala da. Xake jokalariek osatzen duten zerrendan 2.300 puntura iritsi da eta *Fide maisua* izeneko titulua eskuratu du; erdi-profesional antzeko zerbait esan gura du. Debagoienean mailarik gorena duena izango da, eta Euskal Herrian zazpi daude; horren gainetik daude nazioarteko maisuak, beste zazpi, eta maisu handiak, lau.

Eta proiektu berriekin zatorzte, gainera...

Bai, eskoletan eskaini gura dugu xakea, eskaera dago-eta. Eskola kirolaren barruan sartu gura dugu, egutegia zehaztutakoan jakinaraziko diegu ikasleei.

Zein da adinik egokiena xakean jokatzeko hasteko?

10 urte, uste dugu. Ez da ezer behar, gogoia bakarrik, eta xakea ezagutzen hasi ahala gehiago gozatzen da.

Ez da argia izan behar?

Ez, ez da futboleko moduan onek bakarrik egiten dutela aurrera. Edonork joka dezake, eta, gainera, entrenatuz gero—beste batzuen partidak ikusita, liburuak edo Internet erabilita...—asko hobe daiteke norberaren jokoa. Guk, esaterako, programak eta datu baseak erabiltzen



A. Alcaide, E. Romero eta Miguel anaiak eguztareneko entrenamendu saioan. M.A.

"Edonork joka dezake xakean eta entrenatuz gero asko hobetu daiteke jokoa"

"Eguazten gauetan elkartzeko gara orain, baina laster ordutegi zabalagoa izango dugu"

"Gazteendako xake txapelketa jokatu dugu domekan"

ditugu txapelketak gertatzeko. Munduko edozein bazterretan jokatzeko partidak jasotzen dituen datu basea dago Interneten—gure partidak ere badaude—, eta bertatik ikasten dugu. Eta bakarrik jokatzeko aukera ere badago, www.buho21.com helbide elektronikoa.

Eta merkea da, gainera.

Bai, horixe, eta Aretxabaletan behar den guztia daukagu: tokia jokatzeko eta materiala.

Edonorendako duzue zabalik lokala?

Bai. Orain eguztaren gauetan bakarrik elkartzeko gara entrenatzeko, baina laster ordutegi zabalagoa eskainiko dugu eta eskolatan hasitako saioek gure txokoa izango dute jarraipena.

Eta San Migel jaietarako xake txapelketa antolatu duzue.

Bai, domekan izango da, 16:00etan, eta jokalariek 15:45erako etorri behar dute Herriko Plazara. Batez ere gazteei zuzenduta dago txapelketa, baina zabalik uzten dugu. Ez dakigu zenbat agertuko diren, baina denok elkarren aurka jokatu dugu. Sariak jasoko dituzte onenek eta oroigarria gainerako guztiek.

> PREBENTZIOA

Borondatezko alkohol probak egingo dituzte bihar

Bihar, San Migel eguna, borondatezko alkohol probak egingo dituzte Mitarte kalean. 00:00etatik 03:00etara bitartean egongo dira Sasoia enpresako kideak argibideak eman eta alkohol probak egiten. Baiezkoa edo ezezkoa adierazten duen alkoholimetroa oparitutako dute, gainera.

Prebentzio Sailak antolatu du ekimena eta helburua da alkoholak sortzen dituen osasun arazoak eta zirkulazio istripuak gutxitzea.

> ERRETIRATUAK

Erretiratuen Eguneko bazkarirako txartelak salgai udaletxean

Urriaren 6an, zapatua, ospatuko dute Erretiratuen Eguna gurean, Udalak antolatuta. Kirol etxean egingo duten bazkarirako txartelak Basotxo erretiratuen elkartearen saldu dituzte aste guztian; hala ere, badago oraindik eskuratzeko aukerarik. Udaletxean dauzkate, Gizarte Zerbitzuen Sailean, eta datorren astelehen eta martitzenean eskura daitezke 10 euro ordainduta.

> GAZTEAK

Batzarra egingo dute gaztelekura doazen gazteen gurasoekin

Joan zen aste bukaeran zabaldu zituen ateak Atxagazte gaztelekuak. 12 eta 16 urte bitarteko gazteen topagunea da Irilabarri plazan dagoen egoitza, eta ekitaldi ugari antolatzen dituzte. Horren guztiaren berri eman eta ikasturtea aurkezteko bilera egingo dute gazteen gurasoekin, datorren urriaren 1ean, astelehenean, 18:00etan. Hala, bertatik bertara jakingo dute gurasoek non egoten diren euren seme-alabak.

> ZERBITZUAK

Eguaztenean inauguratu zuten La Caixa banketxea

Hilaren 17an zabaldu zuten La Caixa banketxea Aretxabaletan. Errekabarren kalean du egoitza, eta eguztaren, hilaren 26an, inauguratu zuten. Alkatea izan zen gonbidatuen artean, eta La Caixako Euskadiko arduraduna eta Gipuzkoako arduraduna izan zituen alboan bertako zuzendariak, Ibon Agirre aretxabaletarrak. Hain zuzen ere, mokadutxoak janda eta musika entzunda bukatu zuten ekitaldia.

PIENSOS
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA

Tel.943 77 00 33/79 42 56



LEHEN HARRIA Lehen harria ipini aurretiko lanak prestatzen.

GOIENKARIA

SAN MIGEL JAIAK

Herriko jai nagusiei hasiera emango zaie

Txantxikuaren jaitsierak eta txupinazoak emago die jaiei hasiera

M.A. >OÑATI

Gaur, egubakoitza, emango zaie herriko jai nagusiei hasiera Txantxikuaren jaitsiera eta txupinazoarekin, 20:00etan txosnagunean. Ondoren, Foruen plazan Haitzama taldearekin dantzaldia izango da. 23:00etan herriko kaleetan zehar danborrada nagusia egingo dute Udal Bandarekin.

Zapatuan, 10:00etan herri mailako plater tiroketa Txopekuan; 12:00etan haur parkea Etxaluzen; euria egingo balu kiroldegian izango da. 13:00etan Udal Bandaren kontzertua plazan; 19:00etan Niño Costriniren ikuskizuna; eta 22:00etan rock kontzertua txosnetan; 23:00etan, berriz, *Argi Beltza* kontzertua eskainiko dute Ganbara abesbatzak, Tirri-Tarra fanfarreak eta Sotto Voce Orkestrak.

Domekan ere ekintza ugari izango dira. Goizetik eguerdira bitartean, besteak beste, poney, bigantxa eta sokamuturra; 13:00etan Voces Navarras jota taldearen kontzertua; 17:00etan Igor Etxaniz *Kinttela* zaldi hezitzailearen erakustaldia plazan; 18:00ak bitartean, berriz, auto klasi-koen erakusketa ikusteko aukera ere izango da Herriko Plazan; 18:00etan kapoeira erakustaldia egingo dute Sensala taldekoek Kalegoieneko plazatzon.

Guztira 306 etxebizitza eraikiko dituzte: 196 babes ofizialekoak, 11 tasatuak eta 99 promozio librekoak; lanak bi fasetan banatuko dira

ERAIKUNTZA > SAN MARTINGO ETXEBIZITZAK

San Martin aldeko etxebizitzaren eraikuntza lanak hastear daude

M.A. > OÑATI

San Martin aldeko etxebizitzaren proiektua hasiera da. Atzo, eguna, ipini zuten lehen harria, eta urrian bertan hasiko dira lanekin. Guztira 306 etxebizitza eraikiko dituzte: 196 babes ofizialekoak, 11 tasatuak eta 99 promozio librekoak. Horiek guztiak 18 bloketan banatuta. Proiektuan lanean

ibiliko diren eragileak Sanmartinberri eta Sanmartinalde-Italde izango dira. Proiektuaren %70 egongo da Sanmartinberriren esku eta gainontzeko %30a Sanmartinalde-Italderen baitan. Lehenengo fasea oraintxe hasiko da eta Sanmartinberri enpresak egingo ditu lanak. Etxebizitzak pribatuak eta publikoak izango dira baina

adjudikazio lanak udalak egingo ditu Etxebideko zerrendez baliatuz.

LEHEN FASEKO LANAK

Lehenengo fase honetan egingo dira 45 babestutako etxebizitza eta promozio libreko 32. Babes ofizialeko 45 etxebizitza horiek hiru bloketan banatuko dira, eta, beraz, bloke bakoitzak 15 etxebizitza izango ditu.

Promozio librekoak, ostera, 32 etxebizitza izango dira, eta, bi bloketan banatuta egongo direnez, bloke bakoitzak 16 bizitegi izango ditu.

Lehen fasean, guztira, babes ofizialeko etxeak eta promozio librekoak kontuan hartuta, 77 etxebizitza egingo dira. Horieta-rik 45, babes ofizialekoak direnak hain zuzen ere, urtea bukatu baino lehen zozketatuko dituzte.

San Lorentzoko biribilguneko lanak aurrera doaz

Biribilgunea ETEO ondoan egiten ari dira; Ugarkaldeko etxe berrietarako sarrera eta San Lorentzo auzoko zirkulazioa erregulatzeko. Lanok irauten duten bitartean errepidea itxita egongo da. Bestalde, bertan dagoen 23 urteko gereziendoa ez dute kenduko, auzoko gazte natura zaleek eskutitz bidez eginiko eskaera errespetatuz.



M.A.

> LELO LEHIAKETA

Aukeratu du Laixanek aurtengo jaietako esaldia

*Txantxikua uretan eta euskaria agueta*n, horixe da lelo irabazlea. Esaldia Nagore Aranburuk eta haren koadrila gazteak asmatutakoa da. 22 urteko neska gazte koadrilak jai giroan asmatu zuen leloa.

Nagore Aranburuk GOIENKARIAri kontatu dionez, jaietan gastatuko dute irabazi dituzten 60 euroak. Gazte talde oñatiarrak esperientzia dauka, gainera, esaldi lehiaketan. Izan ere, iaz, koadrila berak irabazi zuen.

Aurtengo pegatinaren diseinua Artemanek egin du, komunikazioan eta diseinuan aditua den taldeak.

OSOKO BILKURA > AHT ETA BIDEGORRIEN PROIEKTUEN PLANAK AZTERGAI

Udalak Bidegirekin elkarrizketak berriz hasi dituela jakinarazi du

Abuztuan AHTren proiektuari egindako alegazioak berrestean gain, proiektu horri aurkakotasuna agertzea erabaki zuen Udalak

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Herenegun, eguaztena, ohiko osoko bilkura egin zuten Udalean. Hainbat gai izan zituzten berba-gai osoko bilkura aretoan.

Esanguratsuenetako bat izan zen Udalak Bidegirekin elkarrizketak berriz hasi dituela autobidearen gaineko arazoak aztertzeko. Horrekin lotuta, EAE-ANV taldearen asmoa da Udaleko azpiegituren gaineko batzordea berriz abian jartzea.

Azpiegiturekin jarraituta, abuztuan, Udaleko bozeramaileen batzordeak AHTren proiektua-



BIDEGORRI PLANA Udal ordezkariak desegokitzen hartu dute bidegorri planaren iradokizun epea abuztuan izatea.

I.B.

ri jarritako alegazioak berrestea erabaki zuten. Arrazoia da abuztuan ez zela osoko bilkurarik izan, eta, hala, gurago izan dute

orduan erabakitakoa berrestea. Horrez gain, osoko bilkurak AHTren proiektuarekiko kontrakotasuna onartu zuen. ANVk,

EB-Aralarrek eta Elizateak Taldeak babestu zuten asmo hori. PSE-EE, EAJ eta EA, berriz, AHTren alde agertu ziren.

Abiadura Handiko Trenaren proiektuarekin moduan, bidegorrien sarearen planari egin beharreko iradokizunen epea abuztuan izan zen. Hori salatu gura izan zuen ANV-EAE taldeak. Puntu horren gainean eztabaida piztu zen EAJ eta EAEko ordezkarien artean. Azkenean, baina, alderdi guztiek salaketa egitearen alde agertu ziren. Dena dela, bidegorrien arduradunari bidali beharreko gutuna batzordean egitea adostu zuten.

KIROL ZERBITZUAK KONTRATATU

Beste gai askoren artean, kirol zerbitzuak kontratatzeke trami-te eta baldintzak izan zituzten berba-gai. Kultura batzordeko arduradunak jakinarazi zuen zerbitzua emango lukeen enpresaren eskaintza aztertzeke denbora laburregia izan dutela.

Hala, batzordean gai hori hobeto landu eta, seguruenik, epe ertainean egingo duten ezohiko osoko bilkura baten hartu beharko dute erabakia.

LEHIAKETA > POSTAL LEHIAKETA

Postalaren lehiaketak baditu irabazleak

Jon, Itziar, Lier eta Oihanak osatutako laukoteak irabazi du afari bat herriko jatetxe baten

I.B. > ESKORIATZA

Aitzorrotz kultura elkarteak aurtengo laugarren aldiz antolatu du postal lehiaketa. Urterik urte eskoriatzar eta kanpotar gehiago gogoratzen dira Inkernu tabernako helbidera postalak bidaltzeaz. Aurtengo 45 jaso dituzte.

Hala, astean zozketa egin dute eta irabazleak Jon, Itziar, Lier eta Oihana dira. Laukote horrek afa-

ri bat irabazi du herriko jatetxe baten. Koadrila horrek urtero bidaltzen ditu postalak, eta aurtengoa Llanesen sartu zuten postontzian.

MUNDU OSOTIK

Aurtengo jasotako postalak Australiatik, Mexikotik, Europa ekialdetik eta Espainiako hainbat batzurretatik jaso dituzte.




IRABAZLEETAKO BI Argazkian, Jon eta Itziar laukote irabazleko bi kide saria jaso zutenean.

AITZORROTZ

LENIZ
ESKORIATZA



- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa



IRUDIA Bideko Ama Birjinaren irudia jarri zuten 1954an.

ESKORIATZAKO UDALA

ELIZA > ON KRUZ ABARRATEGIEN HERIOTZA

Bolibarko abade 61 urtez izandakoari agurra

Arrasto handia utzi du Bolibarren eta herrian abade geldiezin horrek

zuten. Horren aurretik, baina, gerra garaian soldadutza egin behar izan zuen Logroñon.

HIRU HILABETZ ZIGOITIAN

Apaiztu eta denbora laburrera Zigoitian (Araba) ibili zen abade lanetan, baina hiru hilabete eta hiru egun besterik ez zuten egin han. Horren ostean, Bolibarrera bidali zuten. Sasoi hartan elizate bakoitzak bere parrokoa zuen. 61 urte egin ditu zeregin horretan, hil den arte. Horrez gain, 25 bat urteotan Apotzagako elizaren ardura ere izan zuen.

Lan handia egin zuen ondarea berreskuratzen; eta zeresan handia izan zuen Aitzorrotzen egindako aurkikuntzan. Harreman onak zituen Donostian eta Madrilen, eta horri esker hainbat herritarrek ez zuten soldadutzarik egin.

I.B. > ESKORIATZA

Joan den astean hil zen On Kruz Abarrategi, 61 urteotan Bolibarko abadea izan dena. Haren aldeko bi hileta-elizkizun egin dituzte asteburuan: bata, nagusia, San Pedro parrokian. Gipuzkoako gotzain Juan Maria Uriartek eta beste 23 apaizek esan zuten meza; eta bestea, domekan, Bolibarko San Miguel parrokian.

On Kruz Abarrategi Soraluzen jaio zen 1917an, baina ama Apotzagakoa zuen eta aita arrasatearra. 11 urterekin Saturrango seminarioan sartu zen, eta 1942an Gasteizen apaiztu

> IKASTAROAK

Sukaldaritza biziraupen ikastaroa antolatu du Gazteria Zerbitzuak 18 urtetik gorakoendako

Urriaren 18an hasi eta azaroaren 29a bitartean sukaldaritza biziraupen ikastaroa egingo dute. Helburua da eguneroko platerak prestatzen ikasi eta gero afaltzea. 18 urtetik gorako gazteei zuzenduta dago eta sei saio egingo dituzte, eguenero, 19:30etik 22:00ak bitartean. Ikastaroaren prezioa 15 euro da, eta interesatuek Gazteria Zerbitzura jo beharko dute urriaren 1etik 11ra bitartean.

> GAZTELEKUA

Eguenean gaztelekuaren gaineko berbaldia egingo dute kultura etxean, gurasoendako

Eskoriatzako gaztelekuak joan den egubakoitzean zabaldu zituen ateak. Ikasturte berriari ongiatorria egiteko hainbat ekitaldi egin zituzten joan den asteburuan.

12 eta 16 urte bitartekoei zuzendutako zerbitzu hori asteburuetan dago zabalik. Horrekin lotuta, gurasoei zerbitzuaren gaineko informazioa emateko berbaldia egingo dute eguenean, urriaren 4an, kultura etxean.

Unai Salaberria > Maringo auzo alkatea

"Azpiegitura asko egiten dituzte, baina gure seme-alabek ez dute eskolara joateko garraiorik"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Unai Salaberria sortzez bergararra da, baina Marinen bizi denetik, azken 12 urteotan, hango auzo alkatea da. Elizate horren gaur egungo egoeraren, premia nagusien eta helburuen gainean berba egin digu Salaberriak.

Zenbat jende bizi da gaur egun Marinen? Baserritik bizi denik bada bertan?

60 bat lagun bizi gara. Adin askotakoak: edadetuak, haien seme-alabak, aitona-amonen auzora itzuli direnak... 25 bat baserri egongo dira, baina baserritik bizi den lagun bakarra dago.

Zergatik da ezaguna Marin herrian?

Ez dakit. Sasoi baten *Madril txikito* deitzen zioten Marini. Eta bada esamolde bitxi bat, antzina-koa dena: *Gatzen gatza eta Marinen zentzuna*.

Eta zer du ikusteko Marinek?

Kanposantua, auzo lanean berritu genuena; parrokia, ermita... Azken horrek balio arkitektoniko handia dauka, batez ere egurrezko gangak (bobeda). Horrez gain, Isasi baserriak ere garrantzi handia dauka. Antzina-ko euskal sukaldea gordetzen duen baserri gutxienetakoa da.

Noiztik zara auzo alkate? Burukomin handia ematen dizu?

Orain dela 12 urte naiz auzo alkatea. Honako hau laugarren agintaldia da. Inork ez du gura izaten, baina norbaitek hartu behar du ardura. Burukominak ematen ditu, baina poztasunak ere bai. Balantzea positiboa da.

Bergararra eta kaletarra izanda, zer moduz Marinen?

Emaztea bertakoa da, eta hona etorri nintzen. Nahiz eta kaletarra izan, beti izan dut baserriarekin lotura, eta gustuko dut. Dagoeneko *neorurala* naiz... Basoan asko ibiltzen naiz.


Zeintzuk dira izan dituzun ardura nagusiak?

Lan handien eman diguna izan da auzo lokala egitea. Horrekin batera, autobideak eta Abiadura Handiko Trenak burukomin handiak eman dizkigute, hemendik biak igaroko dira-eta.

Bestelako ardurak urarekin, errepideekin eta mantentze-lanekin lotuta daude; eguneroko kontuak.

Udalak elizateak eta, konkretuki, Marin ahaztu samar daukela uste duzu?

Ez nuke hori esango, baina egia da borrokatu egin behar dela gauzak lortzeko.



Unai Salaberria Marinen, autobiderako egin duten zubiaren azpian.

GOIENKARIA

"Auzo lokalak, eta autobideak eta AHTk eman digute burukomin handiena"

"Auzoan ez daukagu aparkalekurik, eta hiletak daudenean jendea larri ibiltzen da"

"Berez kaletarra naizen arren, oso gustura nago baserrian, eta basoan dezente ibiltzen naiz"

Zeintzuk dira auzoaren premia nagusiak?

Oinarritzak eginda dago, baina mantentze eta berriztatze lanak egiteko premia egon bada. Asmoak baditugu, baina dirurik ez.

Elizaren eta auzo lokalaren artean dagoen ingurua urbanizatu gura dugu. Leku publikoa denez, Udalak egin beharko lukeela uste dugu.

Bestalde, auzoan ez dago aparkalekurik. Adibidez, hiletak egoten direnean-eta jendea ezin apartatu ibiltzen da.

Horrez gain, auzotarrok asmoa daukagu auzo lokalaren azpian pilotalekua egiteko. Aldundiak laguntzeko asmoa erakutsi du, baina diru gehiago beharko dugu.

Zeintzuk dira agintaldi honetako erronka nagusiak?

Saneamendua eta zabor zerbitzua hobetzea, batez ere. Bestalde, aspaldiko eskaera da edozein herritarrek daukan zerbitzuak guk ere izatea. Adibidez, ikusten dugu gero eta azpiegitura gehiago egiten dabiltzala, baina, aldiz, gure seme-alabak eskolara joateko zerbitzurik ez daukagula.

Eskoriatza da, hemen inguruan behintzat, auzotarrek Udalean ordezkari zuzena duten herri bakarra. Formula egokia da?

Nire ustez, formula hori beharrezkoa da ehuneko ehuneko. Udalean ahotsa edukitzeko, prezioa egiteko, informazioa eskuratzeko eta dirua ekartzeko ezinbestekoa da. Orain dela 25 bat urte sortu zen udal hauteskundeetara aurkezteko ideia, eta, hala, ordezkari izan dugu beti. Zinegotzi bat baino gehiago ez dugu gura, nahikoa da bat.

ANELKAR

Elkartasun
Festa egingo
dute etzi,
domeka

Oihulari Klown-ek
'Otiacicoch' lana
eskainiko du

A.I. > ANTZUOLA

Udazkeneko Elkartasun Festa domekarako antolatuta du Anelkar Antzuolako Elkartasun Taldeak. Irailaren 30ean, arratsaldeko bostetatik aurrera ospatuko dute jaialdi hori, Zurrategin.

Ohi bezala, bidezko merkataritzako produktuak salgai jarriko dituzte Anelkarreko kideek. Bestetik, Euskadiko Kutzak emandako opari sorta bat zozkatuko dute; hamar zenbakidun txartel sortak salduko dituzte zozketarako, bi euroren truke.

OIHULARI KLOWN

Ekitaldi ikusgarriena, baina, izango da Oihulari Klown taldearen *Otiacicoch* kale antzerkia. Udaberriko Elkartasun Festarako ere ikuskizun hori eskaintzea aurrez ikusita zuten, baina, sekulako zaparradak bota zituela eta, bertan behera geratu zen. Hauteskunde egunean gertatu zen hori, maiatzaren 27an, hain zuzen ere. Domekan, 18:30ean hasiko da emanaldia eta kale-rik kale ibiliko dira.

Antzezlan probokatzailea da *Otiacicoch*. El Salvadorretik eta 1500. urtetik etorritako indigena talde bat osatzen dute aktoreek. Txundituta geratuko dira publikoan dauden arroparekin, orrazkeekin... Hasieran, beldurtu ere egingo dira, baina gero, jolasean hasi eta publikoa probokatu ere egingo dute.

HIRIGINTZA > ZIRKULAZIOA

Semaforoa eta pibote
elektrikoak jarriko
dituzte erdigunea ixteko

Lan horiek izango dute 30.000 euroko aurrekontua; Udaleko arduradunek espero dute sistema berria martxan egotea urtea amaitu baino lehen

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Udaleko Hirigintza batzordeak erabaki du asteburuetan alde zaharra ixteko pibote elektrikoak jartzea. Pibote horiek zapatuetan, 15:00etan, automatikoki igoko dira eta astelehen goizean jaitsi; horretarako programatuta egongo dira. Hainbat sentsore izango dituzte segurtasunerako; programatuta dauden orduan automobil bat piboteen gainean edo oso gertu baldin badago, piboteak ez dira igoko.

KALEBARRENEK ETA PLAZAN

Kalebarrenen, Arin jatetxearen parean jarriko dituzte pibote elektrikoak, oraingo piboteak dauden tokian. Bestalde, Herriko Plazan, Surpe tabernaren parean ere jarriko dituzte.

Asteburuan Kalebarrenen aparkatuta geratzen diren automobilek izango dute irteteko aukera, Herriko Plazatik pasatu eta Buztinzuri aldera. Surpe parean egongo diren piboteak jaitsi egingo dira, automobil bat plaza aldetik gerturatzen dela detektatzen dutenean.

Bestalde, Kalebarrenko piboteen ondoan semaforoa ere jarriko dute; haren funtzioa izango da piboteak goian edo behean dauden informatzea; segurtasunerako jarriko dute semaforo hori. "Izan ere, gerta daiteke norbaitek piboteak goian daudela ez ikustea; semaforoa ikusteko elementu errazagoa da", azaldu du Pedro Iturbe alkateak.



PIBOTEAK Kalebarrenen eta Herriko Plazan jarriko dituzte piboteak.

A.I.

Kalebarrenen beste pibote bat ere jarriko du Udalak, Arin parean, bi banku dauden gunea babes-teko helburuarekin: "Pibote hori izango da finkoa. Horrela, gune hori egoteko toki seguruagoa izango da", dio Iturbek.

URTEA AMAITU AURRETIK

Sistema berria ezartzeko hainbat lan egin beharko dituzte. Lanen eta piboteen aurrekontua da 30.000 euro ingurukoa. Alkateak

adierazi du urtea amaitu baino lehen sistema berria martxan egotea espero dutela.

Piboteak jartzeaz gain, hainbat seinale berri ere jarriko dituzte Udaleko arduradunek. Batetik, Herriko Plazan jarriko dute seinale bat esaten duena ezin dela aparkatu; zamalanetarako bakarririk erabili ahal izango da gune hori. Kalebarrenen eta Buztinzurin ere hainbat bide seinale berri jarriko ditu Udalak.

> KIROLAK

Gimnasia
erritmikoko saioak
urriaren 3tik

Ariznoa gimnasia erritmikoko Antzuolako taldeak urriaren 3an, eguaztena, hasiko ditu denboraldi berriko entrenamendu saioak. Udal Pilotalekuan egingo dituzte entrenamenduak, eguaztenetan, 14:30etik 16:30era.

Orain arte ibilitakoei egiten zaie deialdi hori, baina hasteko asmoa dutenek ere egun horretan dute izena emateko aukera, frontoian aurkeztuta. Neskek zein mutilak. Azkeneko bi urteotan mutil batek ere badihardu, oso ohikoa ez den arren.

> UDALA

Gizarte Zerbitzuek
egutegi berria dute
aurrerantzean

Bideberri Mankomunitatea sortu zuten Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzagako udalak, gizarte zerbitzuak kalitatez eta elkarlanean eskaintzeko helburuarekin. Orain, bi gizarte laguntzailek dihardute eta egutegiak aldatu egin dituzte. Antzuolan gizarte laguntzailea egongo da astelehen, eguazten eta eguenean, goizez. Aldez aurretik txanda hartzea komeni dela jakinarazi du Udalak, telefono zenbaki honetara deituta: 943 76 62 46.

> ERREPIDEAK

Kalebarrenko zubia
zabaltzeko lanak
hasi dituzte

Martitzenean hasi zituzten Kalebarrenko zubia zabaltzeko lanak. Saihesbideko bidegurutze berriaren lanekin lotuta dago zubi hori zabaltzea; izan ere, bidegurutzea bukatzen dutenean, Bergara aldetik datozen ibilgailuek sartu beharko dute herrira Uzarragako zubitik eta Lizarragako hiribidetik Kalebarrenera aterako dira. Ibilgailu asko ibiliko denez, zubia zabaldu beharra dago.

Eskolako umeei
irteerak egin
dituzte azkeneko
asteotan

Laugarren, bosgarren eta seigarren mailetako neska-mutikoak aurreko astean, hilaren 18tik 21era, Zuhatzako irlan, Araban, egon ziren (argazkian). Oraingo astean, bestalde, txikien txanda izan da: lehenengo, bigarren eta hirugarren mailetakoak Hondarribiko aterpetxean izan dira martitzenetik egubakoitzera. Ondo baino hobeto pasatu dute!



JOSE ANGEL AMOSARRAIN

MUJIKA
HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

GAZTETXEA > LAPURRETAREN AURREAN JENDEAK EMANDAKO ERANTZUNAREKIN OSO POZIK DAUDE GAZTETXEAN

Herriari eskerrak emateko festa antolatu du gaztetxeak zapatarako

Bazkaria, jokoak, umeen 'playback'-a, pilota partiduak eta karaokea egingo dituzte

Gauean kontzertua egingo dute gaztetxean herriko bi abeslarik: Matx eta Anek

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Lapurreta egin zuten gaztetxean eta herriko jaietan kamiseten salmentatik ateratako dirua eraman zieten. Hala, galerei aurre egiteko zozketa antolatzea okurriritu zitzaizen, eta oso pozik daude herriak emandako erantzunarekin. "Komertzioen babesa handia izan da", esan digute gaztetxetik. "Hogei sari banatu ditugu antolatutako zozketan. Jendeak, berriz, zozketa-txartelak erosi ditu eta gure esker ona erakusteko zerbait eman nahi genion herriari. Horregatik antolatu dugu festa egun hau".

ASKOTARIKO EKINTZAK

Azken orduko aldaketak tarteko, poteoarekin hasiko dute festa eguna bihar, zapatua, 13:00etan.

Ordubete geroago herri bazkaria egingo dute eta jarraian jokoak. Eguraldi onarekin Herriko Plazan egingo dute bazkaria. Jokoen artean sokatira saioa egingo dute, goiko kalekoak beheko kalekoen aurka.

Umeek ere izango dute festa egiteko aukera, euren *playback*-a antolatu dute eta gaztetxe-koek. Kiroldegiko gimnasioan egingo dute, 18:00etan hasita.

Eta iluntzerako pilota partidua antolatu dute herriko pilotalekuan. Azken orduko aldaketak tarteko, pilota partidu bakarra izango da azkenean. Ez da gazteen arteko partidurik jokatuko eta helduen artekoa izango da egingo den norgehiagoka bakarra. 19:00etan emango diote hasiera ikuskizunari.



LANGILE Duela hamabost egun Sagardo Eguna egin zuten gaztetxe-koek. GOIENKARIA

GAUEAN, KONZERTUA

Egunari amaiera emateko herriko bi abeslarik kontzertua egingo dute gaztetxean. Matx eta Anek

saio bana egingo dute 23:00etan. Amaitutakoan, gaztetxe-koek karaokea antolatu dute nahi duenak bere abilezia erakutsi dezan.



LOREAK Laster hasiko den ikastarorako loreak batu zituzten udaberrian. ARTXIBOA

IKASTAROAK > BIODANTZA ETA LORE SIKUAK

Zabalik dago ikastaroetan izena emateko epea

Urriari hasiko dituzte biodantza saioak eta lore sikuekin eskulanak egiteko ikastaroa

L.Z. > ELGETA

Iaz biodantza ikastaroak Elgetan izan zuen arrakasta ikusita, antolatzaileek jarraipena ematea erabaki dute. Hala, urriaren 4an saio irekia egingo dute. 19:15ean elkartuko dira herri eskolan. Lehenengo saio horretan parte

hartzea doakoa izango da. Parte hartu nahi duenak 606 63 61 99 telefonora deitu behar du.

LORE SIKUEKIN IKASTAROA

Lore sikuekin koadroak, zentroak eta bestelakoak egiten ikasi nahi duenak, berriz, eskura dauka horretarako ikastaroa. Pili Arinek emango du eta doan izango da. Bi orduko lau saio egingo dituzte urriaren 15ean hasita. Udaletxean eman behar da izena urriaren 9a baino lehen. Saioak noiz egin izena emandakoekin adostuko da.

NEKAZARITZA > SEI HILABETE GOIMENDI AUZO INGURUAN

Asteon agertu da galduta zeuden ahuntzen jabea

Jabeak, bergarar batek, animaliak eraman ditu, baina kalteak eragin dituzte

bost egunean animaliak inork jasotzen ez bazituen, Diputazioaren esku utziko zuela kontua. Eta agertu da jabea, bergarar bat.

KALTEEN ORDAINA

Orain, eragindako kalteak nola konpondu eztabaidatu beharko dute alde bietan, eta akordio batera iritsi. "Baratzean eragin dituzte kalte batzuk, baina etxe inguruko hormetan gehiago", esan du Astolak. "Petiletara igo izan dira ahuntzok eta hondatu egin dituzte. Harriak lurrean daude".

L.Z. > ELGETA

Sei hilabetez izan ditu etxe ondoan Goimendi auzoko Enrike Astolak. "Zazpi ziren hasieran, sei azken asteotan", azaldu dio GOIENKARIARI. "Hiru ahuntz eta hiru aker". Kalteak eragiten zituztela eta Udalak ohar bat kaleratu zuen hama-



GOIMENDI Irudian, Enrike Astolaren artaldea. GOIENKARIA

> KONZERTUA

Gaur, 22:30ean, Los Reyes del KO blues taldea Espaloian

Marcos Coll eta Adrian Costak osatzen dute Los Reyes del KO blues taldea. Galiziarrek dira eta 1993an sortu zuten banda. Estatuko jaialdi ia guztietan jo ostean, Europarako saltoa egin zuten duela hiru urte. Orain, Alemanian bizi dira eta Berlinetik etorriko dira Elgetara. Sari ugari jasotako taldea da. Lehenengo diskoa Espainiako Estatuko blues diskorik onena izendatu zuten. Gaur, 22:30ean, Espaloian izango dira.

> GIZARTE ZERBITZUAK Aurrerantzean hiru egunez eskainiko dute arreta

Aldatu egin da udalek Elgeta, Antzuola eta Leintz Gatzagan eskaintzen duten gizarte zerbitzuen ordutegia.

Elgetari dagokionez, aurrerantzean herritarrek hiru egunez izango dute bulego zabalik. Astelehen, eguzten eta eguenetan egongo da erabilgarri zerbitzu hori.

Horren harira, ezinbestekoa da aurretik txanda hartzea. Udaletxera deitu behar da horretarako.

> FUTBOLA

Unben jokatu du bihar, 15:30ean, Elgetako taldeak

Bi partidu jokatu ditu oraingoz Elgetako futbol taldeak. Lehenengo galdu egin zuen Mondraren aurka eta bigarrena, berriz, berdindu Ikasberriren aurka. Asteburu honetan Unben jokatu du. Urki talde eibartarra izango dute aurrez aurre.

Elgetako taldeari okertu egin zaio zertxobait denboraldi hasiera. Asteburu honetako partiduan garaipena eskuratzeko garrantzitsua da herriko taldearendako.

> NEKAZARITZA

Azken egunak proiektuen eskaerak Udalari egiteko

Baserri eta landa ingurunean 2008. urtean egitekoak diren proiektuen eskaera urriari egin behar da. Hala, interesatuek urriaren 1a dute azken eguna eskaerak udaletxean aurkezteko.

Eskaerak idatziz aurkeztu behar dira, eta astelehena da horretarako azken eguna. Udalak, ondoren, aurkeztutako proiektuen artean zeintzuk egingo diren erabakiko du.



POSTAL LEHIAKETA Irabazleek Done Jakue bidea egin dute bizikletaz.

GOIENKARIA

TXIRRITOLA ELKARTEA > POSTAL LEHIAKETA

Done Jakueko postala saritu du Txirritolak

40 postal aurkeztu ziren lehiaketara eta Done Jakue bideko postalak irabazi du

Burgostik Astorgara bitarteko zatia egin dute aurten bizikletaz, 250 kilometro guztira

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Aurtengoa Txirritola Euskara Elkartek antolatuta duen IV. postal lehiaketa izan da. Postalak edozein formatu edo motatakoak izan zitezkeen. Baldintza bakarra zegoen lehiaketan parte hartu ahal izateko, euskaraz idatzitakoa izatea. Hala, lehiaketara aurkeztutako postal guztien arte-

an zozketa egin dute eta aste honetan eman dute ezagutzera irabazlea. Done Jakue bidea bizikletaz egin duten bost aramaiorekin bidalitako postalak irabazi du saria: Andoni eta Iker Arriolabengoa eta Miguel Angel, Goiatz eta Beñat Burgi. Azkeneko laurek bizikleta gainean jardun dute eta Andonik autokarabarekin lagundu die.

Done Jakue bidean Burgos eta Astorga bitarteko zatia egin dute aurten, eta Astorgatik bidali zuten irabazle suertatu den postala.

250 KILOMETRO GUZTIRA

Abuztuaren 14 hasi zuten bidaia Burgostik. Egunero 60 kilometro inguru egiten zituzten, goizeko zazpietan hasi eta arratsaldeko bostak bitartean. Dena dela, Andoni Arriolabengoa irribarre batekin azaldu digu nahiko erritmo lasaierekin egin dutela



ASTORGA Postal irabazlea

GOIENKARIA

ORIXOL ELKARTEA > MENDI IBILALDIA

Aitor Aranaren omenezko XI. mendi ibilaldia bihar

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Orixol Mendi Elkartek antolatuta, Aitor Aranaren omenezko XI. Mendi Ibilaldia egingo dute bihar. Irteera 08:00etan egingo dute Aramaioko kiroldegian. Ibilbidearen iraupena sei ordu ingurukoa izango da eta ez da sailkapenik finkatuko. Ibilbidea osorik egiten dutenek diploma jasoko dute. Orixol

elkartek janari eta edariak banatuko ditu Zabalaundi, Marixeka eta Kurtzeta puntuetan. Bestalde, amaieran dutxatzeko aukera izango da kiroldegian. Parte-hartzaileek 7 euro ordaindu beharko dituzte. Orixolek ez ditu bere gain hartuko ez istripuak, ezta antolaketarekin zerikusirik ez duen beste edozein gertakizun.



IBILBIDEA Sei ordu ingurukoa izango da.

GOIENKARIA

bidea. "Tartean geldialdi askotxo egiten genituen; badakizu, goizerdiko ogitartekoa, bazkaria, arratsaldeko merienda...". Oso esperientzia polita izan dela azaldu digute, eta jende mordo ezagutu dute. "Oso giro polita da, bidean jende asko ezagutzen duzu eta herrietako jendea ere oso jatorra da Done Jakue bidea egiten ari diren erromesekin. Guztiek agurtzen zaituzte", azaldu digu Andonik. Baina ez ziren momentu goxoak izan guztiak: Palentzian, El Paramon, bizikleta gainean zihozenak larri ibili zirela aitortu digu Andonik. "Bidea laua zen, baina ez zen amaierarik ikusten; gainera, haize handia zebilen, eta oso gogorra izan zen zati hura eurentzat".

Orain dela bi urte Orreaga eta Lizarra arteko zatia egin zuten eta joan den urtean Lizarra eta Burgos bitartekoa. Aurten Burgos eta Astorga arteko eginda, azkeneko txanpa gelditzen zaie Done Jakue bidea amaitzeko. Datorren urtean egingo dute hori, Astorgan hasi eta Santiagon bukatu arte.

Landetxe batean bi pertsonarentzako egonaldia irabazi dute postal lehiaketarekin. Andoni Arriolabengoa azaldu digu sariaren dirua banatu egingo dutela eta bazkari on bat egingo dutela guztiek elkarrekin.

BANDA ZABALA

Urriaren 3an bilera informaboa egingo dute

Internet auzo guztietara iristeko wimax teknologia erabiliko dute

A.B. >ARAMAIO

Gureian jarri berri duten antenari esker Aramaioko auzo guztietako baserrietan eskuragarri egongo da Internet. Wimax teknologia erabiliko dute horretarako; wimax datu transmisiorako hari gabeko protokolo bat da eta irrati uhin bitartez banda zabaleko Internetera konektatzeko aukera ematen du. Wifi delakoa baino indartsuagoa da.

Euskaltel enpresak hartu du sistema horren kudeaketa eta horren berri emateko hitzaldia egingo du urriaren 3an, arratsaldeko zazpietan, Aramaioko kultura etxean. Komertzializazio paketea, wimax seinaleak hartzen dituen zonak eta azpiegituren ezaugarriak azalduko dituzte, besteak beste, hitzaldian.

> PRESOEN LAGUNAK

Zozketatutako saskia osatzen lagundutakoei eskerrak eman dizkie

Joan den domekan Presoen Lagunak taldeak zozketatutako saskia osatzeko produktuak emandakoei, eskerrak eman nahi dizkie presoan aldeko elkartek. Herriko produktuekin osatutako saskia osatzea lortu zuten. Latxako esneak, Aldekoko eztiak, Azkoako ogiak eta Sagardoaleen Elkartek eskainitako sagar, zuku eta sagardoak osatu zuten saskia, besteak beste. Horiei guztiei eskerrak eman nahi dizkie Presoen Lagunak taldeak.

> ZERGAK

Kontribuzioak ordaintzeko epea zabalik dago

2007ko hiri eta landa-lur ondasun higiezin zergak irailaren 17tik azaroaren 17ra bitartean ordaindu beharko dira, borondatezko aldia. Bankuan helbideratuta dauden erreziiboak urriaren 17an kobratuko dira. Helbideratuta ez daudenak Vital Kutxaren edo Euskadiko Kutxaren Aramaioko bulegoetan ordain daitezke. Borondatezko epea pasatuta, kuotek %5eko gainkargua izango dute.



SORGINAK Bidaian izan diren Gatzagako 23 emakumeak gustura baino gusturago Lapurdin.

SORGINAK

EMAKUMEAK > BIDAIA

Giro paregabea izan dute 'sorginek' Lapurdin

Hogei urte inguruko ibilbidea duen emakume taldeak indartsu jarraitzen du, eta sortutako harreman estuen ondorioz giro ezin hobea dute

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Sorginak emakume taldeko kideak Lapurdi aldean ibili dira azken aste bukaeran. 23 emakume joan ziren, eta gustura itzuli dira guztiak. Sorginen Museoa, Baionan erosketak, ... Mila bizipen gorde dituzte oroimenean.

16 ETA 88 URTE ARTEKOAK

Urtero antolatzen du bidaia Sorginak taldeak, eta azken urteotan udazkenean egin izan du. Zuzendaritza batzordean dagoen Mariatzen Arantzabalek eman digu aurtengoaren berri: "Urtero joan izan diren zazpi bat ema-

kume aurten ezin izan dira joan hainbat arrazoi tarteko. Pena handia hartu dugu, baina beste aldetik jende berria etorri da, eta horrek asko poztu gaitu. Hortaz, bi berbatan labur genezake bidaia, arrakasta izugarria".

Arrasateko Bedoña auzoan bizi den Rene Arbustan zuberotarra gidari hartu eta iparraldea ezagutzera joan dira. Gazteena 16 urteko neskatua izan da eta nagusia 88koa. "Zugarramurdiko Sorginen Museoa ezagutzera

hurreratu ginen lehenengo, eta asko gustatu zitzaigun", dio Arantzabalek.

Ainhoa, Ezpeleta eta Baiona etorri ziren gero. Halako batean, baina, konturatu ziren egitarauan ez zietela egin tarterik erosketei: "Zapatu arratsalderako geneukan bisita alde batera utzi, eta erosketak egiten ibili ginen Baionan", dio Arantzabalek. Eta afalostean denak ez ziren lotara joan, hamar bat emakumek Baionako gau giroa bizi gura izan zuen. Domeka goizean Donibane Lohizunen ere giro bikaina topatu zuten.

20 URTE INGURUKO IBILBIDEA

Sorginak taldeko emakumeek ez dakite ondo dagoeneko 19 edo 20 urte pasatu diren taldea sortu zutenetik. "Urtero egiten dugu bidaia eta hori da antolatzen dugun ekitaldirik garrantzitsuenena. Lehen, urrun joaten ginen;

Europan han eta hemen ibilitakoak gara. Urteek aurrera egin ahala nagusitzen goaz eta batzuek 80 urtetik gora dauzkate; hortaz, urrunegi ez joatea erabaki dugu azken urteotan". Eta hasierako bidaia haien ondorioz harreman benetan estua daukate Gatzagako emakumeek. "Heldutasun handia dauka taldeak eta harreman bikaina dago geure artean. Hori, gainera, igarri egiten dela esango nuke", dio Arantzabalek. Hala, harrituta begiratzen die askotan jendeak hainbeste emakume batera ikusita: "Oraingo bidaian musulmanak ote ginen galdetu digute, eta, beste behin, Sevillan, sektaren bat izan ote gintezkeen esan zigun gizon batek".

Beraz, indartsu jarraitzen dute Gatzagako emakumeek 20 urteren ostean; eta aurrerantzean ere jarraituko dute bidaiak, ikastaroak eta antzekoak egiten.

INTERNET > KZGUNeko IKASTAROAK

Norberak aukeratuko du Interneten gaineko zein ikastaro egin urriaren 5ean, 19an eta 31n

M.A. > GATZAGA

Hiru egunetan etorriko da Aitor Madrid arduraduna Gatzagako KZgunera, urriaren 5ean. Eta erabiltzaileen eskuetan utziko du zein ikastaro egin. Hainbat ditu aukeran, ordu pare batekoak guztiak.

URRIAN, ARRATSALDETAN

KZguneko arduraduna astelehen goizetan etorri izan da Gatzagara, baina oraingoan arratsaldetan egingo du, goizetan oso jen-

de gutxi ibiltzen da-eta. "Datozenek, gainera, ez dute izaten interesik ikastaroetan, nabigatzera etortzen dira eta akaso zalantza-zen bat argitzera".

Hiru egun jarri ditu ikastaroak egiteko: urriaren 5a eta 19a, egubakoitzak, eta urriaren 31, eguaztena. 16:00etatik 18:00etara bitartean Interneten gaineko hainbat ikastaro egin ahal izango dute gatzagarrek. Eta zerrenda luzea dauka aukeran Madri-

dek: etxebizitza erosten ikasteko, lanpostuen berri izateko, kontsumitzaileen eskubideak zeintzuk diren jakiteko, sinadura eta osasun txartel elektronikoak erabiltzen ikasteko, eta beste batzuk. "Ordu pare bateko ikastaroak dira guztiak, eta erabiltzaileek duten interesaren arabera bata edo bestea egingo dugu", dio Madridek. Hori bai, 16 urtetik gora izan behar dute ikastarotara datozenek.

IT TXARTELA

Bestalde, oposizioetarako baliagarria den IT txartela eskuratzeko azterketarik ez dute egiten Gatzagako KZgunean, baina beste herri batzuetara jo dezakete horretarako. Aretxabaletan, esaterako, urriaren 3an eta 10ean egingo dituzte, 09:00etan, eta 16an, 26an eta 30ean, 11:00etan. Bi egun lehenago hitzordua egitea gomentatzen du, 943 79 94 44 telefono zenbakira deituta.

> OSASUNA

Gaur, 13:15ean jarriko dute gripearen aurkako txertoa

Gaur, hilak 28, etorriko da erizaina Eskoriatzako osasun etxetik gripearen aurkako txertoa jartzera gatzagarrei. Udaletxean izango da, 13:15ean. Baserrietan bizi diren gaixo eta ezinduei, berriz, etxean jarriko diete, eta aurrez jakinaraziko diete noiz izango den.

Eta gaur ezin duenak txertoa hartu, erizaina Marinera doanean har dezake; Maulanda jatetxean emango dute. Eta bestela, Eskoriatzako osasun etxera joan behar du, aurrez hitzordua eginda.

Zuhaitz Ezpeleta > Atleta

"Harri artean gustura ibiltzen naiz korrika"

XABIER URTZELAI > ANTZUOLA

Antzuolara etorri gara Zuhaitz Ezpeletarekin egoteko (Arrasate, 1977), bertan egiten du-eta lan. Domekan, lau ordu eta hiru minutuan egin zuen Zegama-Aizkorri maratoia, eta astelehen goizean lantokian zen. Izan ere, Ezpeletak oso argi dauka nondik ateratzen duen jatekoa. Emazteari esan dio azkeneko egin duela Zegama-Aizkorri maratoia; nik neuk ez diot sinisten.

Zer moduz joan dira lasterketa ondorengo egunak?

Ba, gaur (martitzena) atzo baino okerrago ibili naiz, behe-rakadaxoa izan dut. Baina, lasterketak duen gogortasunerako, nahiko ondo nago, bai.

Helmuga irribarre galantarekin zeharkatu zenuen, baina sufritu egin zenuen gero.

Bai, nahiko justu iritsi nintzen, eta ez dakit azukre behera-kadaren batengatik-edo, 15 minutu nahiko xeble izan nituen, berriro errekuiperatu nintzen arte.

Zerk balio du gehiago, 2004ko bigarren postuak edo oraingo hirugarrenak?

2004koa sorpresa izan zen, oso gauza polita. Eta, 2005ean bertan behera utzi behar izan nuen proba. Gogoan dut orduan presionatuta ikusi nuela nire burua, lo ere ez nuen ondo egiten, eta lasterketan igarri egin nuen hori. Badakit ez neukala inori ezer erakutsi beharrik, baina argi neukan lehenago edo geroago lan ona egin gura nuela Aizkorriko maratoian.

Podiumera igotzea sorpresa izan dela aitortu diguzu.

Bai, sorpresa izan da, benetan. Lasterketara lagun bati, Joxi

Garmendiari, laguntzera joan nintzen. Lehenengo 30 lasterkarien artean sailkatu gura zuen lagunak, eta horretan laguntzeko nengoen mentalizatua. Baina odol beroko korrikalaria naiz, eta, lasterketa hasita, aurrekoak bertan zeudela ikusi eta lagunak esan zidan aurrera egiteko.

Banekien lau ordu eta hamabost minutu egiteko moduan banengoela, baina hortik behera jaistea oso zaila da.

Non dago sekretua?

Gauza asko izan behar dira kontuan. Niri asko gustatzen zait harri artean korrika ibiltzea, txikitatik ibili naiz horrela, eta konturatu naiz horretarako gaitasuna daukadala, nahiz eta egunen batean hanka-hezurren bat apurtuko dudana... Horrez gainera, korrika asko egin behar da, eta ezinbestekoa da giharrak indartsu izatea, mugan ibiltzen gara-eta.

Lasterketan, zein da zure aliatu onena?

Ez dakit, ba. Batetik, lehen aurreratu moduan, besteei ikusita konturatu naiz harri artean azkar ibiltzeko gaitasuna daukadala, berezkoa dut hori. Eta, jaisteko orduan ere azkar ibiltzen

"Lagun bati laguntzeko asmotan joan nintzen lasterketara, baina berotu egin nintzen gero"

"Odol berokoa naiz; aurrean inor badago, harrapatzen ahalegintzen naiz"



Datozen hilabeteotan ehizan egin eta bizikletan ibili gura du Ezpeletak, lasai.

XABIER URTZELAI

naiz, normalean; aurrera egiten dut hor. Maldan gora, berriz, badakit hemengo lasterkariekin alderatuta nahiko ondo ibiltzen naizela, baina beste batzuk askoz errazago igotzen dira.

Eta, zerk uzten du Ezpeleta salduta?

Odol berokoa naiz, aurrean inor ikusten badut, harrapatzerara egiten dut, eta hori ez da beti ona. Indarrak neurtzen jakitea ezinbestekoa da, baina txarrena da jendeari gustatu egiten zaio-la gu odol berokoak izatea; animatu egiten gaituzte, eta hori ikusita estutu egiten dut; gero etortzen dira gerokoak. Urteek aurrera eginda ere, zuzentzen ez dudana gauza bat da.

Gutxi dira lau orduren bueltan ibiltzen diren korrikalariak. Dena dela, ikusgarria da amateur mailan zelako zaletasuna dagoen.

Eta, gainera, jendea geroago eta hobeto dabil. Hori duatloi eta triatloietan ere ikusi dut, jendea geroago eta hobeto prestatzen da, eta aurreko postuak dagoene-

"Zale mordo batzen dituen proba da Zegama-Aizkorri; kanpokoak ere gustura etortzen dira"

"Bakoitzak badaki non duen muga, baina jendea geroago eta hobeto lehiatzen da"

ko ez dituzte horren urrun ikusten. Euskal Herrian sekulako zaletasuna dago, bai.

Esaterako, zure arreba Leirek egin duena harrigarria da.

Ez dakit hori egiteko gauza izango nintzatekeen. Urtebete ere ez duen semetxoa daukate, eta arrebak eta koinatuak hartu dute parte proban, biek, eta oso ondo, gainera. Familia izan berri dutenek badakite hori egitea ez dela batere erraza. Nire iritziz, sekulako meritua dute horrelako proba batean parte hartu izanagatik, txalotzeko modukoa da.

Zer du Zegama-Aizkorrik?

Batetik, zale mordo batzen duen lasterketa dela. Kanpotik etortzen diren korrikalariendako ere oso berezia da, horrenbeste jende animatzen korrikalari... oilo ipurdia jartzen zaigu. Bestetik, sekulako parajeetan egiten dugula korrika.

Eta orain zer?

Momentuz lasai egon. Aizkorri egiten nuena eginda ere, banekien geldialditxo egin behar nuela. Meniskoa pitzatuta daukat, eta ondo errekuiperatu gura dut: ehizan apur bat egin, aspaldiko partez bizikletan ibili...

Eta, datorren urtean, bai?

Ez dakit, emazteari azkena izan dela esan diot. Beste lasterketa batzuetan izango naizela, baina ez horren gogorak. Aizkorriko maratoiak leher eginda uzten gaitu, denbora behar da errekuiperatzeko, eta maratoia ondo prestatzeko gauza asko utzi behar dira alde batera. Domekako probarekin oso pozik geratu naiz, hori da garrantzitsuena.

Mondeo gama: kontsumoa 5,8-9,3 l/100km. CO2 emisioak 199-326 g/km.

Ford Mondeo berria | Feel the difference

Mugarri Autoak
Araba Etorbidea, z/g,
ARRASATE-MONDRAGON

Bat nahi dut

FUTBOLA > PREFERENTEA

Hernani hartuko du Mondrak eta Idiazabal izango da Aretxabaletan

Aretxabaletak eta Mondrak jokatu dute oraingo asteburuan etxean, Idiazabalen eta Hernaniren kontra.

Aloñak, berriz, liderrari egin beharko dio aurre, Ordiziari, Altamira futbol zelaian

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Preferenteko laugarren jardunaldia jokatu dute asteburuan, eta Mondrak eta Aretxabaletak etxean izango dute hitzordua.

Mondrak bezala, biharko kontrario Hernanik (Mojategi, 17:00) ere ondo hasi du denboraldia, dagoeneko zazpi puntu batu dituzte-eta. Arrasateko taldeari dagokionez, Gordobilen mutilak joan den astean lehenengo zatian egin zituzten akatsak ez errepikatzen ahaletzen dirak, Eibartarrak taldeak

ederki hartu zion-eta Mondrari neurria. Gero, bigarren zatian erakutsi zuten hori baino askoz gehiago direla, eta Anaitasunaren kontra egin zuten moduan, zelai erdian baloi gutxiago galduta motzean lotu zuten kontrarioa (3-3).

ALOÑAK, BERDIN

Oñatiarrei dagokienez, beste horrenbeste. Zubiaren mutilek nahiko lan izango zuten joan den asteko lehenengo zatian egindako akatsak zuzentzen. Egia da Euskaldunak egindako golen bat merituzkoa izan zela (0-2koa, batez ere), baina airezko jokaldietan min handiegia egin zuten, eta gol hori ere baloia ondo ez urruntze-arren etorri zen. Kontrarioak ezin du 20 minutuan horrenbesteko mina egin.

Hala ere, Mondraren eta Aloñaren kasuan, dena kontatu behar da: bi talde horiek gaitasun handia erakutsi zuten lehenengo zatian egindakoa lehenbailehen ahaztu eta, bigarrenaren, aurrean zegoenari hortzak erakutsi eta markagailua iraultzeko. Bi nor-

gehiagoka horiek bost minutu gehiago izan balituzte, ibarreko bi ordezkariak gertu izango zuten garaipena.

LIDERRA AURREAN

Aloñak orain arteko talde indartsuena izango du bihar arratsaldean aurrean, lider dagoen Ordizia (zapatua, 16:00). Sailkapeneko datuei begiratua eginda, biharko kontrarioak jokatu hiru zeingehiagokak irabazi ditu -hori egin duen talde bakarra da-, eta gol bakarra baino ez dute jaso.

IDIAZABAL ARETXABALETAN

Igor Arenazaren mutilei dagokienez, Aretxabaletakoek bultzada ederra jaso zuten joan den astean Zestoaren zelaian 0-1 irabazi eta gero. Lehenbailehen garaipen bat eskuratzeko presioa alde batera utzita, Aretxabaletakoek etxeko zaleen aurrean izango dute denboraldiko bigarren azterketa. Derbiko lehenengo zatia istripu txiki bat izan zela erakusteko aukera, zapatuan (16:00).



SASOIAN Euskaldunak taldearen aurkako partiduan, Unai Arregi.

J.A.

Eskolako errendimendua, hobea

Kirola neurri egokian egiteak eskolako notak hobetzen laguntzen die neska-mutikoei

Oporrak bukatu dira eta ikasturtea hasi berri dute gaztetxoek. Datozen hilabeteetan ikasketetan murgilduta ibiliko dira, eta, zenbait gurasok hala uste ez badute ere, kirolak eskolako errendimendua hobetzen lagun diezaieke gaztetxooi.

Hainbat gurasok uste du kirolean aritzeak ikasteko denbora kenduko diela seme-alabei, eta, ondorioz, kaltegarritzat jotzen dute. Baina ikerketek erakutsi dute kirola eta eskolako errendimendua bateraezinak behar diren, erabat osagarriak direla. Hau da, kirola egoki praktikatzek errendimendu akademikoa hobetzen laguntzen du.

Kirola egiteak emaitza akademikoa zergatik hobetzen dituen arrazoitzeko orduan, zeharkako hainbat aldagai agertzen dira. Hauek, besteak beste: autokontzeptua hobetzen denez, beste arloetan ere helburu ambiziosoak ezartzen dira; alde aurretik ezarritako helburuak lortzeko nork bere buruarekiko konfiantza areagotzen du; gurasoekiko harremana hobetzen da, arazoak sor ditzaketen bideetan sartzeko joera txikiagoa izaten da...



OREKA Eragin positiboa izateko, kirola neurri egokian egin behar dute gazteek.

KIROL JARDUERA OREKATUA

Eragin positibo horiek jaso ahal izateko, kirol jarduerak egokia izan behar du, ez neurri kanpoko, ezta entrenamendu saio gehiegi eta luzeegi eskatzen dituen ere.

Bestalde, ez ditu bizitzako lehentasunak nahastuko, ez

motibazioak desitxuratuko ezta gozagarri izan beharko litzatekeena kezka iturri bihurtuko ere.

Gainera, kontuan izan behar da ikasteari tarte luzeegi eskaintzeak etekinena gutxi dezakeela; hau da, atsedeneak beharrezkoak dira. Horrekin

guztiarekin, errentagarritasun egokia eskuratzeko, planifikatu egin behar da egunean zenbat denbora eskaini behar zaion ikasteari.

ESKOLA KIROLA

Kirola neurri egokian egiteak eskolako notak hobetzen laguntzeaz gain, neska-mutikoei beste hainbat onura ere ekar diezazkiekeela ikusi dugu. Horrekin jabetuta, Debagoieneko udalek, ikastetxeekin elkarlanean, eskola kirol egitasmoa antolatzen dute urtero.

Hala, Oñatiko eskola kirolaren, Bergarako eskola kirolaren eta Leintz ibarreko eskola kirolaren baitan, Debagoieneko herri guztietako ikasleek kirola egiteko aukera izaten dute ikasturtean barrena, astegunetan zein zapatuetan. Jasotzen dituzten zuzeneko onurak hainbat dira: gauzak partekatzen ikasten dute, ez lehiakorrik izaten, besteak begirunez hartzen, sexu arteko bereizketarik ez egiten... Azken batean, hainbat balioz jabetzen lagun diezazkieke eskola kirolak gaztetxoei.

KIROL
ZERBITZUEN
BERRIAK
JASOTZEKO:

Antzuola 943 76 62 46

Aretxabaleta 943 71 26 28

Arrasate 943 77 16 77

Bergara 943 77 91 67

Elgeta 943 76 80 22

Eskoriatza 943 71 53 28

Oñati 943 71 63 75



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

AUTO LASTERKETAK > GORLAKO IGOERA

Aitor Zabaleta eta Ander Vilariño, zein baino zein gehiago Gorlan gora

Bihar arratsaldean egingo dute Gorlako 27. auto igoera, eta Zabaleta eta Vilariño gaztea aurrez aurre ikustea da probaren erakargarrietako bat

XABIER URTZELAI> BERGARA

Bihar, zapatua, egingo dute mendiko igoeren Euskadiko III. lasterketa, Gorlan. Eta, gainontzeko lasterkarien baimenaz, Aitor Zabaleta (Lola Diamante) bergarra eta Europako txapelkun Ander Vilariño (Reynard F3000) aurrez aurre ikusteak sortu du ikusmin handiena. Zabaletak denboratxo darama lasterketatik kanpo, baina etxean korritzea etxean korritzea da, eta Bergarakoak dagoeneko begiak itxia ere erraz igotzen du Gorla.

ONDO ERREKUPERATUTA

Hori izango da Bergarakoaren abantaila, dagoeneko matematikoki Europako mendiko txapelketa eskuan duen Vilariñoak puntako autoa ekarriko du-eta (500 zaldiko potentzia duena). Europako bigarren txapelketa eskuan,

badirudi Vilariño ondo erreku-peratu dela iaz izan zuen auto istripetik. Austrian -txapelketa-ko lehenengo lasterketa zen-, Rechberg-eko igoera hasi aurretik entrenamendu saioan errepidetik irten zen -200 kilometro ordura- eta auto istripu galanta izan zuen. Lesioak ez ziren oso larriak izan, baina belaunezurrak txikitu eta ebakuntza egin eta gero, donostiarrak urtebete egin du erreku-peratze lanetan.

47 LASTERKARI AURREZ AURRE

Bi pilotu horiekin batera, Bergara Racing taldeak antolatu duen lasterketan beste 45 pilotuk korrituko dute.

CM mailakoen artean, azpimarratzeko da Alberto Alonso (Speed Car GTR) eta Fran Cobo (BRC 1000) pilotuen parte-hartzea. Turismoen artean, berriz,



AITOR ZABALETA Bergarako pilotua, iaz, aldapan gora hasteko gertu.

GOIENKARIA

adi Aitor Ramirez (BMW 320 ST) oñatiarrarekin eta baita Lebeitirekin ere (Renault 5 Tour de Corse). Eta, bi euskaldun horiekin batera, Bernardo Cardin (Mitsubishi EVO VII) asturiarrak ere lanak emango ditu, beste askoren artean. Deba-goindarrei dagokienez, ez zai-

tezte nahastu, bi Aitor Ramirez ditugu-eta. Bata oñatiarra da, lehen aipatu duguna, eta bestea bergarra, Opel Kadett GSI autoa gidatuko duena. Oñatiko David Ardions (Renault Clio Sport) eta Arrasateko Igor Orongoa (Seat Ibiza GT TDI) dira beste bi ordezkariak.

SEGURTASUN NEURRI HANDIAGOAK Iazko ezbeharraren ostean, antolatzaileek segurtasun neurri handiagoak jarri dituzte, eta ibilbideko zati handiena zinta batekin inguratuko dute. Baina ikusleek dute azken hitza; aintzat hartu antolatzaileek lasterketan eman-gotuzten gomendioak.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Lehenengo maila

Xerez-Reala
Domeka. 18:00. Chapin.

Kadeteen Euskal Liga

Peña Athl.-Aretxabaleta
Zapatua. 12:00. Santurtzi.

Preferente maila

Ordizia-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Altamira.

Aretxabaleta-Idiazabal
Zapatua. 16:00. Ibarra.

Mondra-Hernani
Zapatua. 17:00. Atxabalpe.

Lehen erregionala

Roteta-Bergara
Zapatua. 17:30. Herrera.

Intxurre-Antzuola
Zapatua. 16:30. Alegia.

Bigarren erregionala

Anaitasuna-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Txerloia.

Elgeta-Urki
Zapatua. 15:30. Unbe.

Eibartarrak-Mondra
Domeka. 15:30. Unbe.

Gazteak-BTLS
Zapatua. 17:30. Unbe.

Ohorezko mailako gazteak.

Bergara-Burumendi
Zapatua. 17:30. Ipintza.

Anaitasuna-Mondra
Domeka. 16:30. Txerloia.

Aloña Mendi-Elgoibar
Domeka. 17:00. Azkoagain.

Aretxabaleta-Beasain
Zapatua. 18:00. Ibarra.

Lehenengo mailako gazteak

Bergara-Eibartarrak

Zapatua. 15:30. Ipintza.

Eibartarrak-Aretxabaleta
Domeka. 17:00. Unbe.

Kadeteen ohorezko maila

Ordizia-Aloña Mendi.
Gaur. 19:30. Altamira.

Herrerako Sport.-Bergara
Zapatua. 10:30. Donostia.

Kadeteak

Aretxabaleta-Soraluze
Zapatua. 12:00. Ibarra.

Arrasate-Bergara B
Zapatua. 11:30. Mojategi.

Kadete txiki

Eibartarrak-Arrasate
Domeka. 10:30. Unbe.

Ohorezko mailako infantilak.

Arrasate-Aretx.-Arizmendi
Domeka. 11:30. Mojategi.

Bergara-Zarautz
Domeka. 12:00. Ipintza.

Infantilak

Aloña Mendi-Amaiak Bat
Zapatua. 17:00. Ibarra.

Infantil txikien maila

Lengokoak-Arrasate
Zapatua. 10:30. Donostia.

Aretx. Arizme. B-Herrera
Domeka. 11:00. Ibarra.

Emakumezkoen Liga

Mondra-Bergara
Domeka. 16:00. Mojategi.

BTLS-Arizmendi B
Zapatua. 19:30. Ipintza.

Arizmendi-Anaitasuna
Zapatua. 11:00. Almen.

Emakumezkoak F8 kadeteak

Bergara-Lagun Onak
Domeka. 10:20. Ipintza.

Emakumezkoak F11 kadeteak

Aloña Mendi B-Eibar
Zapatua. 10:30. Ibarra.

Arizmendi-Zumaia
Zapatua. 09:30. Almen.

SASKIBALOIA

Senior maila

Larraxokoak-Candy BKE
Zapatua. 16:00. Donostia.

Junior gizonzkoak

Gafes Aitona-Mondra. Unbe.
Domeka. 09:30. Donostia.

Kadete gizonzkoak

Easo Kellerterra-MU
Zapatua. 18:00. Donostia.

Kadete emakumezkoak

Bera Bera Gros-Eskoriatza.
Zapatua. 18:00. Donostia.

ESKUBALOIA

Euskadiko Txapelketa

Bergara-Egia Servi Chap.
Zapatua. 18:00. Labegariet.

Atletico Basau.-Ford Mugarri
Zapatua. 16:30. Basauri.

AUTO LASTERKETAK

Gorlako 27. Igoera

Zapatua. 16:00.
Entrenamendu saioak.
17:00. Lehenengo igoera.
18:00. Bigarren igoera.

XAKEA

Arrasate Hiria Txapelketa
Hirugarren jardunaldia.
Gaur. 19:00. Altamira.

BORROKA LIBREA > BAKUKO BORROKA TXAPELKETAKO MUNDIALA

Maider Unda Pekingo Olinpiar Jokoetan izango da, Bakun bosgarren sailkatu eta gero

Bakun (Azerbaijan) egin dituzte borroka txapelketako mundialak, eta Maider Undak Pekinerako txartela lortu du han

X.U. > ARAMAIO

Datorren urtean Pekinen (Txina) egingo dituzten Olinpiar Jokoen izango da Maider Unda borrokalari aramaioarra. Espainiako selekzioarekin lehiatu da eguntan Bakun (Azerbaijan), eta Unda bosgarren sailkatu da. Hala, sailkapen horrek ireki dizkio Pekingo ateak.

FINALERDIETATIK KANPO

AEBetako borrokalari Maranok utzi zuen Maider Unda finalerdietatik kanpora (1-2), baina aurrea egiteko bigarren borrokan, Undak ez zuen errukirik izan Poloniako Wierczek borrokalariaren aurrean. Lehenengo setean 4-0 nagusituta eta bigarrenean *touch*-a eginda, Aramaiokoak brontzeagatik lehiazteko txarte-



PEKINERA Wierczek-en kontra lortutako puntuak urrezkoak izan dira. GOIENKARIA

la eskuratu zuen. Baina hori ez zen garrantzitsuena, borroka horretan lortutako puntu kopuruak ireki zizkion-eta Pekin 2008ko ateak.

Helburu nagusia beteta, brontzeagatik lehiazteko orduan Undak Guzel Manurova borroka-

lari errusiarra izan zuen aurrean. Manurova kontrolpean izatea lortzen bazuen, Undak bazuen podiumera igotzeko aukeraren bat, baina errusiarrak ez zuen bat bera ere barkatu. Azken borroka galduta ere, pozik itzuliko da Aramaiokoa.

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA




> **LATZEN**
Oñatiko musika taldea agertokietara itzuliko da > 45



> **EUSKARA**
Ordenagailuan euskaraz jarduteko tresnak aurkeztu dituzte > 51

> **AITOR JASO**
Bergarako errektadorea da. Euskal Herriko errektadoreen taldea sortu du. Erakustaldiak egiten dituzte. Iaz euskadiko errektadore onenaren saria eman zioten > 47



DEBAGOIENDARRAK Ezkerretik eskumara, Egoitz Aizpuru gai jartzailea eta Jokin Labaien, Ainhoa Agirreazaldegi, Iñigo Arzelus eta Eñaut Uriarte bertsolariak.

AZALA: ALEX AZKARATE / JATORRIZKO ARGAZKIA: LANKU

Debagoiena, Gipuzkoako bertsolari txapelketako plaza

Arrasate, Elgeta eta Eskoriatzan izango dira txapelketako saioak

Ibarreko lau bertsolari eta gai jartzaile bat daude txapelketan

Debagoiena, bertsolari txapelketako plaza

AITZIBER ARANBURUZABALA > BERGARA
Aurreko aste bukaeran abiatu zen Gipuzkoako bertsolari txapelketa. Denera 79 bertsolarik hartuko dute parte, horien artean lau debagoien-darrek: Iñigo Arzelusek, Ainhoa Agirreazaldegik, Eñaut Uriartek eta Jokin Labaienek.

Txapelketak hiru plaza izango ditu Debagoiengan: Arrasateko Kulturate kultura etxean etzi; Elgetako Espaloia antzokian urriaren 6an eta Eskoriatzako kiroledegian azaroaren 17an.

HIRU HILABETEAN, 21 SAIO

Hiru hilabeteko iraupena izango du aurtengoak: sailkapen fasean 72 bertsolarik hartuko dute parte, sei bertsolariz osatutako 12 saiotan. "Hasi berri den txapelketa originala eta freskoa izango da; inoiz baino partaide gehiago eta gazteagoak daude", azaldu du Rikardo Idiakezek, txapelketako prentsa arduradunak.

Sailkapen fasetik 23 bertsolarik egingo dute aurrera, eta horiei 2003ko Gipuzkoako bertsolari txapelketako finalean izan ziren zazpi kideak batuko zaizkie: Jexux Mari Irazu, Iñaki Gurrutxaga, Ekaitz Goikoetxea, Aitor Mendiluze, Jon Maia, Jon Martin eta Amaia Agirre. Maialen Lujanbio gaur egungo txapel-dunak ez du parte hartuko.

Finala, berriz, abenduaren 16an izango da Donostiako Ilunbe zezen-plazan. Horrela azaldu

du Idiakezek, Gipuzkoako txapelketako prentsa arduradunak: "Aurtengo apustu nagusietako bat izan da finala Ilunbera eramatea; 8.000 lagunentzako lekua dago han".

IBARREKO PARTE-HARTZAILEAK

Lau dira aurtengo txapelketan izena eman duten Debagoiengo bertsolariak. Horietatik bik lehen esperientzia dute: Eñaut Uriartek eta Iñigo Arzelus bergarrek. Ainhoa Agirreazaldegik eta Jokin Labaienek, berriz, badute eskarmentua txapelketa horretan.

Arzelus Legazpiko saioan izan zen aurreko aste bukaeran eta dagoeneko txapelketatik kanpo geratu da. "Ofiziotan uste baino hobeto moldatu nintzen arren, bakarkako atalean akatsak egin nituen, eta, ondorioz, puntu asko galdu nituen", adierazi du Arzelusek. Urduri zegoela gaineratu du; hala ere, oso esperientzia polita bizi izan zuela esan du: "Gainontzeko lehiakideak ordu-ra arte bistaz bakarrik ezagutzen nituen arren, barruko giroa oso ona izan zen".

Eñaut Uriarterentzako ere lehen esperientzia den arren, lasai dagoela aitortu du. Urriaren 6an Elgetako Espaloia antzokiko saioan izango da.

Jokin Labaienenentzako ere urriaren 6a gorriz markatuta dago. Getariako antzokian du saioa. Bigarren aldia du.

Eta Ainhoa Agirreazaldegik ere badu esperientzia. Aurtengoa hirugarren txapelketa du; etzi, domekan, Arrasaten du saioa.



LEGAZPIKO SAIOA Egoitz Aizpuru eta Iñigo Arzelus debagoiendarrak.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Aipatutako parte-hartzaileez gain, bosgarren debagoiendar bat ere bada: Egoitz Aizpuru oñatiarra, hain zuzen ere. Aizpuru ez da bertsotan arituko, bertso-tarako gaiak proposatzen baizik. Hark ere eskarmentua du; hirugarren aldiz izango da.

TXAPELKETA LEHIATUA

Goiz da oraindik txapela nork eskuratuko duen asmatzeko. Antolatzaileen esanetan, kopuru handia aipagarria bada ere, kalitatea ere bermatuta dago.

Debagoiengo lehiakideak bat datoz aurtengo sorpresa asko izango direla esatean. Izen ezagunekin batera, finalerako hautagai asko ikusten dituzte. Azken txanpan Debagoiengo hautagairik izango den galdetuta, umiltasunez erantzun dute: finalera heletzea baino gehiago, egindako lanarekin gustura geratzea dute buruan: "Ni gustura eta parekoa ere gustura uztea da asmo nagusia", erantzun du Labaienek. Bide beretik erantzun du Agirreazaldegik: "Ez daukat finala buruan".

'WWW.GPUNTUA.COM'

Aurtengo txapelketa sarearen bitartez jarraitzeko bidea ere izango da: www.gpuntua.com helbidean, informazio zabala eskuratzeko bidea dago. "Txapelketarako propio egin dugu. Aurtengo beste apustu garrantzitsua izan da. Klikatuz gero, parte-hartzaileen biografiak, saioei buruzko datuak, sailkapenak eta, saioak bukatu ahala, bertsoak entzuteko aukera izango da", argitu du Rikardo Idiakezek, prentsa arduradunak.

DEBAGOIENENKO PARTE-HARTZAILEAK



Ainhoa Agirreazaldegik
29 urte-Elgeta

"Gustura geratuko naiz, esaten dudana gustuko badut"

Aitarengandik datorkio zaletasuna eta 9 urterekin hasi zen bertso-tan. Agirreazaldegik badu esperientzia Gipuzkoako txapelketan: 1999an, taldeka lehiatu zen eta bakarka, berriz, aurtengoa du bigarren txapelketa ofiziala. Urduri dagoela aitortu du; hala ere, gustura dago Arrasaten lehiatuko delako: "Etxean bezala sentituko naiz eta estimatuko dut babesa; hala ere, etziko saio gogorra izango da".

Txapelerako sorpresak izango direla azaldu du; erronka pertsonalei dagokienez, hauxe gaineratu du: "Gustura geratuko naiz, esaten dudana gustuko badut. Lehenengo saioa gainditzen badut, nahikoa sari litzateke niretzako".



Eñaut Uriarte
34 urte-Bergara

"Aspalditik dut txapelketan parte hartzeko gogoia"

10 urte zituen Bergarako bertso eskolan hasi zenean. Gipuzkoako txapelketan lehenengo aldiz parte hartuko duen arren, lasai dagoela esan du: "Aspalditik neukan parte hartu eta txapelketaren beste aldea probatzeko gogoia. Nire helburua ondo pasatzea da". Elgetako saioan izango da.

Bertso saio batzuk egin dituen arren, larregi prestatu ez dela aitortu du. Txapelketa jarraitzen ari dela gaineratu du, eta ez du faborito argirik: "Batzuk aipatzearen ezagunenak aipatuko nituzke; hala ere, sorpresak izango direla uste dut". Saioetara doanean, bakarrik joateko ohitura du. Aste bukaeran, Arrasate eta Zumarragan izango da.



Jokin Labaien
22 urte-Arrasate

"Pozik nago, saioa etxetik urrun tokatu zaidalako"

Hitzetik Hortzera telebistako bertso saioa ikusteko ohitura zuela-eta, 15 urterekin Arrasateko bertso eskolan eman zuen izena. Han, Ainhoa Agirreazaldegik izan zuen lehenengo irakaslea. Irakatsitakoak ondo ikasita, egun, gatzetxoan irakasle da.

Txapelketatan parte hartzea gustuko duela-eta, bigarren aldiz izango da Gipuzkoako txapelketako agertokian. Gustura dago Getarian, etxetik urrun, tokatu zaiolako, eta gogor prestatzen ari den arren, urduri dagoela aitortu du. Txapelketarako faboritorik ez du, baina jarraitzen ari da: "Orain artekoak lasai ikusi ditudan arren, datozen saioek urdurituko nautela badakit, baina han izango naiz".



Iñigo Arzelus
25 urte-Bergara

"Oso esperientzia polita bizi izan nuen Legazpiko saioan"

Sei bat urte dela heldu zion, berriro, urte batzuetan alde batera utzita zuen zaletasunari. Aurreko txapelketan parte hartzeko aukerarik izan ez zuela-eta, oraingoan eman zuen estrainekoz izena. Lana eta ikasketak direla-eta, nahi beste prestatzeko astirik ez du izan.

Zapatu goizean ere lanera joan behar izan zuen; ondoren, bazkaldu eta Legazpirako saiorako bidea hartu zuen. Lagun arteko giroan esperientzia oso polita bizi izan zuela adierazi duen arren, zoritxarrez txapelketatik kanpo geratu da dagoeneko. Txapelerako faboritoei dagokienez, hauxe esan du: "Sorpresak izango dira, bai, baina beterranoak beti beterrano".



Egoitz Aizpuru
30 urte-Oñati

"Bertsolariak ezagutzen baditut, ni ere lasaiago nago"

Oñatiko eskolako bertsolaria bada ere, gustura dabil gai jartzaile. Gipuzkoako bertsolari txapelketan, gainera, badu esperientzia; aurtengo hirugarren aldiz da lan horretan. Debagoiengo bi bertsolariri gaia jartzea egokitu zaio: aurreko astean Legazpian Iñigo Arzelusi eta datorren astean, berriz, Getarian Jokin Labaieni. Bertsolari ezagunak aldamenean izatea eskertzen duela dio: "Bertsolariak ezagutzen badituzu, errazago da gaiak azaltzea, elkarri lasaitasuna ematen diogu". Egungo bertsolariek maila handia dutela dio. Horren erantzuleak bertso eskolak direla dio; hori bai, Bertsozale Elkarteak ematen duen ezinbesteko laguntzarekin.

MUSIKA > LATZEN TALDEAREN ITZULERA

Latzen talde oñatiarra agertokietara itzuliko da, zortzi urteren ostean

Latzen talde oñatiarra agertokietara itzuliko da; datorren martitzenean, urriaren 2an, azalduko ditu Latzenek itzulera honen arrazoiak

MIREN ARREGI > OÑATI

Harridura sentimendua piztu da, batez ere, Latzen talde oñatiarra agertokietara itzuliko dela entzun dutenengan. Harridura, poza, ezustea eta baita bihozka da malenkoniatsuak ere; izan ere, Latzen taldearen abestiek hainbat zale eta euskal gazteren gaztaroa markatu dute. Latzen 1993ko udan eratu zen talde bezala, artean, ametsetatik bizi ziren lau mutil koxkor zirenean. 16 urte besterik ez zuten. Gorka Lazkano (bateria), Joxemari Azpitarte (baxua), Iker Martinez de Zuazo (gitarra) eta Aitor Uriarte (ahotsa eta gitarra) ziren Latzen taldea osatzen zutenak,



MUSIKA Latzen kontzertu baten.

GOIENKARIA

eta, garai hartan gutxi ezagutzen bazituzten ere, berehala egin ziren ezagun Euskal Herrian eta, gerora, neurri txikiagoan bada

ere, Espainian. Oñatiko Errekalde auzoko lokaletan sartzea lortu zuten musika grinez bizi ziren lau gazteak eta hura bilakatu zen

handik aurrera taldearen etxe. Herriko tabernetan eman zituzten lehen kontzertuak, eta bete egiten zituzten tabernok.

DISKOGRAFIA

1995ean iritsi zen euren lehen maketa, *Heriotzari deika* izena zuena. Ateratako 2.000 aleak saldu zituzten denbora laburrean. Laster etorri ziren kontzertu gehiago, eta baita Euskadi Gazteko maketa lehiaketako entzuleen saria ere. 1996an, Elkar estudioetan grabatuta *Kontzientzia ala infernua* kaleratu zuten, metal musikako abesti gogorrak biltzen dituen, betiere rock ukitua-rekin. Orduan etorri ziren *Laztana*, *Ze ingo xu* eta halako abestiak. Eta halaxe etorri ziren festa handietako kontzertuak. Bigarren diskoa 1998ko martxoan kaleratu zuten, *Ardi Larruz* izenburupean. Lehenengo aldiz, Latzenek Estatuan jakin-mina piztu zuen eta lehen pausoak eman zituen bertan.

1999ko abuztuan Latzenek bere ekina alde batera utziko zuela iragarri zuen, azalpenik eman gabe, eta adostasunez. Arantzán eman zuen azken kontzertua, 1999ko abuztuaren 13an.

Urriaren 2an, Donostian, Latzen taldeak itzuleraren azalpenak emango ditu.

MUSIKA > ROCK ETA PUNK KONTZERTUAK

Oñatiko txosnagunean rocka eta punka protagonista

Txosnagunean egingo dira kontzertuok eta Ingalaterrako, Kataluniako eta Debagoieneko taldeak arituko dira taula gainean, bihar

M.A > HERRIA

Oñatiko txosnagunea talde handien agertoki bilakatuko da bihar; izan ere, rock eta punk esparruetako talde mitikoak igoko dira taula gainera. Txosna batzordeak hilabeteak eman ditu biharko kontzertuak prestatzen, eta, hain zuzen, kontzertu indartsua antolatzea lortu dute.

Bost talde arituko dira. Ingalaterratik Peter and The Test Tube Babies eta Chelsea musika taldeak etorriko dira. Kataluniatik Travis Bicle. Eta gainontzeko taldeak ibarrekoak dira: hain zuzen ere, Never Surrender talde arrasatearra eta Golpe de Estado oñatiarra. Kontzertuak



PUNK-ROCKA Peter and The Test Tube Babies.

GOIENKARIA

22:00etan hasiko dira eta talde bakoitzak ordubete inguruko emanaldia eskainiko du.

BANDA MITIKOAK

Esan bezala, Kataluniatik eta Ingalaterratik etorritako taldeek euren musikaz gozatzeko aukera eskai-

niko dute bihar. Peter and The Test Tube Babies eta Chelsea banda ingelesak 1977. eta 1976. urtean sortu ziren, hurrenez hurren. Brighton eta Chelsea sortutako banda mitiko horiek punk-rock estiloa jorratzen dute, eta euren musikaz gozatzeko aukera eskainiko dute.

LEHIAKETA > III. UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Udako argazki lehiaketako saridunak, astelehenean

Astelehenean jakingo ditugu udako argazki lehiaketako saridunen izenak

M.A > HERRIA

Irailaren 17a zen *Asteleheneko Goienkaria*-ko udako argazkien III. lehiaketara argazkiak aurkezteko azken eguna, eta datorren astelehenean argitaratuko dira lehenengo hiru argazki onenak eta, nola ez, egileen izenak. Azken bi asteetan batu dira argazki gehienak, eta azken egunean bertan 50 lehiakide bakoitzak bidali zituzten argazkiak.

Iaz izugarrizko arrakasta izan zuen argazki lehiaketak; izan ere, 94 lehiakide hartu zuten parte bertan. Guztira, baina, 300 argazki jaso zituzten, lehiakide bakoitzak bost argazki bidali zituztekeen bakoitzak, baina parte-hartzea handiagoa izan da: 136 lehiakide guztira eta 513 argazki. Hala, iazko erantzun zabalari eutsiz, hirugarren edizio honek erakutsi du *Asteleheneko Goienkaria*-

ren argazki lehiaketa debagoienarren artean finkatzen doala. Horregatik, oso pozik dago Goiena, parte-hartze handia izan delako.

Argazki lehiaketako epaimahaia Goienako eta Bergarako Kiñu argazki dendako kideek osatzen dute, eta ez dute ez lan erraza izango argazki onenak aukeratzeko. Sarituak lehenengo hirurak izango dira: lehenengoak Olympus E-400 reflex kamera digitala eskuratuko du; bigarrenak asteburu bateko egonaldia bi lagunentzat Arrasate Bidaien eskutik; eta hirugarrenak bi pertsonarentzako bazkaria edo afaria Gatzagakoko Gure Ametsa jatetxean.

ARGITARATZEKE DAUDENAK

Oraindik argitaratzeko dauden argazkiak ere datorren *Asteleheneko Goienkaria*-n aterako dira, irabazleekin batera. Horretarako, baina, aukeraketa egingo dute, eta, hala, pertsona bakoitzaren argazki bat argitaratuko da, guztiak argitaratzea ezinezkoa da-eta, argazki gehiegi jaso baitituzte. Horrenbestez, datorren urtean IV. edizioa egiteko asmoa azaldu du Goienak.

INMOBILIARIA
IBARGARAI 3 • BERGARA
 Tel. / Faxa: 943 76 97 97
 www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Ibargarai 74 m². Oso ondo.
- Simón Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Masterreka 92 m². Orido.
- Osinbu 80 m². Berritua.
- Angozar. Bi solairu. Berritzea.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua.
- San Pedro 65 m². Prezio ona.
- Iraburu 84 m². Terrazarekin.
- Zubieta 60 m². Prezio ona.
- Masterreka 92 m². Prezio ona.
- Zubiare 70 m². Berritua.
- Zabalotegi 70 m². Prezio oso ona.

Antzuola:

- Buztinzi 76 m². Prezio ona.
- Antigua 72 m². Oso ondo.

Elgeta:

- San Roke 90 m². Berritua.
- Salbador 90 m². Iggogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

DEBA
GARAIA
 INMOBILIARIA
 Telefono Aranzadi 2
 T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA

- Koldo Elizalde, 107 m²
- Bidekurutzeta, 200 m², aukera ona
- Zabalotegi, 80 m², ondo
- San Anton Abad, 75 m², oso ondo
- Bidekurutzeta, 60 m², oso ondo
- Zubiare 60 m², aukera ona
- Zubieta, 65 m², oso eguzkitsua
- Irizar pasealekua, 92 m², oso ondo
- Ibargarai, 80 m², ondo
- Artekale, 62 m², oso ondo
- Aranerrika, 87 m², ondo
- Ortuibar, 100 m², ia berria
- Mugertza, 60 m², berria
- Masterrekan etxebizitzak 3 logelakoak eta duplexak
- Ibarra, 130 m², aukera ona

SORALUZE

- Gabolatz, 65 m², oso ondo

ANTZUOLA

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEA OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK

201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK

301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA

401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA

601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK

801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. Erdialdean, altzariekin. 72 m²-ko txapitula (buhardilla) eta 16 m²-ko garaiea. Merkea. Deitu ezazu telefono honetara: 659 64 67 38.

Arrasate. Apartamentua prezio eta egoera ezin hobean salgai. 50 m² gehi atikoa, jantzia. Terraza. Guztiz jantzia. Deitu ezazu telefono honetara: 687 83 97 37.

Arrasate. Etxebizitza salgai. San Andresen. 57 m². Guztiz berritua. Bi logela, egongela, bainu-gela eta sukaldia. Kanpoaldea begira. Iggogailua eta sotoa-erkin. Deitu ezazu telefono honetara: 620 15 12 12.

Arrasate. Grupo San Juanen etxebizitza salgai. 60 m², bi logela, komuna, sukaldia eta egongela. Berriztatuta, altzariekin eta bizitzera sartzeko moduan. Garbara, sotoa eta igogailua. 600 90 76 73 edo 635 71 93 00.

Arrasate. Zerrajerera kalean. 110 metro koadro. Hego-mendebaldera begira. 945 15 40 22.

Arrasate. Zigarrolan etxebizitza salgai. 53 m². 3 logela, egongela, bainu-gela eta sukaldia. Altzariekin. Guztiz berritua eta oso egoera onean. Deitu ezazu telefono honetara: 615 75 96 36.

Arrasate. Zigarrolan etxebizitza salgai. 81 m². 3 logela, egongela, bainu-gela, sukaldia eta trasteleku. Oso eguzkitsua. Egoera onean. Deitu ezazu telefono honetara: 652 73 22 83.

Bergara. 50 metro koadro. Berriztatuta eta berogailuarekin. 180.000 euro, negoziagarriak. Deitu ezazu telefono honetara: 635 71 04 55.

Bergara. 90 metro koadro. Guztiz berritua. 100 metro koadroko ganbara. Duplexa egiteko aukera. 218.000 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 666 70 59 90.

Bergara. Aranerrekian (Bolu) etxebizitza salgai. 75 m², 3 gela, egongela, 2 bainu-gela, sukaldia, terraza, ganbara eta berokuntza zentrala. Deitu ezazu telefono honetara: 665 71 48 30.

Bergara. Erdialdean etxebizitza salgai. Eguzkitsua. 90 metro koadro. Bizitzera sartzeko ger-

tu. Ia guztiz jantzia. Telefona: 685 72 40 30.

Bergara. Erdialdean. 57 metro koadro. Iggogailua eta trasteleku. Prezio interesgarria. Deitu ezazu telefono honetara: 649 63 11 74.

Bergara. Etxea salgai Zubiaurren. Berritua, berogailuarekin eta ganbararekin. Deitu ezazu telefono honetara: 619 41 39 72.

Bergara. Masterrekan. Hiru logela eta egongela ditu. Deitu ezazu telefono honetara: 630 32 15 07 edo 943 76 50 26.

Ezkarai. Kanpin pribatuan egurrezko etxea salgai. Partzelarekin eta txokarekin. Igerileku eta tenis pista. Deitu ezazu telefono honetara: 685 70 17 92.

Nafarroa. Urederra inguruan. Berriztatuta. Bisolairu ditu. 123 metro koadro. 185.000 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 943 76 00 03.

Oñati. 120 m²-ko duplexa salgai. Herri erdian. Bizitzera sartzeko moduan. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldia, egongela eta estudioa. 420.000 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 676 39 36 93.

Oñati. Apartamentua salgai. Erdialdean. Arantza kalean. Bi logela, sukaldia-egongela, bainu-gela eta trasteleku. Egoera onean. Argitsua. Deitu ezazu telefono honetara: 605 77 46 79.

Oñati. Duplexa salgai eraikitzen ari diren etxebizitzetan. Zubiarri kalean. Lehenengo eta bigarren solairuak. Garajea ere bai. Deitu ezazu telefono honetara: 670 85 85 41.

Oñatin etxebizitza salgai. Zubilaga auzoan. 79 m². Hiru logela, sukaldia, egongela, bainu-gela eta ganbara. Oso egoera onean eta berritua. Deitu ezazu telefono honetara: 697 57 77 44 edo 635 71 41 39.

102. EROSI

Arrasaten etxea erosi nahi dut, prezio egokian. Deitu ezazu telefono honetara: 635 70 24 66 edo 606 03 80 18.

103. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Antigua kalean etxebizitza ematen dut errentan. Gauean deitu. 943 76 21 06.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan, ikasleentzat. Deitu ezazu telefono honetara: 943 79 33 93.

Arrasate. Etxebizitza errentan ematen da ikasleentzako, Grupo San Juanen. Lau lagunendako lekua. Iluntzean deitu. 945 44 52 81.

BERGARA

Depor tabernak zerbitzariak behar ditu.

629 26 88 51

Bergara. Arrizuriaga 13. Euskalduneri. Lau logela. 943 76 43 49.

Bergara. Ubera auzoan etxebizitza errentan ematen da. Urtarril hasiera arte. 150 metro koadro. Guztiz jantzia. Telefona: 685 72 83 27.

Oñati. Bi logelako etxebizitza Olakua auzoan, ikasurtean zehar bakar-bakarrik. Telefona: 660 40 06 75.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaletan Etxe bat errentan hartuko nuke. Interesatzen bazaizue deitu telefono honetara: 685 75 41 21.

Arrasate. Arrasateko bikote batek etxebizitza errentan hartuko luke. 13:00etatik 16:00etara bitartean ez deitu. Aitor. Deitu ezazu telefono honetara: 649 19 64 04.

Bergara. Bi arrea gazte gara eta errentan hartzeko etxebizitza behar dugu azaroa baino lehen. Sara. Deitu ezazu telefono honetara: 669 07 48 72 edo 943 76 00 52.

105. ETXEA OSATU

Eskoriatza. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da urriatik aurrera. Seriotasuna eskatzen da. Deitu ezazu telefono honetara: 656 71 33 96.

Iruñean logela bila nabilen irakaslea naiz. Kurtso osorako. Interesatzen bazaizue Deitutelefono honetara: 669 97 91 31.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Garajea alokagai daukat Urbe auzoan. Telefona: 625 28 72 06.

Bergara. Zubiaurren, 37 metro koadro. Deitu ezazu telefono honetara: 606 65 97 82.

203. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Bustinzuri kalean. Deitu ezazu telefono honetara: 638 89 78 76.

Arrasate. Garaje itxia errentan Kontzezinon. Deitu ezazu telefono honetara: 660 96 90 45.

Arrasate. Garaje plaza bat (marraduna) errentan Kontzezinon. 655 71 81 84.

Bergara. Ibargarai kalean. 943 76 74 19.

Bergara. Ibargarai kalean garaje errentan ematen da. Telefona: 627 90 74 48.

Bergara. Ibargarai kaleko 17. zenbakian. 15 metro koadro. 626 04 82 24.

Bergara. San Antonio kalean garajea errentan. 21 m². 652 74 81 82 edo 943 79 13 52.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Aretxabaleta. Lokala salgai Gorbeia kaleko 2. zenbakian. Guztira 104,60 m², bi solairutan banatuta. 671 42 54 32 edo 943 79 52 78.

304. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Autokarabana gordetzeko lokala errentan hartuko nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 665 72 02 53.

Bergaran edo Arrasaten hartuko genuke. 607 31 85 60.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Aerobik irakaslea behar dugu Aramaion. Urte osorako. Telefona: 665 72 62 83.

Aretxabaleta. Pertsona bat behar dugu haurrak zaintzeko. Deitu ezazu telefono honetara: 635 75 72 57.

Arrasate. Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da Garagarizan. Astean hiru egunetan. 655 72 68 07.

Debagoiena. Gizona gertu zerbitzari moduan, sukaldian edota umeak edo nagusiak zaintzen lan egiteko. 659 37 41 95.

Emakumea gertu tabernak garbitu edo umeak nagusiak zaintzeko. Aretxabaletan. 636 59 40 35.

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume euskalduna gertu edozein lanetarako. 659 82 75 18.

Aste bukaeran lan egingo nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 680 62 42 60.

Bergara. Etxe etxeko ile apaintzaile zerbitzua eskaintzen dut. 699 26 95 74 edo 648 87 53 27.

Bergara. Gizonetza gertu lanegian, lorezain edo garbiketari lanetan jarduteko. 699 15 33 16.

Debagoiena. 22 urteko mutila edozein lan egiteko gertu. 943 78 03 32 edo 687 67 71 83.

Debagoiena. Emakume bat gertu garbitasun lanak egiteko edo gauean lan egiteko. Telefona: 619 22 48 99.

Debagoiena. Emakume bat pertsona nagusiak zaintzeko eta etxek, bulegoak zein tabernak garbitzeko gertu; orduka. 650 67 15 92.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketari lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 659 37 41 95.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitasun lanak egiteko 17:00etatik aurrera edo gauean. 619 92 40 86.

Debagoiena. Emakumea gertu jatekoko eguneko menua eta karta zerbitzari gertu. 652 75 95 64 edo 652 76 21 63.

Debagoiena. Garbiketari lanak egingo nituzte. 628 52 34 06.

Debagoiena. Neska euskalduna gertu asteburuetan lan egiteko. 605 71 09 07.

Debagoiena. Zerbitzari edo garbitzaile egingo nuke lan. Telefona: 639 08 79 94.

Oñati. Neska gazte bat haurrak zaintzeko prest. 636 07 01 16.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Sei urteko neskatila bati eskola partikularrik etxean emateko norbait behar dut; egunean ordu bat. Telefona: 658 70 73 17.

502. EMAN

Bergara. Lehen Hezkuntzako eskola partikularrik ematen ditut. 605 74 14 04.

Aretxabaleta. Ingeleseko eskola ematen ditut. 943 79 03 83.

Arrasate. Ingeles eskolak ematen ditut. Maila guztiak. 609 94 90 01.

Bergara LH edota DBHko eskola partikularrik emateko prest dagoen neska. 675 71 55 56.

Goi mailako ingeniari industrialklase partikularrik ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak: unibertsitatea, zikloak, batxilergoa, DBH, matematika, fisika, marrazketa, teknologia,

kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. Deitu ezazu telefono honetara: 630 71 35 83.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Citroen C4 Coupe beltza salgai. 138 ZP. Diesela. 55.000 km. Estra guztiak. Oso egoera onean. Deitu ezazu telefono honetara: 627 93 55 74.

Hunday Tucson. 112 zaldi. Diesela. 2 urte eta 24.000 kilometro. Oso egoera onean. Telefona: 669 54 89 16.

Jeep Cherokee 2.1 PD autoa salgai. Oso ondo dago. 3.500 euro. 655 45 07 25.

Opel Astra ISUZU 1700 TD. 114.500 km. Egoera onean. 606 94 35 50 edo 617 13 17 51.

Seat Alhambra monobolumena salgai. 130 ZP. Zazpi laguntzako. Egoera onean. Telefona: 653 71 04 56.

Suzuki GS 500 motorra salgai. Oso egoera onean, 19.000 km, 2003koa. 3.000 euro. Deitu arratsaldean. 630 77 50 71.

Suzuki Vitar 1.6 salgai. 92.200 km. Egoera onean. Telefona: 665 71 39 94.

Trialeko motorra salgai. Beta Tekno 1998. 250 ZP. 1.900 euro. 699 37 15 11.

Trialeko motorra salgai. Gas-Gas TXT 280. 2004koa. Egoera oso onean. 2.500 euro. Telefona: 627 42 63 12.

Volkswagen California tdi furgoneta zuria salgai. 102 ZP. 116.000 km. 2000koa. Egoera onean. 615 72 37 74.

Volkswagen Golf II GTI. 112 ZP. 1990ekoa, hiru ate, gorria. Enbragea eta distribuzioko uhalak (korrea) aldatu berri. Oso egoera onean. 1.200 euro. Telefona: 699 98 36 71.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Yorkshire txakurra saltzen ditut. Bi urte ditu. 616 45 00 20.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Basalurrea salgai Bergara eta Eskoriatzan.

Borda bat eraikitzeko oso egokia. 678 72 75 72.

Errepideko bizikleta salgai. Zeus etxekoa, 56 neurrikoa. Shimano 105. Egoera onean dago. 400 euro. 667 08 93 09.

Eskusoinuak salgai. Bat handia, tekladuna eta bestea txikia, botiduna. 652 72 01 15.

Izozkailua. Hiru kaxoi. Indesit markakoa. Berria. 637 52 89 83 edo 943 76 35 37.

Mahai obalatua salgai, luzagarririk eta guztiz. Neurria: 140x92 zentimetro. 200 euro, negoziagarriak. 617 15 88.



Arrasateko **Enrike Vegak** eta **Maria Nieves Artetxek** urrezko ezteiak bete dituzte gaur, irailaren 28an. Musakolako San Isidro elizan ezkondu ziren orain 50 urte. Domekan, irailaren 30ean, ospatuko dute urteurren garrantzitsua. Ondo pasa!



Ondarroako **Iker Badiola** eta Bergarako **Maite Unzurrunzaga** bihar ezkonduko dira Arantzazun. Bazkaria Zelai Zabalen egingo dute eta eztei bidaian Kenya eta Maurizio irletara joango dira. Zorionak, familia guztiaren partetik!



Jesus Iztueta eta **Maria Luisa Arando** arrasatearrak orain dela 50 urte ezkondu ziren, irailaren 18an, hain zuzen. Orain, urrezko ezteiak ospatu dituzte. Antxonon partetik: "Oso ondo pasatu nuen ospakizunean". Zorionak eta urte askotarako!

hildakoak

- **Jesusa Odriozola Aranberri.** Arrasaten, irailaren 12an. 79 urte.
- **Rosario Arregi Zubizarreta.** Arrasaten, irailaren 15ean. 84 urte.
- **Carmen Robledo Garcia.** Arrasaten, irailaren 15ean. 59 urte.
- **Rosario Arregi Zubizarreta.** Arrasaten, irailaren 15ean. 85 urte.
- **Rosa Escobar Miranda.** Bergaran, irailaren 16an. 50 urte.
- **Pedro Igarzabal Lizarralde.** Oñatin, irailaren 16an. 79 urte.
- **Lucio Uribetxebarria Mondragon.** Arrasaten, irailaren 18an. 83 urte.
- **Vicente Aranzabal Laskurain.** Bergaran, irailaren 18an. 77 urte.
- **Rafaela Gabella Gonzalez.** Arrasaten, irailaren 19an. 88 urte.
- **Fernando Anduaga Zelaia.** Oñatin, irailaren 23an. 77 urte.
- **Felisa Sarasketa Ojanguren.** Elgetan, irailaren 25ean. 82 urte
- **Jose Maria Garitano Mendibil.** Bergaran, irailaren 26an. 78 urte.



Jone Pagaldai bergarra eta Zubillagako **Josu Goitia** hilaren 15ean ezkondu ziren Zubillagako ermitan. Meza ondoren, Zarautzen egin zuten bazkaria; hurrengo egunean, eztei bidaia joan ziren, Zeelanda Berrira. Familiakoen partetik, zorionak!



Elgetako **Zuhaitz Uzuriaga** eta Oñatiko **M. Carmen Matilla** irailaren 8an ezkondu ziren Olabarrietako ermitan. Eztei bidaian Maia Erriberara joan ziren ezkonberriak. Eskerrik asko lore sortagatik. Zorionak, familiakoen partetik!

Babeslea:



OROILORE

Hileta eta beilatoki zerbitzuak


- Zerbitzu etengabea 365 egunean • Behar bagaituzue aski duzue dei bat, laster joango gara zuekin egoteko: etxera, ospitalera...
- Erantzun azkarra, tratu pertsonala • Eskelak: egunkari, irati eta paperetan • Aukera lore apainketan: koroak, erramuak eta zentroak • Bete beharreko tramiteak • Gorpua prestatu eta dotore ipini • Zerraldo aukera, denetarikozko prezioak • Oroilore beilatokiak hiru gela ditu, beila egiteko

Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76
Zerbitzua Debagoiena osorako

X. URTEURRENA

Angel Arana Echave

Hamargarren urteurreneko meza domekan, irailaren 30ean, 12:00etan, Donostiako Karmeliten elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerririk asko sendikoen izenean.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 01

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate

Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 71 25 11. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta

Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

Antzuola

Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 87 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100 euro.**

Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.




bila-bila 7



hitz gezidunak

		Erretore	Batekoa	Egurra
		Aurkitzen saiatu	* Irudiko fruitua	Metal mota
		Katu ar		
		Helioa		
Puskak	Ibarra			
Jaidura	Maindira			
			Kontso- nantea	Gizon izena
			Errep., frui- tu mota	
Euskal fonema		Perukoak		
Piano jotzaile		Galdetzaile bat		
Garai, aldi			Bokala	Internet Protokoloa
Izana			Bokala	Sufrea
			Begirada	

GOIENKARIA



umore giroan

Kike Amonarriz

Bidea

Senar-emazteak ohean daude. Senarra kirol egunkari bat ari da irakurtzen eta emaztea, berriz, 600 bat orriko eleberria. Bat-batean etxeko telefonoak jodu. Senarrak ezkerreko besoa luzatu eta hartu egin du:
- Bai, nor da?
- (...)
- Eta nik zer dakit!
Senarrak telefonoa zintzilikatu eta, hitzik ahoskatu gabe, "nor zen eta zer nahi zuen" galdera aurpegia duen emazteari:
- Jende eroa badabil oraindik ere munduan: tren-konpainia-ko norbait edo trafikoko arduradunen bat izango zen.
- Zer dela eta?
- Bidea libre ote dagoen galde-tu dit eta!

sudokua

		4	3		7
1		8		6	
6	4		2		
5				2	1
9	8				3
		7		4	8
	5		1		7
2		5	9		

hieroglifoa

Non dago Ernesto ?




hizki salda

Europako 5 hiriburuen izenak

A	C	E	B	U	G	I	J	A
O	S	L	O	E	H	K	M	L
D	E	K	H	A	R	O	R	U
A	R	R	U	T	K	T	I	G
S	I	D	Y	E	K	E	I	O
O	N	L	O	N	D	R	E	S
F	O	G	F	A	I	I	O	R
I	S	M	E	S	A	M	O	R
A	D	K	E	W	H	A	X	O

soluzioak



A	O	S	A	N	A	K	U
P	A	V	O	R	A		
E	O	J	O	N	I	A	P
K	A	K	A	I	N	Z	T
T	A	R	A	I	E	R	A
A	N	A	R	A	H	Z	
R	A	T	A	R	K	A	
U	A	T	A	B	I	L	A
Z	B	B					

bono fotoa



1928ra arte Elgetaren menpe egon zen auzo baten dago ateondo plateresko hau duen eliza. Zein da auzo hori eta zein elizaren izena?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkorobereibar

Super BM

Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

Orlando tomate frijitua
410 g-ko lata

0,53 €
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAIKO IRABAZLEA
Arrasateko MIKEL MONTOYArendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: San Andres.

6	1	3	9	4	5	8	2	7
2	7	8	5	4	9	6	3	1
4	5	6	3	1	8	9	7	2
1	3	9	7	2	6	5	4	8
9	8	4	2	7	1	6	5	3
7	2	1	6	3	5	8	9	4
5	6	3	8	9	4	7	2	1
6	4	7	1	5	2	3	8	9
3	1	2	9	8	7	4	6	5
8	9	5	4	6	3	2	1	7

Uda + "L" etxean
Jeroglifkoa: Udalteixean

A	C	E	B	U	G	I	J	A
S	I	S	M	E	S	A	M	O
F	O	G	F	A	I	I	O	R
O	N	L	O	N	D	R	E	S
S	I	D	Y	E	K	E	I	O
A	R	R	U	T	K	T	I	G
D	E	K	H	A	R	O	R	U
O	S	L	O	E	H	K	M	L
A	D	K	E	W	H	A	X	O



LORTU DUGUNAREN SEINALE



Asko da egiteko duguna
baina 10 urte
hauetako emaitzak
begi bistakoak dira

ESKERRIK ASKO
LANA EUSKALDUNTZEKO
DINAMIKAN MURGILDUTA
ZAUDETEN GUZTIOI



JARDUNALDIA

MOTIBAZIOA eta HIZKUNTZA
NORMALIZAZIOA

NOIZ: 2007ko URRIAK 9

LEKUA: Gandiaga Topagunea. ARANTZAZU. OÑATI

IZEN EMATEA: www.emun.com/10urte/jardunaldia

OSPAKIZUN EKITALDIA

ELKARREKIN BIDEA EGITEN...

NOIZ: 2007ko URRIAK 24

LEKUA: Amaia Antzokia. ARRASATE

ORDUA: 17:30



EMUN

LANA EUSKALDUNTZEKO
KOOPERATIBA

Informazio gehiago: www.emun.com/10urte
www.lantalan.com

Aitor Jaso > Errekortadorea

"Hainbat aldiz plazara atera den zezenak badaki nola harrapatu"

Aitor Jaso bergararra 14 urte-ekin hasi zen zezenen aurrean jartzen; orain, 21 urte ditu eta plazarik plaza ibiltzen da. Jasok beste lagun batzuekin batera Euskal Herriko Errekortadoreak taldean daude. Plazetan ikuskitu zuna eskaintzeaz gainera, txiki-keri ere erakusten diete haiek.

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Inguruko herrietako plaza guztiak ezagutzen ditu Aitor Jasok; herrietako jaiak aprobetxatzen ditu zezenetan ibiltzeko. Inguruan, Elgoibarren eta Azpeitian dagoela tradizio handien esan digu. Domekan Oñatira joango dela ere aitortu digu.

Nola hasi zinen errekortadore lanetan?

Txikitan hasi nintzen, 14 urterekin; gustatu egin zitzaidan eta herririk herri hasi nintzen, zezenak zeuden lekuetara joaten. Azkenean, hainbeste gustatu zitzaidan, mundu horretan sartu nintzen. Hala, jendea ezagutu nuen eta txapelketetan parte hartzen hasi nintzen, Espainia mailako txapelketetan.

Hasieran txahalekin ibiltzen nintzen. Gero, 16-17 urte nituenean handiagoeekin hasi nintzen.

Ausarta izan behar da zezen aurrean jartzeko. Ez diozu beldurrik?

Ausarta? Bai, apur bat bai. Beldurra baino gehiago, errespetua izan behar zaio zezenari. Kilo askoko animalia da eta errespetu minimo bat eduki behar zaio. Bestela, gero datoz kontuak!

Nola entrenatzen zara?

Fisikoa lantzeko, gimnasia joaten naiz eta korrika ere egiten dut. Azken finean, erresistentzia landu behar izaten da. Baina oinarritzko entrenamendua, nire ustez, herririk herri joate da. Gu, adibidez, uztaiak adarretan sartzen aritzen gara; lehiaketak egiten ditugu. Hori ikasteko, zezenarekin entrenatu beharra dago; adarra eskuarekin eusten ikasi behar da. Plazetara joan behar da; han nagola, zezenak adarrak gora dituela ikusten badut, ondo sartzeko bezalakoak, ahalegindu egiten naiz.

Zer da errekortadore ona izateko garrantzitsuenak? Indarra, bizkorra izatea, burua...

Nik uste dut zezenetan garrantzitsuenak burua dela. Beti pentsatu behar duzu zezenak zer egingo duen eta zelan ahaleginduko den zu harrapatzen. Zezenak zer egingo duen pentsatu behar duzu. Errekortadore on batek haxe esan zidan: "Buruak oinak bezain azkarrak dituzunean, orduan izango zara onena". Buruarekin ibili behar da.

Gure inguruko herrietatik zein duzu gustuko zezenetan irte-teko?



ARANTZAZU EZKIBEL

PERSONALA

Herria: Bergara. **Adina:** 21 urte. **Ikasketak?** Autoen Elektromekanika; eta orain Informatika ikasten ari naiz. **Zaletasunak?** Lagunekin parrandan ateratzea eta zezenak. **Gomendatzeko moduko film bat?** Roberto Benigniren *La vida es bella*. **Gustu-**

ko duzun musika taldea? Ken-7 gustatzen zait. **Bergarako toki gustukoena?** Goiko estazioa eta San Martzial ditut gustuko. **Inoiz ahaztuko ez duzun bidaia?** Tarragonara egin nuena. **Amets bat?** Errekortadoren Espainiako txapelketa irabaztea.

Bergaran, Zumarragan, Deban eta Arrasaten, esaterako, zezen-plaza jartzen da jaietan. Azpeitian zezen-plaza badago, baina sokamuturra kalean egiten da. Inguruko herrietan, Azpeitian eta Elgoibarren dago tradizio handien; 2-3 orduan egoten dira zezenak jarraian. Baina, sokarekin eta kalean izatean, zezenak ez du defentsarik izaten; kalean zezena labaindu egiten da eta hareatan, ordea, ez.

Kalean, orduan, errazagoa izango da errekortea egitea.

Bai, kalean jendeak erraz egiten du errekortea. Zezena halako indarrarekin ateratzen da, labaindu eta jausi egiten da. Nahiko lan izaten du gorputza zutik mantentzen; gero, baina, ikasi egiten du zutik egoten. Errekortadore batentzat zailagoa da hareatan aritzea, zezenak moztu egiten du-eta bidea.

Telebistan agertzen diren mailara heltzeko zer egin behar da?

Maila horretara heltzeko, asko entrenatu, asko ibili eta zezenekin ohitu egin behar da.

Hala ere, telebistan ikusten ditugun zezenak, 500 kilokoak izan arren, irteera bakarra duten zezenak izaten dira; hau da, lehenengo aldiz irten dira plazara. Behin eta berriz atera diren zezenek, berriz, asko ikasi dute eta burua garatu egiten dute. Orduan, badaki nola harrapatu behar duen. Lehenengo aldian, aldiz, ez daki harrapatzen.

Uztai txapelketak egiten ditugunean, jakinaren gainean egoten gara zenbat irteeratako zezenak izaten diren. Gainera, behin eta berriz ikusitako zezenak izaten direnez, badakizu nolakoak den eta zer egingo duen.

Harrapatu zaitu zezenak inoiz?

Sustoren bat izan dut; horrelakoak beti gertatzen dira. Plazatik kallejoira salto egitean, zezenak, askotan, atzetik jarraitzen dizu eta hark ere salto egiten du.

Zerk ematen dizu beldur handiagoa: zezenek ala sokamuturrera sartzen diren mozkorrek?

Askotan mozkorrek beldur handiagoa ematen dute; bultzak aritzen dira, non dauden ere ez dakitela. Hortaz, zu jausteko ere arrisku handiagoa egoten da horrelako momentuetan. Sokamuturrak arrisku txikiagoa izan-go luke mozkorrik ez balego.



AURKEZPENA Miren Dobaran (Euskara Sustatzeko zuzendaria) eta Araceli Diaz de Lezana (Estandarizazioa). EUSKO JAURLARITZA

EUSKARA > INFORMATIKA

Ordenagailuan euskara erabiltzeko tresnak, Internetetik jaisteko

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak denetariko tresnak jarri ditu Interneten, 'www.euskara.euskadi.net' webgunean, euskara erabiltzeko erraztasunak emateko

Tresnak mota askotakoak dira: batzuk ordenagailua euskaraz erabiltzeko dira; beste batzuei esker, ordenagailuaren funtzioak euskaraz erabiltzeko moduan ditugu; badaude akats ortografikoak zuzentzen dituztenak ere; edo sinonimoak edo beste hizkuntzetako baliokideak ematen dituztenak ere bai. PCrako zein Macintosh-erako tresnak daude.

ONARRIZKOAK

Batetik, Windows eta Linux sistema eragileak, gehien erabiltzen direnak, euskaraz modu errazean eskura daitezke webgune horretan.

Ofimatika-paketeekin, gauza bera: Microsoft-en Office 2003-ren interfaze-paketea eskaintzen dute euskaraz eta, bestetik, kode irekiko OpenOffice.org paketea. Gainera, Windows Vistaren eta Office 2007ren interfazeen euska-

razko bertsiok prestatzen dabil Microsoft; eta Sailburuordetzak Linux sistema eragilearen eguneratze-lanak prestatzen dabil.

OSAGARRIAK

Beste tresna batzuk euskaraz jaitz daitezke *www.euskara.euskadi.net*-etik: esaterako, Xuxen zuzentzaile ortografikoa -Xuxen III da bertsi berriena, eta Xuxen IV egiten hasiko da Sailburuordetzak; hiztegiak ere *on-line* kontsulta daitezke, edo plugina integradezakegu gure testu-prozesatzailean. Hala, webgune horretan *Elhuyar*, *Hiru mila*, *Hauta Lanerako Euskal Hiztegia*, *Harluxet*... hiztegiak erabil daitezke, beste batzuen artean.

Horrez gain, Internet eta posta elektronikoa erabiltzeko nabigatzaileak eta aplikazioak ere euskaraz daude, Windowserako nahiz Linuxerako.

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA
Euskaldunok gero eta aukera eta erraztasun gehiago izan ditza-gun ordenagailuan euskaraz jarduteko, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ordenagailuan euskara erabiltzeko tresnak aurkeztu zituen atzo, eguena. Tresna horiek honako helbidean jarri ditu: *www.euskara.euskadi.net*.

teknologia berriak

> ORDENAGAILU ERAMANGARRIA

Acer Aspire 7720G, jokozale eta erabiltzaile multimedientzako 17 hazbeteko pantailaduna

Acer enpresaren Aspire 7720G modeloa jokozale eta erabiltzaile multimedientzako garatuta dago. CrystalBrite teknologia duen 17 hazbeteko pantaila, ATI Mobility Radeon HD2300 txartel grafikoa eta 2.2GHz-ko Core 2 Duo prozesagailua eta 4 GBraino doan RAM memoria dauka. 200 GBko disko gogorra, telebista digitalerako sintonizadorea, wi-fia, bluetootha eta subwooferdun bi bozgorailu dira nabarmentzeko beste ezaugarri batzuk. Salneurria 2.130 euro da.



500 GBko edukiera du (250 GBko bi disko gogor).

> BIDEOKAMERAK

Toshiba Gigashot A100F, 100 GBko disko gogorra daukan bideokamera berria

Toshibak bideokamera berria kaleratu du.

A100F bideokamerak definizio handiko (1080 p) bideoak grabatzen ditu, bi megapixeiko CMOS sentsorea erabilia, 60 fps abiaduran. Hamar handitzetako zoom optikoa du. Edukiera handi daiteke SDHC txartelentzako erretena erabilia.

Bi modelo ezberdinetan salgai jarri dute: 100 GBko edukiera duena 1.159 eurotan eta 40 GBkoa, 974 eurotan.



Tamaina txikia du bideokamera horrek: 78,1x135,4x79 milimetro.

> BILTEGIRATZEA

Appleran, Mac Pro ordenagailuen diseinua duten Iomegaren UltraMax disko gogor berriak

Iomega enpresak edukiera handiko UltraMax disko gogor berriak iragarri ditu.

Apple enpresaren Mac Pro ordenagailuen diseinuan oinarrituta daude, eta Macintosh erabiltzaileentzako garatuak daude.

UltraMax disko gogorrak 500 eta 750 GBko edukierak ditu. FireWire 800 eta 400, USB 2.0 edo eSATA portuen bitartez konekta daitezke ordenagailura.

UltraMax modeloa urrian eskuragarri egongo da, 134 euro eta 226 euro bitartean, modeloaren arabera.



Mac Pro ordenagailuetan oinarritutako diseinua du, eta horien osagarri paregabea izan daiteke.

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abestia) | **KODEA**

Himnoak
Eibar | **EIBAR**
Athletic Club | **BILBAO**
Osasuna | **OSASUNA**
Real | **REAL**
Real Union | **UNION**

Folk
Aurratsalde honetan (Sorotan Bele) | **SOROTAN**
Bai euskarari (Pantxo) | **BAI**
Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**
Bizkaia Maite (Benito Lerbundi) | **BIZKAIA**
Egurrak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorn) | **EUSKAL**
Euskaldun berriaren balada (Oskorn) | **EUSKALDUN**
Ez da posible (Ruper Ordonika) | **POSIBLE**
Furra Furra (Oskorn) | **FURRA**
Galziara noa (Oskorn) | **GALZIARA**
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) | **GERNIKA1**
Haika Mutil (Mikel Laboa) | **HAIKA**

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea **KODEA**
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea **KODEA**
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea **KODEA**
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea **KODEA**

ABESTIAK POLIFONIKOAK (2 SMS)
Abestiaren izena | **KODEA**

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | **KODEA**

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

OHARRAK
1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
2. **BALANTZAK:** Edozein zailantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
3. **ZALANTZAK:** Edozein zailantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditza zure abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

5767 zembakira

SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZA**

www.smsoinu.com

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

berriak

> PROGRAMAZIOA

Mojategitik egingo du 'Harmailatik' saioa Xabier Urtzelaik

Harmailatik saioan, asteburuak uzten dituen kirol gaiak landuko ditu Xabier Urtzelai aurkezleak. Asteburuan egingo den Gorlako igoerak protagonismo berezia izango du, eta hala, igoerak emango duen guztia ikusteko aukera partegabea izango duzue astelehenean *Harmailatik* saioan.

Bestalde, Mojategin grabatuko da saioa, eta Igor Gorbobil Mondra taldeko entrentzailea izango da bertan.

> PROGRAMAZIOA

'Musikantoi'-n Kilometroak jaian egongo diren taldeak

Urriaren 7an egingo da Kilometroak 07 jai handia, Bergarako Aranzadi Ikastolaren eskutik. Hala, egun horretan Bergaran izango diren talde eta bakarlarrien abestiekin osatuko da *Musikantoi* datoren astean. Besteak beste, honakoak izango ditugu; Anari, Gose, Petti, Esne Beltza, Fly Shit, Belceblues edota Tapia eta Leturia. Hauen guztien zuzenekoak edota bideoklipak ikusiko dituzue.

> ARRASATE IRRATIA

Maritxu Kajoiri ongietorria egingo diogu gure irratan

Gaur zortzi, egubakoitza, Maritxu Kajoi egun entzutezua ospatuko dute Arrasaten. Ezin bestela izan, eta herriko irratiak merezitako harrera egingo dio txikiteroen zaindariari. Kaleko giroaz, zaindariaren miriaz, jantzi dotoreez eta bestelakoez jardungo dugu, horrenbestez, urriaren 5ean, arratsalde partean, Maritxu Kajoi zaindariaren etorrerarekin bat eginez.

> ARRASATE IRRATIA

Datorren astean, Zinemaldiaren gaineko saio berezia

Aste osoan Donostiako Zinemaldiaren gaineko jarraipena egiten ibili eta gero, datoren astean, izandakoaren gainekoa balorazioa egingo dugu. Imanol Gallego kazetaria lehenengo lerroan izan dugu Donostian; beraz, hark ekarriko digu zuzeneko lekukotasuna gure uhinetara.

Donostian segituz, datoren astean ere joango gara aquariumera; eta, harako sarrerak izango ditugu entzuleen artean zozkatzeko.

'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 22:15

Iker Barandiaran, 'Ilunpean' saioko aurkezle berria

Txerra Bolinaga, RIP taldeko bateria jotzailearekin egongo da Iker Barandiaran bere lehen saioan

GOIENKARIA > ARRASATE

Iker Barandiaran kazetari arrasatearrak aurkeztuko du hemendik aurrera *Ilunpean* saioa. Bere lehen elkarrizketa Txerra Bolinagari, RIP taldeko bateria jotzaileari egingo dio, gaur bertan, 22:15ean. Txerra Bolinagaren ibilbide musikaz jarduteaz gain, Gasteizen bizi den arrasatear horren bizitzako beste hainbat alderdi ezagutu ahal izango dituzue.

Ilunpean-eko aurkezle izango den Iker Barandiaranek kulturako, politikako eta beste hainbat esparrutako jendea elkarrizketatuko du hemendik aurrera.



IKER BARANDIARAN Ilunpean saioko momentu batetan

GOIENKARIA

'PROGRAMAZIOA' >

GOITB-k hamar ordutik gora jasoko ditu astean programetan, Tokikotik

GOIENKARIA > ARRASATE

Zazpi tokiko telebistek osatzen dute Tokiko Telebisten elkarte. Hala, telebista horietako bakoitzak, ordu beteko ekoizpenak egin behar ditu astean elkarterako. Eta saio horiek, elkarte osatzen duten zazpi telebistetan

banatzen dira. Hori dela eta, Goiena Telebistak, Tokiko osatzen duten beste telebistetatik 10 ordu jasoko ditu programa eta saio desberdinetan, astero. Trukean, esan bezala, ordu bete ekoiztu beharko du Goiena Telebistak elkarterako. Hemen, Toki-

ko osatzen dute telebistek ekoizten dituzten saioetatik GOITB-n ikusi ditzakezenak; Ttipi Ttapa telebistatik *Eltze Beroa* eta *Reportaje saioak*. Goierri Telebistatik *Animaliak* saioa eta *Hitz Bitan* tertulia saioa. Tolosaldeko 28 Kanala telebistatik 2x2 reportaje sorta. Oizmendi telebistatik *Ikusmira* reportaje saioa *Eltze Beroa* eta estetika saioak. Nafarroako Xaloe telebistatik *Ikusten* reportaje saioa eta *Ur eta Lur* nekazaritzaren ganeko kontuak lantzen dituen, eta Zarautz telebistatik *Jazzmina*, *Kirolari* eta *Solasta*, elkarrizketa saioa.

telebegi

Leire Kortabarria

Jausten

Kateek duten ohitura zakar bat saioak abisatu barik kentzea da, eurek espero moduan ez doazenean —nahiz eta horrek ez duen derrigorrez esan gura gaizki doazenik. Beste askotan, egunez edo orduz edo bietaz aldatzen dituzte. Horren adibide oso deigarri bat *Caiga Quien Caiga*-rena izan da: joan den denboraldian egubakoitz gauean ematen zuen Tele5-ek, eta orain, bat-batean, martitzen gauerdian ipini dute.

Martitzen gauerdia elefanteen hilerrri antzeko bat iruditzen zait arrakasta handia izan zuen saio horrendako: martitzen gauerditik inoiz ez botatzera oso pauso txikia dago. Ezin esan pena ematen didanik: orain urte asko estreinatuta zen formatu hori, eta hasieran grazia egiten bazuen ere, azkenean nekeza egiten zait ustez barregarria den eta, askotan, lotsagabekeria hutsa besterik ez den jarrera baten oinarritutako sasi-kazetari-tzako saio bat. Izan ere, askotan, bidaltzen zen mezua hauxe izaten zen: lotsagabe izatea arrazoi nahikoa da ate guztiak ireki diezazkizuten, eta hala ez bada, pertsona edo erakunde horretaz trufa egiteko.

arrasate irrata

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.
Enaitz Alustitza bertsolaria, *Ilunpean* saioan, *Danbaka.cometa Kantaris* saioetako musika kontuak, hirugarren adinekoen gainekoak, Zinemaldia eta beste, asteko errepasoan.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitza

10:00-12:00 Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Donostiako Aquariumera bisita
Ilunpean
Zaharrak Berri
Kantaka
Elkarrizketak
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 1731 irratia@goiena.com)
11:55 Arrasateko albistek, titularretan.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Uda Giroan! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

GOITBko programazioa

Egubakoitza, 28

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musikantoi. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Ikusten. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Eltze beroa. 16:45 Albistek. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Aranzadi ikastolako erreportajea. 18:45 Albistek. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Kirolari. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 29

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikusmira. 11:30 Ikusten. 12:00 Astekoak. 12:15 Klipa. 12:30 Erreportajea. 13:00 Eltze beroa. 13:30 Aranzadi ikastolaren erreportajea. 14:00 Berbaire. 15:00 San Migelak 06. 15:30 Klipa. 16:00 Kirolari. 16:30 Ilunpean. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Erreportajea. 19:30 Klipa. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Erreportajea. 21:00 Ikusten. 21:30 Berbaire. 22:00 Astekoak. 22:15 Klipa. 22:30 Ilunpean. 23:00 Erreportajea. 23:30 Musikantoi. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 30

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. 11:00 Kirolari. 11:30 Musikantoi. 12:00 Ur eta lur. 12:30 Klipa. 13:00 Eltze beroa. 13:15 Klipa. 13:30 Erreportajea. 14:00 Ikusten. 14:30 Ilunpean. 15:00 Berbaire. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00 San Migelak 06. 18:30 Aranzadi ikastolaren erreportajea. 19:00 Eltze beroa. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Erreportajea. 21:00 Berbaire. 21:30 Musikantoi. 22:00 Erreportajea. 23:00 Teknopolis. 23:30 Ilunpean. 00:00 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 1

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Teknopolis. 14:15 Ikusten. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Klipa. 16:15 Kirolari. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ur eta Lur. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Berriak. 19:15 Musikantoi. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusten. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ikusmira. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 2

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Horry. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:45 Berriak. 15:15 Eltze beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Harmailatik. 16:15 Ikusmira. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Klipa. 18:45 Berriak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Horry. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:15 Harmailatik. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusten. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 3

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Erreportajea. 14:45 Berriak. 15:15 Ur eta lur. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Klipa. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Harmailatik. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Zaharrak berri. 20:45 Berriak. 21:15 San Migelak 07. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:15 Teknopolis. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ur eta lur. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 4

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zaharrak berri. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Marrazki bizidunak. 14:15 San Migelak 07. 14:45 Berriak. 15:15 Eltze beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ikusmira. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Eltze beroa. 18:15 Teknopolis. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Horry. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:15 Musikantoi. 22:45 Berriak. 23:15 Ur eta lur. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.

EZ DAGO PLASTIKOZKO BASOAN ZERBITZATUTAKO GARAGARDO BEROA BEZALAKORIK.

Zertara etorriko zara eguna pasatzera?

Taxuzko garagardoa hartzera: freskoa, edontzi zabalean, eta inportaziokoa? Nork nahi du jatetxe ona, 150 denda baino gehiago, dibertsiorako toki erraldoia? Zer gertatuko da, orduan, kalean jaten diren ogitartekoekin, zure semealabak non sartu diren jakin nahian zabiltzala digeritzen diren horiekin? Eta zer diozu frijituen usaintxo horretaz, hankak zapaltzen dizkizutela sentitzearen xarmaz, arratsalde erdialdeko beroaz?



Egiozu mesedea zeure buruari, eta
ez etorri San Miguel jai hauetan... beharbada gustatu egingo zaizu eta!



ZAHARRAK BERRI SAIOA

Aste honetan:

RA zahARRak
BERRI



NOIZ: urriak 3 eta 4

NOR: Antxon Mercero
Zinema zuzendaria

Zure intereseko elkarrizketak,
erreportajeak eta tertuliak batzen
dituen programa berria daukazu
GOITBn

EGUAZTENETAN **20:15**ean
EGUENETAN **13:15**ean

Kutzako Urrezko Zerbitzuko kide bazara
SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!
Deitu programan zehar **943 00 08 34**

Goitb
Goiena Telebista

URREZKO
ZERBITZUA

Ikustekoa!

Babeslea:

 **kutxa**

Irailak 28 urriak 5

MONIKA BELASTEGI

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Jaiak



OÑATI

> Askotariko ikuskizunak San Migeleta-ko lehenengo aste bukaeran

Oñatiarrak San Migel jaiak ospatzen hasiko dira gaur. Domekara arte ekitaldi ugari izango dira; argazkiko Niño Costri-ri antzerkigilearen emanaldia, esaterako. Zirkua, umorea eta akrobaziak tartekatzen ditu (bihar, 19:00, Foru plazan).

Jaiak



ARETXABALETA

> San Migel jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran, feria eta guzti

Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara arte iraungo dute jaiak. Hainbat ekitaldi izango dira; besteak beste, Artisau feria eta XIII. azoka biologikoa. 10:00etan hasi eta 14:00ak arte postuz josita egongo dira herriko kale nagusiak.

Musika



ELGETA

> Los Reyes del KO blues taldeak kontzertua egingo du Espaloian

1993an sortutako banda da Los Reyes del KO. Aurretik Tonky Blues Band taldean jardundakoak dira taldeko bi kideak. Gaur, egubakoitza, izango da emanaldia, 22:30ean, Espaloia Kafe Antzokian.

meen literatura. Urriaren 10ean hasiko da eta eskolak izango dira hamabostean behin, eguaztenetan, 18:00-20:00.

Bestea da *Blogak eta komunikazio digitala*. Eskolak eguaztenetan izango dira, 18:00-20:00, urriaren 4tik aurrera. Azkenik, *Nola hitz egin jende aurrean* ikastaroa hasiko da urriaren 15ean eta eskolak astelehenean izango dira, 17:00-19:00.

Gaur, egubakoitza, da izena emateko azken eguna, Emakume Txokoan.

BERGARA

> Ume eta gazteendako pintura ikastaroa Beart elkartarekin

Martitzen eta eguaztenetan izango dira eskolak, 10:00etan, 17:00etan eta 20:00etan.

Izena emateko: 653 71 53 82 (Mayra) eta 665 70 31 75 (Oihana).

ARRASATE

> Biodantzaren gaineko eskola irekia antolatu dute, doan

Urriaren 3an izango da, 17:30etik 21:30era.

Arrasate Yoga elkartearen egoitzan.

BERGARA

> 'Heldutasunaren plazerra' delako tailerra

Udaleko Gizarte Zerbitzuek antolatu dute. Bergarako emakume guztiei zabalik dago tailerra. Oinarria da urteen joan-etorriaz gogoeta egitea eta zahartzen ikastea. Eguaztenetan izango dira eskolak, 15:00-17:00, eta Pepa Bojo psikologoak emango ditu.

Izenematea izango da astelehenean, urriak 1. Horretarako jo Gizarte zerbitzueta-
ra edo deitu 943 77 91 80 zenbakira.

ARETXABALETA

> Dantza egipziarrak ikasteko aukera Jaiki taldearekin

Urriaren 3an hasiko dira eskolak eta Gabonak bitartean iraungo dute. Eguaztenetara izango dira, 19:00etatik 20:30era, Kurtzebarri eskolan. Prezioa da 35 euro langileendako eta 25 gainerakoendako.

Izenematea Aretxabaletako Azkena tabernan eta Arrasateko Tatu dendan.

ELGETA

> Biodantzaren gaineko klase irekia antolatu dute, doan

Elena Subijana psikologo eta biodantza irakasleak emango ditu eskolak. Urriaren 4an izango da, 19:15etik 21:00etara, herri eskolan.

Informazio gehiagorako deitu: 606 63 61 99 (Ana Sousa) eta 699 85 80 26 (Elena Subijana).

BERGARA

> Dantza garaikideko ikastaroa egingo dute urrian

Kirol Zerbitzuak antolatu du. Urriaren 5ean hasi eta abendura arte. Egubakoitzetan izango dira eskolak, 18:30-20:30, Agorrosinen. Irakaslea Saioa Ibañez izango da. Prezioari

Musika

ARRASATE

> Decepcion taldeak kontzertua egingo du

Gure Leku tabernan egingo dute emanaldia.

Gaur, egubakoitza, 23:00etan.

OÑATI

> Punk-rock kontzertua San Migel jaien barruan

Travis Bickle, Never Surrender, Golpe de Estado, Peter and The Test Tube Babies eta Chelsea taldeek hartuko dute parte.

Bihar, zapatua, 22:00etan.

OÑATI

> Udal Musika Bandak emanaldia egingo du

San Migel jaien barruko emanaldia da eta bost obra egingo dituzte.

Bihar, zapatua, 13:00etan, Herriko Plazan.

BERGARA

> Disko jartzaileek emanaldia egingo dute

Elektro k eta 2zur2 arituko dira diskoak jartzen, gaur eta bihar, hurrenez hurren.

23:00etan, Ziripot tabernan.

OÑATI

> 'Argi beltz' delako ikuskizuna Sotto Voce orkestrarekin

Sotto Voce orkestrarekin batera, Tirri-Tarra abesbatzak eta Oñatiko Ganbara abesbatzak hartuko dute parte.

Bihar, zapatua, 23:00etan, Herriko Plazan.

BERGARA

> Organo erromantikoaren zikloaren barruko emanaldia

Nazioarteko 8. zikloaren barruko emanaldia da.

Bihar, zapatua, 20:00etan, San Pedro parrokiaren.

ARETXABALETA

> Mikel Deunaren kontzertua herriko abesbatzekin

Leizarra Musika Eskolako abesbatzak eta Aretxabaletako abesbatza arituko dira.

Etzi, domeka, 19:00etan, Iturrigorri.

Antzerkia

ARETXABALETA

> Aukeran dantza taldeak emanaldia egingo du

Bideak izeneko ikuskizuna egingo dute.

Bihar, zapatua, 22:00etan, Iturrigorri.

ARRASATE

> Gipuzkoako bertso lehiaketako kanporaketa

Aitor Sarriegi, Asier Iriondo, Ainhoa Agirreazaldegia, Iker Goñi, Aitzol Barandiaran eta Ander Lizarralde arituko dira.

Etzi, domeka, 17:00etan, Kulturaten.

Hitzaldiak

ARRASATE

> Fibromialgia izango dute hizpide Bizi Biderekin

Fibromialgiak eta astemia kronikoak berba egingo du Rosa Mari Landa adituak.

Urriaren 4an, 18:00etan, Kulturaten.

Erakusketak

OÑATI

> Auto klasikoaren bilduma ikusteko aukera

Auto klasikoak ikusteko aukera paregabea. Txosnaguan eta unibertsitate inguruan.

Etzi, domeka, 13:00etan.

ARRASATE

> Jon Idigoras akuarela egilearen erakusketa

55 urteko ermuarrak 100etik gora sari jaso ditu bere akuarelekin.

Urriaren 19ra arte, Iñigo Arregi aretoan.

ARRASATE

> 'Emakumearen errealitateari begira' delako erakusketa

Bikoitza da erakusketa. Batetik, emakumeekiko indarkeriaren aurkako kartelak daude; bestetik, argazki erakusketa bat: *Leiho bat zabalik emakume etorkinen bide luzean.*

Urriaren 2tik 28ra, Kulturaten.

Ikastaroak

ARRASATE

> Ekamumeendako Jabetze eskola antolatu du Emakume Txokoak

Hiru ikastarok osatzen dute: bata da *Munduko emaku-*

PROPOSAMENA

ARRASATE

> 'Bertso-raperoak' ikuskizuna egingo du Arizmendiko antzerki taldeak

Arizmendiko guraso eta irakasle taldeak osatzen du antzerki taldea. David Errastiren zuzendaritzapean, Juan Ignacio Montianok idatzitako *Bertso-raperoak* antzezlanak egingo dute Amaia antzokian. Bi atal ditu: lehenengoan, gazte talde baten gertaerak kontatuko dituzte; bigarrenean, berriz, helduek mundua hankaz gora nola jar dezaketean.

Gaur, egubakoitza, 20:00etan, Amaia antzokian.



dagokionez, erroldatuek 15 euro ordaindu beharko dute hileko; gainerakoek, 20. Izenemateen artean zozketa egingo dute; bergarrek lehentasuna izango dute. Izena emateko jo Kirol Zerbitzura.

ARETXABALETAK
> Yoga ikastaroa Aredhana eskolarekin

Martitzen eta eguenetan izango dira eskolak, 10:00etan, 17:00etan eta 20:00etan. Izenematea: 616 96 57 95.

Ospakizunak

BERGARA
> San Migel jaiak ospatuko dituzte Angiozar auzoan

Gaur, egubakoitza, *Pizti hezlea* antzezlan egingo du, 17:00etan, Txalo taldeak; eta 19:00etan danborrada egongo da. Bihar, zapatua, San Migel Eguna, meza nagusia egongo da 11:30ean; sardina jana 21:30ean eta gero, dantzaldia. Domekan, berriz, pilota partiduak izango dira: 12:30ean, Angiozarko I. torneoa jokatu da.

Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara arte.

ARRASATE
> Maritxu Kajoiren 'Nobenaixue' egingo dute gaur

Urteetan egin duten lana eskertzeko omendu egingo dituzte Biona tabernakoak. Horrez gain, Arabako gazta eta Errioxako ardoa dastatzeko aukera egongo da.

18:30ean, Maritxupeien.

ESKORIATZA
> Herriko nagusienei omenaldia egingo diete

12:30ean, meza nagusia izango da; 11:00etatik 12:30era, salda banatuko dute. bazkaria 14:00etan izango da, pilotalekuan, eta gero, dantza eta opari banatzea egingo dute.

Etzi, domeka.

Bestelakoak

BERGARA
> Umeendako jolasgunea antolatuko du Bedelkarrek

Gaztelu puzgarria eta quadak egongo dira, besteak beste.

Bihar, zapatua, 12:00-14:00 eta 17:00-20:00, San Martin plazan.

BERGARA
> Hainbat kulturatako dantza eta jaki erakustaldia

Debagoienean bizi diren hainbat etorkin –Bolivia, Kolonia, Peru, Brasil, Ekua-dor, Maroko, Senegal...– batu eta dantza erakustaldia eta euren herrierako gastronomia azokatzeko egingo dute. Duela bi urte hasi ziren dantzaldi erakustaldia egiten. Erakustaldia Caritasen egoitzan egin izan dute bi urteotan. Aurten, kalera atera eta herritarrekin partekatu nahi izan dute jaialdia.

Bihar, zapatua, 17:00etan, Fraiskozurin.



Mataharis ***

Zuzendaria: Icíar Bollain.
Aktoreak: Najwa Nimri, María Vázquez, Nuria González. Espainia. 2007. 100 min.

Gaur, egubakoitza, helduko da gure pantailara joan den asteen Donostiako Zinemaldian estreinatutako *Mataharis*. Icíar Bollain zuzendariak (*Hola, ¿estás sola?*, *Flores de otro mundo*, *Te doy mis ojos*), bere lanetan, gure gizartean gertatzen ari diren arazoak tratatzen ditu: emigrazioa, tratatu txarrak... eta *Mataharis*-en bide horretatik jarraitzen du. Zuzendariak detektibe diren hiru emakumeren istorioen bitartez bikoteen arteko komunikaziorik ezak aztertzen ditu: hirurek lanean eta etxean dituzten buruhausteak ikusten ditugu; alde laborala eta alde pribatua eta batak bestean duen eragina. Lanak denbora laburra uzten du harreman sentimentalak lantzeko eta sendotzeko, eta tirabirak, sekretuak, inkomunikazioa eta mesfidantza sortzen dira.

Hiru emakumeak adin desberdinekoak dira: gazteena bere lana nolakoa den ezagutzen hasten da, noraino heldu gaizteke informazio bat lortzeko?; bigarrenean, bikote baten krisialdiaren hasiera ikusten dugu; eta hirugarrenean, –heldue-na–, krisialdiei aurre ez egiteak dakartzan emaitzak. Eta hiru istorioen bitartez gure gizarteari begirada orokorra ematen zaio. Alde batetik, ez dizkiegu gure sentipenak bestezi zabaltu nahi eta beste sentipenak, agian gehiegi, ezagutu nahi ditugu. Eta filma arazoak aurrez aurre erakutsi eta haiei aurre egitearen alde dago.

Mataharis filmak –gizonezko pertsonaiaren bat apur bat eskematikoa bada ere– ondo islatzen du gaur egungo egoera. Bollainek, kamera asko mugituz, filmari berehalako itxura eman nahi dio, filma freskoa eta naturala suertatzen da, eta lortutako emaitzan zerikusi handia du aktore guztien lan ederrak.

Antonio Zabala

Zinema

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA

Los 4 fantasticos y Silver Surfer
Domeka: 17:00, 19:30.
Astelena: 20:30.

EIBAR
UNZAGA

Caotica Ana
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelena, martizena eta eguaztrena: 19:30, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

La gran estafa
17:30, 20:00, 22:30.
Transilvania
17:30, 22:30.
Mataharis
17:30, 20:00, 22:30.
¿Y tu quien eres?
18:00, 20:15, 22:30.
Los testigos
20:00, 22:30.
Un corazon invencible
18:00, 20:15, 22:30.
Voces inocentes
20:00.
Movida bajo el mar
17:30.
Conversaciones con mi jardinero
18:00, 20:15, 22:30.

GASTEIZ
GURIDI

Salir pitando
17:00, 19:45, 22:30.
Chanson D'amour
19:45.
La extraña que hay en ti
17:30, 20:00, 22:30.
La jungla de cristal 4.0
17:00, 22:30.
Casate conmigo
20:00.
La carta esferica
17:30, 22:30.
Hora punta 3
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.
Hairspray
17:30, 20:00, 22:30.

YELMO
CINEPLEX-GORBEIA

Hora punta 3
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
La extraña que hay en ti
12:15, 17:30, 20:00, 22:30, 00:50.
La gran estafa
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.
Disturbia
17:40, 19:40, 21:40, 23:40.
Sin reservas
12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.
Guardianes del dia
18:30, 21:30, 00:00.
Salir pitando
18:20, 20:20, 22:20, 00:20.
Hairspray
17:45, 20:00, 22:15, 00:30.
Os declaro marido y marido
12:15, 15:35, 17:50, 20:05, 22:20, 00:30.
Casate conmigo
19:50, 21:50, 23:50.
La jungla de cristal 4.0
12:15, 16:45, 19:15, 21:45, 00:15.
Movida bajo el mar
12:15, 16:15, 18:15.
Death proof
19:40, 21:55, 00:05.
La ultima legion
12:15, 16:30.
Caotica Ana
22:35, 00:40.
El ultimatum de Bourne
17:55, 20:10, 22:25, 00:40.
Sigo como Dios
12:15, 15:45.
Papa canguro
12:15, 16:05.
Locos por el surf
12:15, 15:40, 17:40.
Los 4 fantasticos y Silver Surfer
12:15, 15:40.
Harry Potter V
12:15, 15:50.
Ratatouille
12:15, 15:55, 18:10, 20:25.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan. Astelena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

Eskasa:* Balekoa:** Ona:*** Oso ona:**** Bikaina:*****

Ratatouille *****

AEB, 2007. Zuzendaria: Brad Bird. Marrazki bizidunak. 110 min. Remy sagu mokofina da, eta ez da konformatzen zaborrontzietako jakiekin. Parisko jatetxe onenetako baten chef izan nahi du.

Amor y otros desastres

Erresuma Batua, 2006. Zuzendaria: Alek Keshishian. Aktoreak: Brittany Murphy, Matthew Rhys, Orlando Bloom, Gwyneth Paltrow. 90 min. Bere lagun onenei bikotekidea aurkitzen iaioa da Emily Jackson Jacks. Baina beste maitasun kontuetan laguntzen dien arren, ezagutuko ote du bere maitasun handia, agertzen denean?

Bratz: La Película

AEB, 2007. Zuzendaria: Sean McNamara. Aktoreak: Nathalia Ramos, Janel Parrish. 110 min. Yasmin, Jade, Sasha eta Cloe betiko lagun minak dira. Institutuan hasten direnean, arazoak izango

dituzte, ikasgelako neska zaharrago batek ezarritako arauak ez betetzeagatik. Euren lagun taldea osatuko dute, hari aurre egiteko.

El ultimatum de Bourne ***

AEB, 2007. Zuzendaria: Paul Greengrass. Aktoreak: Matt Damon, Julia Stiles, Joan Allen. 111 min. Bi kazetari desagertu egingo dira CIA ikertzen ari direnean. Jason Bourne ikerketa horrekin jarraituko du, iragana argitu nahian eta erakundearekin zorrak kitatu nahian jarraituko du Bourne ikerketarekin.

Locos por el surf ***

AEB, 2007. Zuzendaria: Chris Buck. Animazioko filma. 85 min. Pinguino batek lehiaketa ikusgarri eta arriskutsu batean parte hartu behar du. Pinguinoen Munduko Surf Txapelketan, hain justu ere. Cody Maverick pingino gaztetxoarendako lehen txapelketa profesionala izango da. Nola jardungo du txapelketan? Zer ekarriko diotxapelketan parte hartzeak?

Caotica Ana ***

Espainia 2007. Zuzendaria: Julio Medem. Manuela Vellés, Bebe, Asier Newman. 120 min. An 18 urteko margolaria, artea ikastera joango da Madriler. Pertsona baikor eta alai da, baina hipnosi baten ondoren, bizitza aldatuko zaio. Ezagutzen ez dituen beste emakume batzuk agertuko zaizkio; guztiak 22 urtekin hil ziren, eta Anaren inkontzientean daude. Erantzun bila hasiko da.

La Jungla 4.0

AEB, 2007. Zuzendaria: Len Wiseman. Aktoreak: Bruce Willis, Timothy Olyphant, Justin Long. 129 min. Uztailaren 4a, Ameriketako Estatu Batuetan. Ziber erasotzaile batzuek AEBetako sistema informatikoa suntsitu eta blokeatuko dute, kaosa sorraraziz. Thomas Gabriel gaiztoak plan perfektua duela uste du, baina John McClane polizia beteranoak gauzak zail jarriko dizkio.

nire aukera



Angel Barandiaran Aretxabaletako abesbatzako zuzendaria

Musikari lotutako aste bukaera

Musika da Angel Barandiaranen zaletasun nagusia, eta, hortaz, musikarekin lotutako hainbat gauza egiten ditu aste bukaeran. Bariku arratsaldean, emaztea lanetik ateratzen denean kalean bueltatzeko ematen dute eta lagunekin txikito batzuk hartu. Biek oso gustuko dutena da asteburuan etxetik kanpo gosaltzea. Zapatuan, "halaxe suertatzen balda", musikarekin dituzten konpromisoak betetzen dituzte. Domekan, "negu partean, etxean geratzen gara arratsaldean. Partituraren bat berrikusten, irakurtzen, pilota partiduren bat ikusten...

Aste bukaeran jaiak Aretxabaletan. Zer egiteko asmoa duzu?

Zapatuan azoka ikusi eta kalean daudenak ikustera aterako gara. Domekan, berriz, kontzertua daukagu, eta horretan arituko naiz buru-belarri. Argi eta soinuaz arduratzen direnak 15:00etarako izango dira pilotalekuan, eta ni ere han izango naiz.

Egitarauko zein ekitaldi gomendatuko zenuke?

Azoka eta haren bueltan sortzen den kaleko giroa. Hori zapatuan, eta domekan, pilotalekuan abesbatzako egingo duen emanaldia. Polita da, herriko hainbat taldek hartuko dutelako parte: txalapartariak, dantzariak... Oso giro jator eta *aretxabale-tarra* izango da.

Zuzentzeko obrarik gustokiena? Eta entzuteko?

Sail folklorikoari dagokionez, Guridiren *El Caserio* eta Sorozabalen *Katiuska* zarzuela. Arlo polifonikoan, orain esku artean dugun Gabriel Faurén *Requiem*-a. Hilaren 6an Azkoitian eta 13an Bergaran abestuko dugu lan hori.

Kanpotik datorren lagunari zer erakutsiko zenioke Debagoienetik?

Gauza asko dago erakusteko. Oñati eta Bergarako eraikinak, Arantzazu eta Urkuluko natura inguruneak...

Zinemaldiko izarren atzetik

FILMAK Sail ofizialeko film guztiak ikusten ditu eta Zabaltegi batzuk, Imanol Gallego Arrasateko kazetariak

RICHARD GERE Bere papera bete du aktore iparramerikarrak, hurbilekoa baina era berean izarra

BITXIKERIAK Maria Kristina hoteleko gela bat husteko eskatu zuen Gerek, lau lamarekin batera hausnarketan jarduteko

MIRARI ALTUBE > ARRASATE
Imanol Gallego arrasatearra lau garren aldiz dago Donostiako Nazioarteko Zinemaldian lanean. Kazetaria da, eta filmak ikusi, etorritako izarrei atzetik jarraitu eta ikusitakoak kontatzea du eginbehar: "Zinemaldiak irauten duen hamar egunetan 30 bat film ikusiko ditut". Sail ofizialeko guztiak ikusiko ditu eta Zabaltegi barruan dauden batzuk: zuzendari berrien atalekoak eta bitxien atalekoak -beste zinemaldi batzuetan sarituak-. "Orain arte ikusitako artetik bi aukeratuko nituzke: Iranen egindako *Buda exploto por vergüenza* eta *Free Rainer* alemaniarra".

IZARRAK ETA BITXIKERIAK
Izar asko hurreratu dira aurtengo Zinemaldiko alfombra gorrira, eta Richard Gere aktoreak ikaragarriko jendetza erakarri zuen: "Ez dut ezagutu halako ikusminik, eta, egia esan, bere papera bete du Gerek, hurbilekoa baina era berean izarra izan da". Eta, zela ez, hainbeste izar eskura izanda sina-

durak eskatu behar. Zerrenda luzea dauka dagoeneko: Richard Gere, Viggo Mortensen eta David Cronenberg zuzendaria, esaterako. Eta aurretik dituenak: Woody Allen, Oliver Stone, Amanda Peet, Matt Dillon...

Bestalde, izarrek bitxikeriak dakartzate, eta Gallegok makinatxo bat daki: "Maria Kristina hoteleko gela bat husteko agindu zuen Gerek eta berarekin etorritako lau lamarekin batera hausnarketan eman zuen domeka goiza. Horixe izan da aurtengo eskaerarik harrigarriena. Viggo Mortensen inaugurazio jaialdian ikusi nuen eta oso jatorra iruditu zitzaidan, eta aditua. *Embrujadas* telesailarekin hain famatua egin den Alyssa Milano ez zen geratu ere egin argazkilari eta zaleen aurrean iritsi zenean; antza denez, zatar zetorren".

Kontuak kontu, Gallegorendako unerik politena epaimahaiak sarituen berri ematen duena da: "Kazetariok garelako horren berri izaten lehenak; eta txaloak, txistuak... Denetik egoten da".



IZARREKIN Imanol Gallego arrasatearra Eduardo Noriega aktorearekin.

IMANOL GALLEGO

ahobero

"Gran Hermano" lehiaketako parte-hartzaileek biztanleen batez bestekoak baino adimen handiagoa dute"

Enrique Garcia Huete > 'GH'-ko psikologo taldeko burua

Ez dute ba gero halakorik erakusten. Ala azpijokoan jarduteko, egundokoak esateko eta hankaz gora egoteko izango da. Hau da, telebistak eskatzen duen ikuskizuna emateko.

iturri onetik

Buruhandi eta erraldioen konpartsa sortu gura dute Aretxabaletan

Aretxabaletako guraso batzuk buruhandi eta erraldioen konpartsa sortzeko lehen pausoak ematen dabilza. Udalarekin dagoeneko jarri dira harremanetan, eta beste herri batzuetan zela dauden antolatuta aztertzekotan geratu dira.

Azken urteotan gurasoak janzten dira buruhandi herriko jaietan. Boluntario eske ibiltzen dira beti eta talde egonkorra sortu gura dute.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Gitarra bat lagun

Hala omen zebilen beti Pertur, gitarra aldean, baina desagertu zenean ere. Kantatzeaz aparte, kantu batzuk ere eragin zituen: Gontzal eta Xeberrik *non ote zara?* kantatzen zioten, Gorka Knörr-ek *Txakurrak* izenekoa....

Hogeita hamar urte luzez esan digute Pertur ETAK desagerrarazi zuela. Askori interesatzen zitzaielako, dudarik gabe. Baina, asteon, tesi sinesgarriagoa eman da ezagutzera Donostiako Zinemaldian: italiar neofaxistek bahitu ei zuten, espainiar poliziaren esku uzteko. Gorpua aurkitu arte ezingo da guztiz berretsi, ordea, eta auskalo oraindik posible den.

Niri, edonola ere, duintasun ariketa itzela iruditu zait. Giza talde batek aginteari erakutsi dio gezurra argitzeko ahalmena. Hurrengoan har bezate kontuan.

ai, ene!



Mezuak idazten dituen txigorgailua

Behar beste bakarrik erretzen du ogia ondo irakurtzeko mezuak. Maiteminduendako ezin hobea, jaiki orduko mezuak bidaltzeko.

<http://www.gizmologia.com>

Bisita ezazu Gipuzkoako sukalde, armairu eta bainugelaren erakusketa handiena

Armeko
Sukalde Integrala

31 sukalde baino gehiago ikusgai
600 m2 baino gehiagoko erakusketa
Europako lehen markak

KSM talde laneran indarra

VENTANAS AISLANTES
MUEBLES COCINA - BAÑO

Orduetgia: 10 - 13 eta 16 - 19:30 . Larunbatak: 10 - 13

25 urte
Zurekin

Fabrikazio eta muntaia profesionala
Aurrekontuak eta aholkularitza konpromisorik gabe

YOSUTHERMIK
LEIHO ISOLATZAILEAK

Merkatuko prezio hoberenak

Kataide Poligonoa 4 - ARRASATE - 943 770157

Kalitate-prezio erlazio paregabea